ikus pegi
Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

# NEURTU 2021

## EAEko aniztasunari buruzko barometroa

### Sexu- eta genero-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak





*CIP. Biblioteca Universitaria*

**Neurtu** 2021, EAEko aniztasunari buruzko barometroa [Recurso electrónico]: LGTBI kolektiboarekiko pertzepzioak eta jarrerak / Ikuspegi – Observatorio Vasco de Inmigración. – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2022. – 1 recurso en línea : PDF (108 p.)

En la cub.: Ikuspegi - Observatorio Vasco de Inmigración; Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea; Eusko Jaurlaritza, Berditasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila = Gobierno Vasco, Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas sociales.
Modo de acceso: World Wide Web.
ISBN: 978-84-1319-434-9.

1. Minorías sexuales – País Vasco. 2. Discriminación sexual – País Vasco. 3. Discriminación sexual – Opinión pública. I. Ikuspegi, Observatorio Vasco de Inmigración.

(0.034)316.647.82(460.15)

**Argitalpen hau nola aipatu:**
(APA 7 arauen arabera)

Ikuspegi (2022). *Neurtu 2021. EAEko aniztasunari buruzko barometroa: sexu- eta genero-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak*. https://www.ikuspegi.eus/documentos/neurtu/2021/neurtu2021eus.pdf

*Argitaraldi elektronikoa*

| | |
|---|---|
| Ikertzaile-taldea: | Julia Shershneva Zastavnaia (koordinatzailea)<br>Lía González Estepa<br>Beatriz Otero Gutiérrez<br>Irune Ruiz Ciarreta<br>*Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia* |
| Talde laguntzailea: | Jokin Azpiazu Carballo<br>*Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea*<br>José Antonio Langarita Adiego<br>*Universitat de Girona* |
| Urtea eta lekua: | 2022, Bilbo |
| Argitaratzailea: | Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua |
| Diseinua eta maketazioa: | Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia |
| Dokumentazioa: | Antonio Gómez<br>*Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia* |
| Itzulpena: | Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L |
| Azaleko argazkia: | Timon Studler |
| ISBN: | 978-84-1319-434-9 |

# AURKIBIDEA

**Aurkezpena** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **5**

**Metodologiari buruzko oharra** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **9**

**1. Askotariko gizarte baterantz irekitzea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **11**

1.1. EAEko biztanleek aniztasunaren inguruan dituzten jarrerak eta sinesteak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 11

1.2. EAEko biztanleek diskriminazioaren aurrean dituzten jarrerak eta pertzepzioak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 26

1.3. Eskubideak eta erakundeak ezagutzea eta diskriminaziorik ezari dagokionez erakundeek egiten duten lanaren balorazioa . . . . . . . . . . . . . 37

**2. Sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI kolektiboarekiko pertzepzioak eta jarrerak** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **45**

2.1. Sexu- eta genero-aniztasunari lotutako gaurkotasuneko gai batzuei buruzko pertzepzioak eta jarrerak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 45

2.2. Sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI kolektiboarekiko jarrerak, hainbat eremuren arabera . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 55

2.3. LGTBI kolektiboarekiko diskriminazioaren pertzepzioa . . . . . . . . . . . . . . . 69

2.4. Sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI kolektiboarekiko irekitasuna EAEn . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 74

**Ondorio orokorrak** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **91**

Eranskinak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 97

# Aurkezpena

Txosten honek *Neurtu 2021. EAEko aniztasunari buruzko barometroa: sexu- eta genero-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak* (aurrerantzean, Neurtu 2021) azterlanaren analisitik etorritako emaitza nagusiak biltzen ditu. Euskadiko biztanleek diskriminazioaren inguruan dituzten pertzepzioei eta jarrerei buruzko Inkestak (aurrerantzean, EPADE 2020) irekitako bideari jarraitzen dio azterlan horrek. EPADE inkesta aitzindaria da gure lurraldean, askotariko gizarte-errealitatearekiko eta berdintasunarekiko eta diskriminaziorik ezarekiko konpromisoaren aurrean Euskadiko biztanleriak dituen jarrera eta irekitasuna aztertzeari dagokionez.

EPADE 2020ren helburua zen EAEko biztanleek aniztasunari buruz bere eremu desberdinetan zer pertzepzio eta jarrera dituzten jakitea, bai eta EAEn diskriminazioa zenbatekoa den neurtzea ere, kontuan hartuta pertsonen arteko diskriminaziozko jardunbideak. Bigarren inkesta honen helburua da ildo horretan aurrera egitea, hainbat kolektibori eragiten dieten errealitateak berariaz jorratuz, euskal gizarteak kolektibo horietaz duen pertzepzioari buruzko galdera-sorta espezifikoak barne. Edizio honetan, sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI kolektiboarekiko pertzepzioak eta jarrerak ditu ardatz inkestak.

Beraz, helburua da jakitea euskal gizarteak nola “arnasten” duen, oro har, aniztasunari, eta zehazki, sexu- eta genero-aniztasunari eta LGTBI pertsonei dagokienez. Hau da, euskal gizarteak zer jarrera dituen, zer pertzepzio erabiltzen dituen bere imajinarioan eta, azken batean, zer jarrera hartzen duen LGTBI pertsonengan pentsatzen duenean eta haiekin mintzatzen eta erlazionatzen denean.

Sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI kolektiboarekiko pertzepzioei eta jarrerei buruzko datu-bilketa lehenestea ez da erabaki arbitrarioa, baizik

eta arlo horretan lan egiten duten entitateek, kolektiboek eta erakundeek LGTBI pertsonen errealitateak agerian jartzeko informazioa sortzeko eskaerari erantzuten lagundu nahi du.

Horretarako, diseinatu den inkestan hainbat alderdi jaso dira aniztasuna eta diskriminazioa osorik hartuta zer pertzepzio dagoen jakiteko, eta bereziki aztertu da LGTBI pertsonekiko zer jarrera dagoen, aurreiritziak adierazteko hainbat modu kontuan hartuta (batzuk agerikoak, eta beste batzuk, berriz, sotilagoak)[1]. Horren harira, inkestari esker, jarreren argazki finko bat lortu dugu, eta, gainera, jarrera horiek monitorizatzeko tresna ere bada.

Komeni da aipatzea inkesta tresna metodologikoa dela eta, beste edozeinek bezala, mugak dituela. Ikerketa sozialaren ikuspegitik, frogatua dago inkestetan oinarritutako diseinu metodologikoa ez dela modurik egokiena jarrerak, motibazioak, prozesuak, sinesmenak, pertzepzioak... sakon ezagutzeko. Garrantzitsua da kontuan hartzea desiragarritasun sozialaren joeraren arriskua[2], bai eta beste fenomeno soziokultural batzuek izan dezaketen eragina ere[3].

Hala ere, diseinu kuantitatiboaren mugak zein diren jakinda eta emaitzak interpretatzeko orduan horrek dakarren zuhurtzia kontuan hartuta ere, interesgarria eta erabilgarria da inkestaren ikerketa-teknikan oinarritutako azterketa hau garatzea, zenbakizko neurketa zehatzagoa egiteko aukera ematen digulako, aldagaien arteko erlazio esanguratsuak atzematen laguntzen

[1]Ageriko aurreiritziaren eta aurreiritzi sotilaren arteko bereizketak arraza-aurreiritziaren eta arrazismoaren beraren fenomenoaren azterketa sozialean du jatorria. Hala ere, sexismoa eta, berrikiago, homofobia aztertzeko (eta neurtzeko) ere baliagarria izan da. Horri buruz ikus: Quiles del Castillo et al. (2003). La medida de la homofobia manifiesta y sutil. *Psicothema*, 15 (2), 197-204.

[2]M. Ángeles Cea D'Anconaren hitzetan: "La deseabilidad social es un sesgo de gran efecto en el deterioro de la calidad de la encuesta, por su carácter sistemático más que aleatorio. Comúnmente se vincula al aumento de los errores de medición porque el encuestado no acaba admitiendo su implicación en conductas, actitudes u opiniones que percibe como socialmente «indeseables». El temor al rechazo o desaprobación social le lleva a pronunciar respuestas concordantes con la corrección política o la deseabilidad social, aunque no se correspondan con lo que realmente sienta u opine". Cea D'Ancona, M.ª Ángeles (2009). La compleja detección del racismo y la xenofobia a través de encuesta. Un paso adelante en su medición. Reis. Revista Española de Investigaciones Sociológicas, (125),13-45. ISSN: 0210-5233. Hemen eskuragarri: https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=99712084001

[3]Horren harira, interesgarria eta oso erabilgarria da autore feministen teorizazioak kontuan hartzea, besteak beste, Nancy Fraser eta Arlie Russell Hochschild; horiek aztertzen dute gizartean diskriminatuenak eta kaltetuenak diren sektoreek nola erantzun dezaketen modu negatiboan aniztasunaren defentsaren aldeko klase aberatsagoen diskurtsoen aurrean:

Fraser, Nancy. (2015). *Fortunas del feminismo*. Traficantes de sueños.

Fraser, Nancy. (2020). *Los talleres ocultos del capital*. Traficantes de sueños.

Hochschild, Arlie Russell. (2018). *Extraños en su propia tierra. Réquiem por la derecha estadounidense*. Capitan Swing.

Erreferentzia bibliografiko horiek Estatu Batuetako testuinguruan aztertzen badute ere fenomeno hori, interesgarria iruditzen zaigu horietan azaldutako ideia batzuk aplikatzea; izan ere, gizarte-klasea edo jatorria kontuan hartzen ez duten aniztasunari buruzko diskurtsoen eraginaren inguruan argigarriak izan daitezkeelako.

digulako, profilak eta tipologiak ezartzeko eta haien osaera kuantifikatzeko aukera ematen digulako, eta, lehen esan dugun bezala, aztertu beharreko fenomenoaren bilakaeraren monitorizazioa errazten digulako.

Era berean, azterlana zorrotzagoa izan dadin, ikerketa honen diseinuan eta emaitzen azterketan sexu- eta genero-aniztasunean adituak diren bi pertsonek hartu dute parte: Jokin Azpiazu Carballo[4] eta José Antonio Langarita Adiego[5].

Egiturari dagokionez, bi bloke handitan antolatua dago txosten hau. Lehenengo blokean, EAEko biztanleek aniztasunaren eta diskriminazioaren inguruan dituzten jarrerak eta pertzepzioak jorratu dira. Beste atal bat ere badu, hainbat alderdi aztertzen dituena: herritarrek diskriminazioaren aurrean dituzten eskubideei buruz gizarteak duen ezagutza, bai eta eskubide horiek defendatzeko ardura duten erakunde eta mekanismo instituzionalei buruz duena ere, eta herritarrek egiten dituzten balorazioak tratu berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan erakundeek egiten duten lan instituzionalari buruz. Bigarren blokeak, sexu- eta genero-aniztasuna eta LGTBI kolektiboa berariaz interpelatzen dituzten errealitateekiko dituzten jarrerak eta pertzepzioak ditu ardatz, eta sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizea jasotzen du, euskal gizarteko taldeak dagokien lekuan kokatzen dituena.

Gainera, sarrera honen ondoren, egindako ikerketa-prozesuan aplikatutako metodologiari buruzko oharra sartu dugu, eta, am aitzeko, ondorio orokorren azken atal bat, non laburbilduta nabarmentzen baitira garrantzi eta interes sozial handieneko aurkikuntzak.

Txosten honen helburua ez da, inola ere, argazki estankoa edo ukaezina egitea, baizik eta ebidentziak sortzen laguntzea, oro har, aniztasunaren fenomenoari buruzko eztabaidan eta ezagutzan sakontzeko lagungarri izan daitezen, bai eta sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI kolektiboarekiko pertzepzioak eta jarrerak ezagutzeko ere.

Laburbilduz, oro har, biztanleen pertzepzio eta jarrerei buruzko datu-panorama eskaintzen dugu, partekatzen dugun gizarte-imajinarioari dagokionez kokatzeko balio duena. Era berean, oso egokitzat eta aberasgarritzat jotzen dugu, etorkizunari begira, ikuspegi orokor hori alderatu eta elkarrizketan jartzea LGTBI pertsonek Euskadin dituzten bizipenak eta ikuspuntuak jorratzen dituzten azterlanekin.

[4] Jokin Azpiazu Carballo soziologoa eta UPV/EHUko irakaslea da, sexu- eta genero-aniztasunean eta feminismoan aditua.

[5] José Antonio Langarita gizarte-langilea eta antropologoa da, eta irakasle eta ikertzaile gisa dihardu Gironako Unibertsitatean. Aditua da haurtzaroarekin, LGBTI+ gaiekin eta gizarte-kalteberatasunarekin lotutako gaietan.

# Metodologiari buruzko oharra

EAEko biztanleek aniztasunaren eta diskriminazioaren inguruan duten pertzepzioa aztertzeko, eta ikerketaren helburuekin bat, metodologia kuantitatiboa aukeratu dugu. EPADE 2020, María Ángeles Cea D'Ancona eta Miguel S. Vallés, Lorenzo Cachón autoreek, Ikerketa Soziologikoen Zentroak (IMIO-CIS 2013 eta 2016) eta 2019ko EBko diskriminazioari buruzko Eurobarometroak egindako azterlanak oinarri hartuta, *adhoc* galdetegi bat diseinatu dugu, eta aukera eman digu EAEko biztanleek aniztasunaren eta diskriminazioaren inguruan dituzten pertzepzioak eta iritziak kuantifikatzeko. Horrela, bi bloke handi ditu Neurtu inkestako galdetegiak. Lehenengo blokean, EAEn dagoen aniztasunarekin lotutako gai orokorrak bildu dira, hala nola, zein gizarte-eredutan bizi nahi den edo gizarte-harremanak. Gizartean gertatzen den diskriminazioaren pertzepzioari buruzko galderak ere baditu, bai eta gizartean gertatzen den diskriminazioaren pertzepzioari, herritarrek dituzten eskubideen ezagutzari eta diskriminazioaren aurrean erakundeek duten jardunari buruzko galderak ere. Bigarren blokeak, berriz, urtero aldatzen diren gai espezifikoagoetan sakontzen du. Hala, 2021eko edizio honetan, sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI kolektiboarekiko pertzepzioen eta jarreren bloke espezifikoa sartu da. Bloke horrek hainbat alderditan jartzen du arreta, eta bost eremu espezifiko aztertzen ditu: lana eta botere publikoa, hezkuntza, gizarte-harremanak, araudi- eta lege-eremua eta osasuna. Gainera, nahasteak saihesteko eta erabilitako fenomenoak eta kontzeptuak behar bezala ulertzen direla ziurtatzeko, galdetegiarekin batera terminoen glosarioa dago.

Horretarako, 1.200 inkestako lagina diseinatu da (% 95eko konfiantza-mailarako eta P=Q; errorea ± 2,8koa da). Etxez etxeko inkesta pertsonala da, EAEn bizi diren 18 urtetik gorako pertsonei egina, eta aukeratutako laginketa izan da laginketa geruzatua (afijazio sinplea) kuotekin, habitat-tamainaren, jatorriaren, adinaren eta sexuaren arabera.

Etxeen aukeraketa ausazko ibilbideen sistemaren bidez egin zen, 37 udalerritan banatutako 34 laginketa-puntutan (6 Araban, 16 Gipuzkoan eta 15 Bizkaian). Azkenik, haztapen bat aplikatu da lurralde historikoaren arabera. Landa-lana 2021eko ekainaren 16tik uztailaren 15era bitartean egin zen.

Azkenik, aipatzekoa da, ikerketa hau generoaren ikuspegitik garatu eta aztertu dela. Aldagai guztiak (estatistikaren aldetik esanguratsuak izan ala ez izan) sexuaren/generoaren[6] arabera aurkezteaz gain, inkestak egiteko irizpide “klasiko” batzuk aldatzea ekarri du begirada horrek. Erabilitako analisi-teknikei dagokienez, aldagai biko esangura duten datuen analisi estatistikoa aplikatu da ($Chi^2$). Bestalde, sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasunaren indizea eraikitzeko, aldagai anitzeko datuak aztertzeko teknikak erabili dira (faktore-analisia, faktore baten ANOVA, segmentazio-zuhaitza, AID edo Elkarreraginen Detektatzaile Automatikoa).

[6] Txostenean, “sexua/generoa” erabiliko dugu inkestari “emakume” gisa eta “gizon” gisa erantzun diotenen arteko erantzun-aldeak eskaintzen dituen aldagaia aipatzeko. Horrela, sexu-genero sistema jaiotzean esleitutako sexu-aldagaitik haratago doan baldintzatzaile konplexu gisa identifikatzen duen ikuspegi kritikoa hartzen dugu.

# 1 Askotariko gizarte baterantz irekitzea

## EAEko biztanleek aniztasunaren inguruan dituzten jarrerak eta sinesteak

Epigrafe honek gako batzuk eskaintzen ditu EAEko biztanleek bizitzeko, elkarrekin bizitzeko eta, azken batean, askotariko gizarte bateko kide izateko dituzten jarrerei buruz.

Bakoitzak zein gizarte-eredutan bizi nahi izango lukeen kontuan hartuta, hurbileko pertsonen eta adiskideen ezaugarriei erreparatu diegu ondoren. Gero, pertsona desberdin bat norberaren familia-testuinguruan sartzeari lotutako erosotasun-mailari buruzko datuak baloratu ditugu, eta, azkenik, aniztasunaren (erlijioa, etnia, kultura, sexua, hezkuntza-gaitasuna...) aldeko jarraibideen gorakadari buruzko adostasun-maila aztertu dugu, bai hezkuntzaren arloan bai lanaren arloan.

### Jarrera askotariko gizarte baten aurrean

1. grafikoan ikus daitekeenez, EAEko biztanleen parte handi batek (% 73,9) adierazi du nahiago duela askotariko gizarte batean bizi (jatorri, kultura, sinesmen, sexu-orientazio, sexu-identitate eta genero-identitate desberdineko pertsonekin), alderdi horietan guztietan homogeneotasuna nagusi den gizarte batean bizi baino. Aitzitik, hamar lagunetik bik baino gehixeagok nahiago lukete gizarte homogeneoago batean bizi. Jarrera erakutsi ez dutenak (ez dakitela edo ez dutela erantzungo adierazi dute) guztizkoaren % 6 baino gutxiago dira.

**1. grafikoa. Bizitzeko aukeratutako gizarte-mota (%)**




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*1. G. Aukeratu ahal izango bazenu, zer motatako gizartean bizi nahiko zenuke?*

Estatistikoki ez da alde nabarmenik nabari emakumeen eta gizonen jarrerari dagokionez (1. taula), baina alde nabarmenak daude adinarekin, ikasketa-mailarekin, ideologiarekin eta estatus sozioekonomikoarekin loturik (2. taula). Ikusten dugu aniztasunaren aldeko jarrera handiagoa dela gazteenen eta ikasketa-maila handiagoa dutenen artean, eta, aldi berean, zaharrenek eta lehen mailako ikasketak dituztenek (edo ikasketarik gabekoek) adierazi dute nahiago dutela gizarte homogeneoago batean bizi. Ideologiari dagokionez, ezkerrarekin identifikatzen diren pertsonak dira aniztasunaren aldekoenak; estatus sozioekonomikoari erreparatzen badiogu, berriz, estatus txikia edo ertain-txikia duten pertsonek ez dute aniztasunaren aldeko jarrera erakutsi, homogeneotasunaren alde agertu baitira.

**1. taula. Bizitzeko nahiko luketen gizarte-mota, sexuaren/generoaren arabera (% bertikalak)**

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| Gizarte anitz batean, jatorri, kultura, sinesmen, sexu-orientazio, genero-identitate… desberdineko pertsonekin. | 73,9 | 74,2 | 73,7 |
| Jende gehiena jatorri, kultura, sinesmen, sexu-orientazio, genero-identitate… berdinekoa den gizarte batean. | 20,7 | 20,6 | 20,8 |
| Ed | 5,3 | 5,0 | 5,5 |
| Ee | 0,1 | 0,2 | 0,0 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*1. G. Aukeratu ahal izango bazenu, zer motatako gizartean bizi nahiko zenuke?*

Errealitate hori ikusita, besteak beste, badirudi ikasketa gehien eta estatus sozioekonomiko handiena dituzten pertsonak direla aniztasunaren aldeko jarrera irekienak eta hurbilenak adierazi dituztenak. Horrekin loturik, garrantzitsua da kontuan hartzea aipatutako desiragarritasun sozialaren joera horrek izan dezakeen eragina, diskriminazioaren aurkako oinarrizko diskurtsoa barneratzearekin lotuta, adibidez, ibilbide akademikoan zehar edo berdintasunezko esparru soziokultural batzuetan.

**2. taula. Bizitzeko nahiko luketen gizarte-mota, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (% horizontalak)[7]**

| | | Gizarte anitz batean, jatorri, kultura, sinesmen, sexu-orientazio, genero-identitate… desberdineko pertsonekin | Jende gehiena jatorri, kultura, sinesmen, sexu-orientazio, genero-identitate… berdinekoa den gizarte batean |
|---|---|---|---|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 88,9 | 7,8 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 80,7 | 14,2 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 77,1 | 15,3 |
| | 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 56,1 | 40,5 |
| Ikasketak | Ikasketarik gabeak/Lehen mailakoak | 62,1 | 33,9 |
| | Bigarren hezkuntza/ Oinarrizkoak | 74,5 | 17,6 |
| | Goi-mailakoak | 88,0 | 7,7 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 80,4 | 14,6 |
| | Zentro-ezkertiarra | 76,1 | 20,1 |
| | Zentro-eskuinekoa / eskuinekoa | 72,2 | 25,3 |
| Estatusa | Baxua eta ertain-baxua | 57,8 | 36,2 |
| | Ertaina | 75,0 | 19,6 |
| | Ertain-altua eta altua | 75,0 | 15,4 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*1. G. Aukeratu ahal izango bazenu, zer motatako gizartean bizi nahiko zenuke?*

Bizitzeko nahi luketen gizarte-motari buruzko kontsulta hori egin zen Diskriminazioa eta aniztasuna EAEn 2020 azterketan ere (EPADE 2020). 2. grafikoan ikusten denez, aniztasunaren aldeko jarrera 2021ean baino zortzi puntu txikiagoa izan zen 2020an. Hala ere, kontuan hartu behar dugu 2020an kontsultaren enuntziatuak ez zituela berariaz aipatzen sexu-orientazioa eta sexu- edo genero-identitatea. Beraz, zuhurtziaz jokatu behar da edozein joera edo bilakaera planteatzeko orduan.

[7]Hemendik aurrera, Khi-karratuaren proban estatistikoki alde nabarmenak dituzten gurutzatzeak bakarrik sartuko dira.

**2. grafikoa. Bizitzeko nahiko luketen gizarte-mota, EPADE 2020 eta Neurtu 2021** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 eta EPADE 2020 oinarri hartuta.*

*Neurtu 2021: 1. G. Aukeratu ahal izango bazenu, zer motatako gizartean bizi nahiko zenuke?*
*EPADE 2021: 1. G. Aukeratu ahal izango bazenu, zer motatako gizartean bizi nahiko zenuke?*

## Bizikidetza: adiskidetasun-harremanak eta pertsona ezagunak

Orain, EAEko biztanleek dituzten hurbileko pertsonei eta lagunei erreparatzen badiegu (3. grafikoa), ikusiko dugu galdetegiak aukera gisa eskainitako norbait bereizteko moduko ezaugarri eta inguruabar pertsonal guztietatik, ohikoenak edo eskuarki aitortuenak direla desgaitasunen bat duten pertsonak (% 83,1), eta atzerritarrak (% 83); horien atzetik datoz lesbianak, gayak edo bisexualak (% 76,1), bai eta “beste erlijio” batekoak ere (% 68,6). Bestalde, askoz ere gutxiago dira ijitoren baten (% 32,5) edo trans baten (% 23,4) lagunak direla edo gertuko harremana dutela onartu dutenak; era berean, euskal gizartearen % 7,2k aitortu du gertuko harremana duela pertsona intersexual batekin.

**3. grafikoa. Adiskidetasun-harremanak edo pertsona ezagunak** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*7. G. Ba al duzu honelako lagun edo ezagunik?*

Erantzunen banaketa sexuaren/generoaren arabera alderatzen badugu, berriz ere ez dugu ia alde nabarmenik ikusten emakumeen eta gizonen artean (3. taula).

**3. taula. Adiskidetasun-harremanak edo pertsona ezagunak, sexuaren/ generoaren arabera** (%)

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| Desgaitasunen bat duena | 83,1 | 82,5 | 83,7 |
| Atzerritarra | 83,0 | 81,4 | 84,8 |
| Baliabide ekonomiko gutxikoa | 76,7 | 75,1 | 78,5 |
| Lesbiana, gay, bisexuala | 76,1 | 76,9 | 75,1 |
| Beste erlijio batekoa | 68,6 | 66,5 | 70,9 |
| Ijitoa | 32,5 | 29,6 | 35,5 |
| Transexuala, transgeneroa | 23,4 | 24,7 | 22,0 |
| Intersexuala | 7,2 | 7,4 | 7,0 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*7. G. Ba al duzu honelako lagun edo ezagunik?*

Beste aldagai soziodemografiko batzuei erreparatuta (4. taula), gazteek adierazi dute hurbileko edo adiskidetasunezko harreman handiagoa dutela atzerritarrekin, ijitoekin eta LGTBI kolektibokoekin; adin ertainekoek, berriz, adierazi dute harreman handiagoa dutela beste erlijio bateko pertsonekin, desgaitasunen bat duten pertsonekin eta baliabide ekonomiko gutxiko pertsonekin.

**4. taula. Adiskidetasun-harremanak edo pertsona ezagunak, aldagai soziodemografikoen arabera** (%)

| | | Atzerritarra | Ijitoa | Lesbiana, gay, bisexuala | Transexuala, transgeneroa | Intersexuala | Desgaitasunen bat duena | Beste erlijio batekoa | Baliabide ekonomiko gutxikoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 94,1 | 46,4 | 91,5 | 32,5 | 11,1 | 77,8 | 76,5 | 72,5 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 95,6 | 38,0 | 85,1 | 28,5 | 9,8 | 83,7 | 81,1 | 79,9 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 86,6 | 35,4 | 83,6 | 27,3 | 7,2 | 87,3 | 77,3 | 79,6 |
| | 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 61,3 | 16,6 | 50,3 | 8,8 | 2,8 | 79,4 | 41,6 | 72,3 |
| Erlijio-sinesmenak | Katolikoa | 75,7 | 25,9 | 67,3 | 19,0 | 4,1 | 81,5 | 58,9 | 74,3 |
| | Agnostikoa/ateoa | 90,5 | 40,4 | 92,5 | 29,9 | 11,8 | 87,5 | 77,4 | 77,7 |
| | Beste erlijio batekoa | 98,8 | 36,1 | 50,6 | 17,1 | 4,9 | 68,3 | 93,9 | 89,2 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 93,2 | 43,4 | 90,7 | 32,3 | 12,9 | 87,5 | 78,2 | 81,7 |
| | Zentro-ezkertiarra | 80,5 | 31,3 | 79,6 | 23,9 | 7,1 | 85,0 | 68,2 | 77,1 |
| | Zentro-eskuinekoa / eskuinekoa | 80,1 | 28,8 | 63,0 | 13,9 | 4,6 | 81,2 | 58,7 | 71,4 |
| Estatusa | Baxua eta ertain-baxua | 78,7 | 25,6 | 64,0 | 20,7 | 7,3 | 80,1 | 66,8 | 79,4 |
| | Ertaina | 79,9 | 41,1 | 79,8 | 24,3 | 6,5 | 87,6 | 65,9 | 72,0 |
| | Ertain-altua eta altua | 90,0 | 37,2 | 87,7 | 30,7 | 6,5 | 83,5 | 77,7 | 75,8 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*7. G. Ba al duzu honelako lagun edo ezagunik?*

Beste erlijio bat dutela diotenek, aldiz, adierazi dute atzerritar jatorriko pertsonekin dutela harremana, eta agnostikoak edo ateoak direla diotenek, berriz, adierazi dute harreman handiagoa dutela proposatutako gainerako kolektibo guztietako pertsonekin.

Estatusari dagokionez, nabari da estatus sozioekonomiko handiena duten pertsonak direla atzerritar jatorriko, beste erlijio bateko eta LGTBI kolektiboko pertsonekin harreman handiena dutenak.

Emaitza horiek EPADE 2020k eskaintzen dituenekin alderatuz gero (hark ere ezaugarri eta inguruabar pertsonal berengatik egiten du kontsulta, "transexuala, transgeneroa" eta "intersexuala" izan ezik), aipatzekoa da 2021etik 2021era pertsona gutxixeagok adierazi dutela adiskidetasuna edo gertuko harremana dutela baliabide ekonomiko gutxiko pertsonekin (% 85,4 vs. % 76,7) eta ijitoekin (% 38,3 vs. % 32,5). Aldiz, ehuneko 11,2 puntu gora egin du beren inguru hurbilean "beste erlijioren bateko" norbait dutela adierazi duten pertsonen ehunekoak (4. grafikoa).

**4. grafikoa. Adiskidetasun-harremanak edo pertsona ezagunak sexuaren/ generoaren arabera EPADE 2020 eta Neurtu 2021** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 eta EPADE 2020 oinarri hartuta.*

*Neurtu 2021: 7.G. Ba al duzu honelako lagun edo ezagunik?; EPADE 2020: 18. G. Ba al duzu honelako lagun edo ezagunik?*

Bestalde, ñabardura interesgarriak eskaintzen ditu norberaren familia-testuinguruan beste pertsona bat sartzeko aukerari lotutako erosotasun-mailari erreparatzeak, zehazki, bere alabak edo semeak (egiaz edo hipotetikoki) harreman intimoa duen pertsona izanda.

**5. grafikoa. Erosotasuna seme-alaba batek ondorengo taldeetako pertsona batekin harreman sentimentala izango balu (batez besteko puntuazioa, 0 Oso deseroso, 10 Erabat eroso)**




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*8. G. Seme-alabarik izan ala ez, esan mesedez, 1etik 10erako eskalan, zenbateraino egongo zinatekeen eroso zure seme-alabak talde hauetako pertsonaren batekin harreman intimoa izango balu.*

1etik 10era bitarteko eskala erabiliz —non “1” da Oso deseroso ez eta “10” da Erabat eroso—, ikusten dugu euskal biztanleria ez dela modu irekian deseroso ageri proposatutako ezaugarri edo inguruabar pertsonalekiko (5. grafikoa). Arreta handiagoz aztertuz gero, ikusten da, jatorriari dagokionez, euskal herritar gehienek adierazi dutela erosoago sentituko liratekeela ezaugarri kaukasiarrak dituen pertsona batekin (8 puntu), asiar ezaugarriak (7,2 puntu) edo afrikar ondorengoen ezaugarriak (7,18 puntu) dituen pertsona batekin baino, bere semearen edo alabaren bikotekide gisa[8]. Adinaren aldagaiari dagokionez, nabari da pixka bat erosoago sentituko liratekeela pertsona hori gaztea bada (7,9 puntu), adinekoa bada baino (7,49 puntu).

[8]Ezaugarri kaukasiarrak, asiarrak eta afrikar ondorengoak dituzten pertsonei buruz ari bagara ere, garrantzitsua da argitzea pertsona arrazializatu bat modu estereotipatuan edo negatiboan baloratzeak ez duela zerikusia bere fenotipoarekin soilik, baizik eta arrazakeriarekin; izan ere, fenotipoaren aurrean erreakzionatzen duen ideologia da, baina ez dago haren mende, gizartean eta kulturan eraikitako eta osagai ekonomiko handiko pertzepzio baten mende baizik.

Erlijio-sinesmenei dagokienez, pertsona kristaua edo ateoa izateak ez dirudi balantza askorik okertzen duenik (7,81 puntu vs. 7,71 puntu), baina datuek erakusten dute erosotasun txikiagoa sortzen duela pertsona “beste erlijio batekoa” izateak; zehazki, budista (6,87 puntu), judua (6,87 puntu) edo, bereziki, musulmana (6,27 puntu) izateak.

Sexu- eta genero-aniztasunaren barruan, ikus dezakegu pixka bat erosoago sentitzen direla pertsona hori arautik kanpo bere sexu-orientazioagatik dagoenean —orientazio lesbiko, gay edo bisexuala izanik (7,36 puntu)—, identitate kontuengatik bereizten denean eta zisgenero araua hausten duenean baino —pertsona intersexuala (7,02 puntu) edo trans (6,95 puntu)—.

Bestalde, pertsona batek desgaitasunen bat izateari (7,56 puntu) zazpi puntu baino zertxobait gehiago eman zaizkio —erosotasun “oso ona”—, ijito herrikoa izatea nabarmentzen da proposamen guztien artean erosotasun txikiena sor dezakeen ezaugarri pertsonala izateagatik (5,95 puntu), musulmana izatearen azpitik, erosotasun txikiena sortzen duen bigarren ezaugarria baita hori.

Aipatu behar da, gainera, bi ezaugarri horiei buruzko balorazioak (ijito herrikoa edo musulmana izatea) direla emakume eta gizonen artean alde nabarmenak dituzten bakarrak, emakumeek erosotasun-maila txikixeagoa baitute bi kasuetan (6. grafikoa). Horri dagokionez, bi kolektibo horiek (ijito-herria eta islama praktikatzen dutenak) matxistagoak direla dioen estereotipoa kontuan hartu behar da.

**6. grafikoa. Jarrera, seme-alaba batek ondorengo taldeetako pertsona batekin harreman sentimentala izango balu, sexuaren/generoaren arabera (batez besteko puntuazioa, 0tik 10era)**




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*8. G. Seme-alabarik izan ala ez, esan mesedez, 1etik 10erako eskalan, zenbateraino egongo zinatekeen eroso zure seme-alabak talde hauetako pertsonaren batekin harreman intimoa izango balu.*

Aldagai soziodemografikoen araberako aldeei erreparatzen badiegu (5. taula), ikusiko dugu, proposatutako aukera guztiekiko jarrera positiboagoa erakusten dutela, oro har, unibertsitateko ikasketak dituztenek, ezkertiarrak direnek eta estatus sozioekonomiko ertain eta altua dutenek, agnostikoek edo ateoek. Hala ere, salbuespen batzuk ere badaude, eta nabarmendu behar da “beste erlijio bateko” gisa identifikatzen direnek jarrera positiboagoa dutela pertsona hori musulmana izateari dagokionez.

**5. taula. Jarrera, seme-alaba batek pertsona “desberdin” batekin harreman sentimentala izango balu, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (batez besteko puntuazioa, 0tik 10era)**

| | | Ijitoa | Beltza | Asiarra | Kaukasiarra | Judua | Musulmana | Budista | Kristaua | Ateoa | Gay, lesbiana edo bisexuala | Transgeneroa edo transexuala | Intersexuala | Desgaitasuna duen pertsona | Gaztea | Adinekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 7,70 | 8,41 | 8,37 | 8,56 | 8,11 | 8,04 | 8,08 | 8,17 | 8,48 | 8,37 | 8,27 | 8,34 | 8,35 | 8,32 | 7,96 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 6,29 | 7,83 | 7,66 | 8,22 | 7,26 | 6,76 | 7,27 | 7,74 | 7,95 | 7,72 | 7,35 | 7,35 | 7,93 | 8,15 | 7,82 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 5,78 | 7,19 | 7,32 | 7,79 | 6,92 | 6,11 | 6,96 | 7,72 | 7,72 | 7,53 | 6,91 | 7,01 | 7,39 | 7,87 | 7,37 |
| | 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 4,98 | 5,95 | 5,99 | 7,80 | 5,73 | 5,13 | 5,73 | 7,80 | 7,08 | 6,25 | 5,89 | 5,93 | 6,96 | 7,48 | 7,07 |
| Erlijio-sinesmenak | Katolikoa | 5,41 | 6,64 | 6,68 | 7,86 | 6,44 | 5,66 | 6,38 | 7,82 | 7,43 | 6,98 | 6,45 | 6,54 | 7,24 | 7,73 | 7,35 |
| | Agnostikoa/ateoa | 6,62 | 7,91 | 7,95 | 8,25 | 7,56 | 6,97 | 7,62 | 7,91 | 8,31 | 8,13 | 7,86 | 7,90 | 8,02 | 8,17 | 7,74 |
| | Beste erlijio batekoa | 6,44 | 7,16 | 7,04 | 7,65 | 6,25 | 7,01 | 6,33 | 7,04 | 6,37 | 5,88 | 5,61 | 5,67 | 7,33 | 7,68 | 7,16 |
| Ikasketak | Ikasketarik gabe/Lehen mailakoak | 5,48 | 6,41 | 6,41 | 7,77 | 5,92 | 5,68 | 6,05 | 7,66 | 7,14 | 6,59 | 6,20 | 6,19 | 7,25 | 7,66 | 7,26 |
| | Bigarren mailakoak | 6,19 | 7,46 | 7,51 | 8,14 | 7,21 | 6,49 | 7,15 | 7,85 | 7,85 | 7,56 | 7,08 | 7,14 | 7,67 | 7,97 | 7,41 |
| | Unibertsitate-ikasketak | 6,21 | 7,79 | 7,78 | 8,13 | 7,57 | 6,69 | 7,50 | 7,92 | 8,22 | 8,03 | 7,64 | 7,76 | 7,77 | 8,09 | 7,80 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 6,84 | 7,88 | 7,85 | 8,18 | 7,35 | 6,95 | 7,55 | 7,78 | 8,24 | 7,90 | 7,60 | 7,69 | 7,89 | 8,11 | 7,89 |
| | Zentro-ezkertiarra | 5,71 | 7,23 | 7,31 | 8,15 | 6,95 | 6,16 | 6,94 | 7,98 | 8,00 | 7,72 | 7,26 | 7,25 | 7,67 | 8,05 | 7,58 |
| | Zentro-eskuinekoa / Eskuinekoa | 5,66 | 6,71 | 6,71 | 7,90 | 6,57 | 5,94 | 6,42 | 7,84 | 7,30 | 6,83 | 6,38 | 6,52 | 7,26 | 7,72 | 7,25 |
| Estatusa | Baxua eta ertain-baxua | 5,25 | 6,51 | 6,44 | 7,99 | 5,79 | 5,59 | 5,92 | 7,80 | 7,03 | 6,26 | 5,73 | 5,86 | 7,14 | 7,81 | 7,24 |
| | Ertaina | 5,76 | 7,37 | 7,33 | 8,17 | 7,02 | 6,16 | 7,03 | 7,89 | 7,87 | 7,62 | 7,23 | 7,36 | 7,72 | 8,18 | 7,78 |
| | Ertain-altua eta altua | 5,74 | 7,70 | 7,78 | 8,28 | 7,19 | 6,03 | 7,26 | 7,98 | 8,29 | 8,02 | 7,34 | 7,48 | 7,79 | 8,13 | 7,70 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*8. G. Seme-alabarik izan ala ez, esan mesedez, 1etik 10erako eskalan, zenbateraino egongo zinatekeen eroso zure seme-alabak talde hauetako pertsonaren batekin harreman intimoa izango balu.*

## Aniztasunerantz irekitzea hezkuntza-eremuan

Biztanleak zenbateraino dauden aniztasunarekiko irekita aztertzeko beste adierazle garrantzitsu bat da, hezkuntzaren alorrean aniztasunari buruzko edukiak sartzeari begira, zenbateko adostasun-maila adierazi duten ezagutzea.

Hala, zehazki galdetu dugu herritarrek zenbateko adostasun-maila duten ikastetxeetan aniztasunari buruzko informazioa sartzeari buruz hainbat alderditan (erlijioa, etnizitatea/kultura, sexu- eta genero-gaitasuna eta -aniztasuna).

7. grafikoan ikusten denez, Euskadiko biztanleek adostasun handia adierazi dute aniztasun funtzionalari buruzko (% 95) eta jatorri etnikoari eta, oro har, gutxiengo etnikoei (% 91,4) buruzko informazioak sartzearekin. Hala ere, azpimarratu behar da, adostasuna handia izan arren, nabarmen jaisten dela ijito herriaren historiari eta kulturari buruzko informazioa sartzeaz zuzenean galdetu zaienean (% 75,1), eta agerian geratu da errezeloak daudela kolektibo horrekiko bereziki.

**7. grafikoa. Zenbaterainoko adostasun-maila dagoen ikastetxeetan hezkuntza-ikasgaietan aniztasuna sartzearekin (%)**




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*9. G. Esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazten denarekin. Hezkuntza-ikasgaietan, ikastetxeetan aniztasunari buruzko informazioa eman behar da eta honako hauek landu behar dira…*

Hala ere, kontuan hartu behar da desadostasun esplizituaren maila handixeagoa dela erlijio-aniztasuna sartzeari dagokionez ijito herriaren historia eta kultura sartzeari dagokionez baino (% 14,9 eta % 13,3, hurrenez hurren); azken hori da, hain zuzen ere, beren jarrera ez azaltzea erabaki duten pertsonen ehuneko handiena duena (% 10).

Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko informazioa sartzeko adostasuna, bestalde, % 85etik gorakoa da, erlijio-aniztasunari buruzko informazioa sartzeko adostasuna baino handiagoa (% 79,7). Bestalde, EAEko biztanleen % 5 baino gehixeago ez dago ados sexu- eta genero-aniztasuna sartzearekin, eta nabarmentzekoa da % 2,6 inguruk "ez daki" edo ez du erantzuten aukera hautatu duela intersexualitatearen aurrean.

Ezaugarri soziodemografikoen arabera dauden aldeek agerian utzi dute, hezkuntza-ikasgaietan aniztasunak sartzeari begira, oro har, adostasun-maila handiagoak dituztela ezkertiarrak eta zentro-ezkertiarrak direnek eta estatus sozioekonomiko handia eta ertain handia dutenek, agnostikoek edo ateoek. Salbuespen gisa, "erlijioari eta erlijio-sinesmenei" buruzko edukiak sartzeko joera handiagoa agertu dute "beste erlijio bat" dutela eta estatus sozioekonomiko baxua eta ertain-baxua dutela adierazi duten pertsonek (6. taula).

**6. taula. Ikastetxeetan hezkuntza-ikasgaietan aniztasuna sartzearekin oso ados eta ados dauden pertsonen ehunekoa, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (%)[9]**

| | | Homosexualitatea (gay, lesbiana edo bisexuala izatea) | Transexualitatea (transexuala edo transgeneroa izatea) | Intersexualitatea | Erlijioa edo sinesmen erlijiosoak | Jatorri etnikoa edo gutxiengo etnikoak | Desgaitasun/ aniztasun funtzionala | Ijito herriaren historia eta kultura |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 91,5 | 89,6 | 88,2 | | | | |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 89,8 | 89,2 | 88,8 | | | | |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 92,1 | 90,7 | 89,6 | | | | |
| | 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 80,6 | 79,3 | 78,1 | | | | |
| Erlijio-sinesmenak | Katolikoa | 87,2 | 85,4 | 84,4 | 84,2 | 89,4 | | 70,9 |
| | Agnostikoa/ateoa | 95,3 | 94,8 | 93,8 | 74,0 | 94,1 | | 81,6 |
| | Beste erlijio batekoa | 61,0 | 59,0 | 57,3 | 85,7 | 89,6 | | 71,4 |
| Ikasketak | Ikasketarik gabeak/ Lehen mailakoak | 81,3 | 79,2 | 77,7 | | 86,4 | | 68,9 |
| | Bigarren mailakoak | 90,3 | 89,5 | 88,4 | | 92,1 | | 76,6 |
| | Unibertsitate-ikasketak | 95,4 | 94,5 | 94,0 | | 95,8 | | 81,4 |
| Jatorria | Espainia | 90,3 | 89,1 | 88,1 | | | | |
| | Atzerritarra | 73,7 | 73,0 | 71 ,5 | | | | |
| Ideologia | Ezkertiarra | 94,3 | 93,2 | 92,8 | | 93,8 | 96,9 | 82,1 |
| | Zentro-ezkertiarra | 92,6 | 92,4 | 91,3 | | 94,0 | 97,4 | 77,2 |
| | Zentro-eskuinekoa / eskuinekoa | 80,0 | 77,6 | 75,8 | | 88,1 | 92,6 | 69,5 |
| Estatusa | Baxua eta ertain-baxua | 80,4 | 77,7 | 77,3 | 79,1 | | | 68,1 |
| | Ertaina | 86,8 | 85,7 | 83,3 | 72,0 | | | 62,1 |
| | Ertain-altua eta altua | 95,8 | 95,0 | 95,0 | 70,4 | | | 73,5 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*9. G. Esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazten denarekin. Hezkuntza-ikasgaietan, ikastetxeetan aniztasunari buruzko informazioa eman behar da eta honako hauek landu behar dira…*

[9]Taula honetan, bai eta formatu bereko hurrengoetan ere, estatistikoki esanguratsuak diren aldeak dituzten ehunekoak baino ez dira sartzen.

Era berean, agerian geratu da emakumeek gizonek baino adostasun nabarmen handiagoa adierazi dutela transexualitateari eta sexualitateari buruzko informazioak sartzeari dagokionez (7. taula).

**7. taula. Aniztasunari buruzko hezkuntza-ikasgaiak sartzearekiko jarrerak, sexuaren/generoaren arabera, adostasunaren %**

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| Desgaitasun/aniztasun funtzionala | 95,0 | 95,5 | 94,3 |
| Jatorri etnikoa edo gutxiengo etnikoak | 91,4 | 92,1 | 90,7 |
| Homosexualitatea (gay, lesbiana edo bisexuala izatea) | 88,4 | 90,3 | 86,4 |
| Transexualitatea (transexuala edo transgeneroa izatea) | 87,2 | 89,0 | 85,3 |
| Intersexualitatea | 86,1 | 88,3 | 83,9 |
| Erlijioa edo sinesmen erlijiosoak | 79,7 | 81,1 | 78,0 |
| Ijito herriaren historia eta kultura | 75,1 | 74,9 | 75,3 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*9. G. Esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazten denarekin. Hezkuntza-ikasgaietan, ikastetxeetan aniztasunari buruzko informazioa eman behar da eta honako hauek landu behar dira…*

## Aniztasunerantz irekitzea lan-eremuan

Azkenik, lan-eremuan arreta jarrita, Euskadiko biztanleria okupatuari galdetu zaie beren lanpostuetan aniztasunarekiko errespetua nahikoa sustatzen den ala ez (8. grafikoa).

Oro har, nabari da aniztasunaren sustapena, bere forma desberdinetan, nahiko ohikoa dela lan-eremuan, eta erantzun-batuketaren datu txikiena da “Bai” eta “Bai, neurri bateraino”, % 53,2.

Lanpostuan honako kolektibo hauekiko sustatzen da gehien errespetua: atzerritarrak (% 65,8), emakumeak (% 65,2), gazteak (% 63,9), lesbianak, gayak edo bisexualak (% 61,4) eta desgaitasunen bat dutenak (% 61,3).

Muturrei erreparatzen badiegu, EAEko biztanleria okupatuaren % 40k baino gehixeagok uste du bere lan-testuinguruan nahikoa sustatzen dela emakumeenganako errespetua. Era berean, sustapen-ezaren tasa handiena duten kolektiboak honako hauek dira: ijitoak (% 35ek adierazi du ez dela sustatzen), gaixotasun mentalen bat dutenak (% 32,6), transexualak edo transgeneroak (% 31,4) eta musulmanak, juduak edo beste erlijio batekoak (% 30,5). Azken kategoria horretan dago, gainera, aniztasun hori sustatzea beharrezkotzat jotzen ez duten pertsonen ehuneko handiena (% 13,7).

Era berean, ez da alde handirik nabari emakumeen eta gizonen artean (8. taula).

**8. grafikoa. Kolektibo desberdinei dagokienez lanpostuan aniztasuna sustatzeari buruz dagoen pertzepzioa (%)**




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*10. G. Oro har, zure ustez nahikoa egiten al da zure lanpostuan aniztasunarekiko errespetua sustatzeko, kolektibo hauetako bakoitzari dagokionez?*

Aldagai soziodemografikoen arabera dauden desberdintasunek erakusten digutenez, ideologia kontserbadorea (eskuina) dutela adierazi duten pertsonek neurri handiagoan uste dute ez dagoela emakumeenganako errespetua sustatzeko beharrik, ez eta atzerritarrenganako eta auzo degradatu, pobre edo estigmatizatu batean bizi diren pertsonenganako errespetua sustatzeko beharrik ere.

Bestalde, 9. taulan ageri den bezala, lan-testuinguruan ez dela errespetua nahikoa sustatzen pentsatzeari dagokionez, proposatutako ezaugarri eta aniztasun ia guztiei emandako erantzunak nabarmen aldatzen dira ikasketa-mailaren arabera, eta ikasketa handienak dituztenak dira beren lanpostuan aniztasuna gehiago sustatzen dela diotenak.

**8. taula. Beren lanpostuan aniztasunarekiko errespetua sustatzeko ez dela nahikoa egiten uste duten pertsonen ehunekoa, kolektibo hauei dagokienez, sexuaren/generoaren arabera (%)**

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| Ijitoa izatea | 34,9 | 34,3 | 35,4 |
| Gaixotasun mental bat izatea | 32,5 | 32,6 | 32,5 |
| Transexuala edo transgeneroa izatea | 31,4 | 30,0 | 32,7 |
| Musulmana, judua edo beste erlijio batekoa izatea | 30,6 | 28,3 | 32,7 |
| Prestakuntza txikia izatea | 29,9 | 30,7 | 29,1 |
| Baliabide ekonomiko gutxi izatea | 29,3 | 29,3 | 29,3 |
| Desgaitasun intelektuala izatea | 29,1 | 28,7 | 29,5 |
| Auzo degradatu/pobre/estigmatizatu batean bizitzea | 28,9 | 27,7 | 30,0 |
| Adinekoa izatea | 28,5 | 29,7 | 27,3 |
| Gehiegizko pisua edo obesitatea izatea | 28,4 | 28,8 | 28,1 |
| Intersexuala izatea | 27,6 | 27,0 | 28,2 |
| Desgaitasun fisiko eta/edo sentsoriala izatea | 27,2 | 27,8 | 26,7 |
| Lesbiana, gay edo bisexuala izatea | 25,4 | 25,0 | 25,7 |
| Gaztea izatea | 24,9 | 26,0 | 23,8 |
| Emakumea izatea | 24,7 | 24,8 | 24,7 |
| Atzerritarra izatea | 23,9 | 23,4 | 24,3 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*10. G. Oro har, zure ustez nahikoa egiten al da zure lanpostuan aniztasunarekiko errespetua sustatzeko, kolektibo hauetako bakoitzari dagokionez?*

Ideologiak ere desberdintasun nabarmenak markatzen ditu lanpostuan emakumeenganako, atzerritarrenganako, auzo degradatu, estigmatizatu edo pobre batean bizi direnekiko eta desgaitasun intelektual edo gaixotasun mentalen bat dutenekiko errespetua sustatzeari dagokionez, eta ezkertiar edo zentro-ezkertiar gisa identifikatzen diren pertsonak dira lanpostuan ez direla aniztasun horiek behar adina sustatzen adierazi dutenak.

Bestalde, estatus sozioekonomikoak desberdintasun nabarmenak erakusten ditu ijitoa izatea, musulmana, judua edo "beste" erlijio batekoa izatea eta LGTBI kolektibokoa izatea bezalako ezaugarriekiko errespetua sustatzeari dagokionez. Kasu honetan, aniztasunak gutxiago sustatzen dira estatus baxuko edo ertain-baxuko pertsonen lanpostuetan.

Adina da, erlijio-aniztasuna, sexu- eta genero-aniztasuna (LGTBI kolektiboko kide izatea), auzo degradatu, estigmatizatu edo pobre batean bizitzea eta gehiegizko pisua/obesitatea izatea sustatzen diren galderari emandako erantzunetan desberdintasun nabarmenak ageri dituen beste aldagai bat.

Azkenik, jatorriak bereizketa eragiten du atzerritarrekiko errespetua sustatzearen pertzepzioari dagokionez, bertako biztanleen kasuan baino ehuneko askoz ere handiagoak baititu.

**9. taula. Beren lanpostuan aniztasunarekiko errespetua sustatzeko ez dela nahikoa egiten uste duten pertsonen ehunekoa, hainbat aldagairen arabera (%)**

| | | Emakumea izatea | Atzerritarra izatea | Ijitoa izatea | Gaztea izatea | Musulmana, judua edo beste erlijio batekoa izatea | Lesbiana, gay edo bisexuala izatea | Transexuala edo transgeneroa izatea | Intersexuala izatea | Auzo degradatu/pobre/estigmatizatu batean bizitzea | Baliabide ekonomiko gutxi izatea | Prestakuntza txikia izatea | Desgaitasun fisiko eta/edo sentsoriala izatea | Desgaitasun intelektuala izatea | Gaixotasun mental bat izatea | Gehiegizko pisua edo obesitatea izatea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikasketak | Ikasketarik gabe/Lehen mailakoak | 29,9 | 31,9 | 44,4 | 31,7 | 36,8 | 33,6 | 40,6 | 36,1 | 34,7 | 34,7 | 41,0 | 32,6 | 37,2 | 38,2 | 33,6 |
| | Bigarren mailakoak | 21,0 | 20,5 | 29,6 | 22,9 | 26,8 | 24,9 | 24,9 | 25,4 | 26,3 | 27,5 | 27,0 | 26,5 | 28,2 | 29,9 | 26,7 |
| | Unibertsitate-ikasketak | 24,7 | 22,3 | 34,6 | 23,2 | 29,5 | 22,2 | 31,6 | 25,1 | 28,1 | 27,8 | 26,5 | 25,1 | 25,6 | 32,0 | 26,9 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 27,5 | 26,1 | | | | | | | 28,7 | | 37,1 | | 35,0 | 34,1 | |
| | Zentro-ezkertiarra | 24,6 | 24,6 | | | | | | | 33,0 | | 25,6 | | 25,7 | 32,0 | |
| | Zentrokoa/zentro-eskuinekoa | 25,0 | 27,4 | | | | | | | 25,2 | | 31,0 | | 27,4 | 30,5 | |
| Jatorria | Espainia | | 23,6 | | | | | | | | | | | | | |
| | Atzerritarra | | 26,6 | | | | | | | | | | | | | |
| Estatusa | Baxua eta ertain-baxua | | | 48,5 | | 38,6 | | 49,0 | 37,6 | | | | | | | |
| | Ertaina | | | 49,5 | | 42,3 | | 39,6 | 36,7 | | | | | | | |
| | Ertain-altua eta altua | | | 40,1 | | 40,5 | | 33,7 | 30,8 | | | | | | | |
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | | | | | 32,1 | | 41,7 | 27,7 | 31,3 | | | | | | 33,3 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | | | | | 35,6 | | 33,3 | 30,5 | 30,8 | | | | | | 29,8 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | | | | | 26,4 | | 27,8 | 26,1 | 27,7 | | | | | | 26,4 |
| | 65 urtekoak edo hortik gorakoak | | | | | 15,4 | | 16,7 | 16,7 | 0,0 | | | | | | 0,0 |
| Erlijio-sinesmenak | Katolikoa | | | | | | 20,0 | | | | | 27,0 | | | | |
| | Agnostikoa/ateoa | | | | | | 28,2 | | | | | 30,8 | | | | |
| | Beste erlijio batekoa | | | | | | 41,9 | | | | | 39,5 | | | | |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*10. G. Oro har, zure ustez nahikoa egiten al da zure lanpostuan aniztasunarekiko errespetua sustatzeko, kolektibo hauetako bakoitzari dagokionez?*

## EAEko biztanleek diskriminazioaren aurrean dituzten jarrerak eta pertzepzioak

Hainbat eremutan dauden aniztasunarekiko jarreretara hurbildu ondoren, EAEko biztanleek diskriminazioaren aurrean dituzten pertzepzioak aztertuko ditugu orain. Diskriminazioaren pertzepzioaz ari garenean, hainbat egoera eta testuingurutan tratu bidegabea izateari buruz euskal gizarteak dituen pertzepzioez ari gara; horrek ez du zertan bakoitzaren esperientzia pertsonalarekin lotuta egon (aurrerago aztertuko dugu esperientzia pertsonalaren eremua, Euskadiko biztanleek zuzenean –lehen pertsonan– edo

zeharka —ikusia— bizi izan dutela adierazi duten diskriminazioari buruz hitz egitean). Zehazki, Euskadiko biztanleei honako hauei buruz zer pertzepzio duten galdetu ondoren lortutako emaitzak aurkeztuko ditugu: 1) diskriminazioaren garrantzia gizarte-arazo gisa; 2) eremuen arabera diskriminazio handiagoa edo txikiagoa egotea; eta 3) diskriminazioak eta tratu-desberdintasunak gehien eragiten dien pertsonen ezaugarriak.

## Diskriminazioaren pertzepzioa arazo gisa

9. grafikoan ikusten denez, diskriminazioak gizarte-arazo gisa duen garrantziari dagokionez, ez dago argi eta garbi nagusitzen den iritzirik edo pertzepziorik. EAEko biztanleen % 49,4k uste du arazo nahiko garrantzitsua (% 36,9) edo oso garrantzitsua (% 12,5) dela; % 27,4k, berriz, uste du garrantzitsu samarra dela eta beste % 17,8k garrantzi txikikoa dela. Nabarmentzekoa da diskriminazioak gizarte-arazo gisa duen garrantzia erabat ukatzen duten pertsonen ehunekoa ez dela % 3tik gorakoa (% 2,7). Beste horrenbeste gertatzen da beren jarrera adierazi ez dutenekin (% 2,7).

**9. grafikoa. Zenbait kolektiborekiko diskriminazioa euskal gizartearen arazo garrantzitsuenetakotzat hartzea (%)**




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*3. G. Zure iritziz, kolektibo jakin batzuen diskriminazioa zenbateraino da euskal gizartearen arazo nagusietako bat?*

Diskriminazioak gizarte-arazo gisa duen garrantziarekin jarraituz, alde nabarmenak daude emakumeen eta gizonen artean; izan ere, emakumeek neurri handiagoan hartzen dute diskriminazioa gizarte-arazo oso garrantzitsu gisa (% 14,1 emakumeek eta % 10,9 gizonek) edo nahiko garrantzitsu gisa (% 39,4 emakumeek eta % 34,1 gizonek) (10. taula).

**10. taula. Zenbait kolektiborekiko diskriminazioa euskal gizartearen arazo garrantzitsuenetakotzat hartzea, sexuaren/generoaren arabera** (%)

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| Oso garrantzitsua | 12,5 | 14,1 | 10,9 |
| Nahiko garrantzitsua | 36,9 | 39,4 | 34,1 |
| Garrantzitsu samarra | 27,4 | 25,8 | 29,1 |
| Garrantzi txikikoa | 17,8 | 16,2 | 19,6 |
| Batere garrantzirik gabekoa | 2,7 | 1,8 | 3,7 |
| Ed/ Ee | 2,7 | 2,7 | 2,6 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*3. G. Zure iritziz, kolektibo jakin batzuen diskriminazioa zenbateraino da euskal gizartearen arazo nagusietako bat?*

Era berean, honako hauek dira diskriminazioa gizarte-arazo oso edo nahiko garrantzitsutzat jotzen dutenak: gazteenak (% 64,4), agnostikoak edo ateoak direnak (% 59,4) eta ezkerrarekin identifikatzen direnak (% 59,5). Nabarmentzekoa da, halaber, kolektibo jakin batzuekiko diskriminazioa gizarte-arazo garrantzitsutzat nabarmen gutxiago hartzen dutela atzerritarrek bertakoek baino (% 50,9 vs. % 37,7) (11. taula).

**11. taula. Zenbait kolektiborekiko diskriminazioa euskal gizartearen arazo garrantzitsuenetakotzat hartzea, aldagai soziodemografikoen arabera** (%)

| | | Oso/nahiko | Zerbait | Gutxi/batere ez | Ed/ Ee |
|---|---|---|---|---|---|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 64,4 | 20,0 | 11,1 | 4,4 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 54,6 | 27,6 | 16,2 | 1,7 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 47,2 | 28,2 | 21,5 | 3,0 |
| | 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 42,5 | 28,4 | 26,6 | 2,5 |
| Erlijio-sinesmenak | Katolikoa | 42,0 | 31,1 | 24,3 | 2,6 |
| | Agnostikoa/ateoa | 59,4 | 22,8 | 15,9 | 1,9 |
| | Beste erlijio batekoa | 49,4 | 25,3 | 18,1 | 7,2 |
| Jatorria | Espainia | 50,9 | 27,0 | 19,7 | 2,4 |
| | Atzerritarra | 37,7 | 30,4 | 26,8 | 5,1 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 59,5 | 23,3 | 16,5 | 0,7 |
| | Zentro-ezkertiarra | 51,9 | 30,8 | 16,3 | 1,0 |
| | Zentrokoa/zentro-eskuinekoa | 39,5 | 28,5 | 26,7 | 5,3 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*3. G. Zure iritziz, kolektibo jakin batzuen diskriminazioa zenbateraino da euskal gizartearen arazo nagusietako bat?*

## Diskriminazioa nabaritu den eremuak

Ondoren, EAEko biztanleek hainbat eremutan diskriminazioa egoteaz duten pertzepzioari buruzko datuak aurkeztuko dira. Hala, ikusten dugu EAEko biztanleek iritzi desberdinak dituztela diskriminazioak gizarte-arazo gisa duen garrantziari buruz, baina gehienek uste dute diskriminazioa badela eta agerikoa dela hainbat eremutan: zerbitzu publikoetarako sarbidea (% 52,4), lege-eremua (% 63,9), etxebizitza eskuratzeko aukera (% 66,8) eta lanpostua (% 72,4) (10. grafikoa).

**10. grafikoa. Diskriminazioa nabaritu den eremuak** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*2. G. Zure ustez Euskadin tratu berdina ematen zaie pertsona guztiei edo desberdintasunak egiten dira pertsonen arabera?*

Euskal gizartearen iritziz, diskriminazio handiena lanpostu bat eskuratzeko orduan gertatzen da; izan ere, % 72,4k uste du tratu desberdina ematen dela segun eta nor den; % 23,2k, berriz, uste du ez dagoela diskriminaziorik eremu horretan.

Etxebizitzaren eremua da diskriminazio handiena hauteman den bigarren eremua, % 66,8k baiezkoa erantzun baitu. Galdetutakoen % 27,3, aldiz, ez dago ados baieztapen horrekin.

Bestalde, EAEko biztanleen % 63,9k uste du legeak aplikatzeko orduan aldeak daudela segun eta nor den, eta % 32,8k adierazi du pertsona guztiei tratu berdina ematen zaiela.

Azkenik, zerbitzu publikoak eskuratzeari dagokionez, eremu horretan dago adostasun txikiena tratu diskriminatzailea ematen den ala ez den (% 52,4).

11. grafikoan ikusten denez, emakumeek gehiago hautematen dute tratu desberdineko dinamikak gertatzen direla kontsultatutako lau eremuei begira (lan-eremua, etxebizitza, legeen aplikazioa eta zerbitzu publikoak eskuratzea),

alde handiarekin gainera, batez ere zerbitzu publikoak eskuratzeari dagokionez (9,8 puntu).

**11. grafikoa. Nabaritutako diskriminazioa eremuka, sexua/generoaren arabera (%)**




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*2. G. Zure ustez Euskadin tratu berdina ematen zaie pertsona guztiei edo desberdintasunak egiten dira pertsonen arabera? A. …legeak aplikatzerakoan? B. …zerbitzu publikoak eskuratzeko? C. … etxebizitza bat alokatu edo erosterakoan? D. …lanpostu bat eskuratzeko?*

Beste aldagai batzuei dagokienez, berriz, ikusten da gazteak, ikasketa handienak dituztenak, agnostikok/ateoak direnak, bertakoak eta ezkertiarrak direla eremu guztietan diskriminazioa nabari dela gehien adierazi dutenak (12. taula).

**12. taula. Nabaritutako diskriminazioa eremuka, beste aldagai soziodemografiko batzuen arabera (tratu berdina ematen dela uste duten pertsonen %)**

| | | Lan-eremuan | Etxebizitzaren eremuan | Legeen eremuan | Zerbitzu publikoen eremuan |
|---|---|---|---|---|---|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 20,3 | 24,8 | 26,3 | 38,6 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 15,3 | 23,4 | 32,1 | 44,3 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 23,6 | 25,5 | 29,2 | 42,0 |
| | 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 31,6 | 34,7 | 41,6 | 49,7 |
| Ikasketak | Ikasketarik gabe/Lehen mailakoak | 27,4 | 29,0 | 35,9 | 46,4 |
| | Bigarren mailakoak | 26,0 | 28,7 | 32,0 | 45,7 |
| | Unibertsitate-ikasketak | 15,0 | 23,6 | 29,5 | 40,1 |
| Erlijio-sinesmenak | Katolikoa | 27,3 | 31,3 | 37,5 | 46,0 |
| | Agnostikoa/ateoa | 16,1 | 19,8 | 23,7 | 39,6 |
| | Beste erlijio batekoa | 31,7 | 38,6 | 50,6 | 56,6 |
| Jatorria | Espainia | 21,6 | 25,8 | 29,9 | 42,1 |
| | Atzerritarra | 35,5 | 39,1 | 55,1 | 60,9 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 19,4 | 19,7 | 21,9 | 32,7 |
| | Zentro-ezkertiarra | 18,6 | 27,2 | 31,8 | 46,1 |
| | Zentrokoa/zentro-eskuinekoa | 30,5 | 34,5 | 41,3 | 49,5 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*2. G. Zure ustez Euskadin tratu berdina ematen zaie pertsona guztiei edo desberdintasunak egiten dira pertsonen arabera? a. …legeak aplikatzerakoan? B. …zerbitzu publikoak eskuratzeko? C. … etxebizitza bat alokatu edo erosterakoan? D. …lanpostu bat eskuratzeko?*

Datu horiek 2020an lortutakoekin (EPADE 2020) alderatzen baditugu, ikusiko dugu 2020tik 2021era diskriminazioaren pertzepzioa jaitsi egin dela lanpostu bat eskuratzeari dagokionez (% 78,1 eta % 72,4, hurrenez hurren) eta etxebizitza bat eskuratzeari dagokionez (% 82,2 eta % 66,8, hurrenez hurren); aldiz, diskriminazioaren pertzepzioa nahiko egonkor mantendu da legearen aplikazioaren inguruan (% 61 eta % 63,9, hurrenez hurren) eta diskriminazioaren pertzepzioak nabarmen gora egin du zerbitzu publikoak eskuratzeari dagokionez (% 30,5 eta % 52,4, hurrenez hurren) (12. grafikoa).

**12. grafikoa. Diskriminazioa nabaritu den eremuak, EPADE 2020 eta Neurtu 2021** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 eta EPADE 2020 oinarri hartuta..*

*Neurtu 2021: 2. G. Zure ustez Euskadin tratu berdina ematen zaie pertsona guztiei edo desberdintasunak egiten dira pertsonen arabera?; EPADE 2020: 2. G. Legeak aplikatzeko orduan, zure ustez Euskadin tratu berdina ematen zaie pertsona guztiei edo desberdintasunak egiten dira pertsonen arabera?, 5. G. Zure ustez Euskadin pertsona guztiek aukera berdinak dituzte zerbitzu publikoak jasotzeko? 7. G. Zure ustez Euskadin pertsona guztiek aukera berdinak dituzte etxebizitza bat alokatzeko orduan? 9.G. Uste duzu Euskadin, prestakuntza- eta esperientzia-maila bera izanik, pertsona guztiek dituztela aukera berdinak lanpostu baterako hautatuak izateko orduan?*

## Diskriminazioak eta tratu-desberdintasunak gehien eragiten dien pertsonen ezaugarriak

Epigrafe hau amaitzeko, besteak bezala tratatu ez eta diskriminazioa jasateko pertsona bati kalte egin diezaioketen ezaugarrien inguruan Euskadiko biztanleek dituzten pertzepzioei buruzko datuak emango ditugu.

13. grafikoan ikus daitekeenez, Euskadiko biztanleen iritziz, ijitoen kasuan ikusten da gehien diskriminazioa (% 65,8; horietatik % 18,1ren iritziz oso zabalduta dago, eta % 47,7ren iritziz nahiko zabalduta). Jatorri etnikoa dator ondoren, % 50,6k onartzen du diskriminazio-arrazoi izan daitekeela (% 44,4k uste du nahiko zabalduta dagoela, eta % 6,2k oso zabalduta dagoela), transexuala edo transgeneroa izatea; hori da “ijitoa izatearen” ondoren “oso zabalduta” aipamen gehien dituen ezaugarria, % 47,4k diskriminazio-arrazoi izan daitekeela uste baitu; eta azalaren kolorea (% 46,3).

% 30 inguru da sexua/generoa, desio sexual ez-heterosexuala eta desgaitasunen bat izatea diskriminazio-arrazoitzat jotzen duten pertsonen ehunekoa. Azkenik, % 20 inguruk uste du diskriminazio-arrazoi izan daitezkeela erlijio-sinesmen batzuk izatea edo adin handia izatea.

Azkenik, deigarria da galdera horri erantzuten ez dakiten pertsonen ehuneko handia (% 22,8) diskriminazioaren balizko arrazoia intersexuala izatea denean. Ondoren, transgeneroa edo transexuala izateagatiko diskriminazioa dator: pertsonen % 7,7k ez dute erantzun edo ez dakite.

**13. grafikoa. Nabaritutako diskriminazioaren ezaugarriak** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*4. G. Esango zenidake, zure iritziz, arrazoi hauetan oinarritutako diskriminazioak zenbateraino dauden zabalduta Euskadin? Hauek dira aukerak: oso zabalduta, nahiko zabalduta, ez da ohikoa, ez da batere ohikoa eta ez da gertatzen.*

Sexuaren/generoaren araberako desberdintasunei dagokienez (14. grafikoa), emakumeek gizonek baino askoz gehiago nabaritzen dute diskriminazioa egotea honako arrazoi hauengatik: jatorri etnikoa (% 53,5 eta % 47,5, hurrenez hurren), larruazalaren kolorea (% 50,6 eta % 41,8, hurrenez hurren), desgaitasuna izatea (% 33,3 vs. % 24,4), transexuala edo transgeneroa izatea (% 51,1 eta % 43,5, hurrenez hurren), intersexuala izatea (% 34,9 eta % 23,7, hurrenez hurren), bai eta gizona edo emakumea izateagatik ere (% 41,1 eta % 26,7, hurrenez hurren).

**14. grafikoa. Nabaritutako diskriminazioaren ezaugarriak, sexuaren/generoaren arabera (% oso zabalduta eta nahiko zabalduta)**




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*Neurtu 2021: 4. G. Esango zenidake, zure iritziz, arrazoi hauetan oinarritutako diskriminazioak zenbateraino dauden zabalduta Euskadin? Hauek dira aukerak: oso zabalduta, nahiko zabalduta, ez da ohikoa, ez da batere ohikoa eta ez da gertatzen.*

Beste ezaugarri soziodemografiko batzuei erreparatzen badiegu (13. taula), ikusiko dugu diskriminazioa gehiago nabaritzen dutela gazteek, agnostikoek edo ateoek ("sexu-orientazioa", "transexuala edo transgenero izatea" eta "intersexuala izatea" kasuetan bakarrik), bertakoek, unibertsitate-ikasketak dituztenek, ezkertiarrek ("sexu-orientazioa", "transexuala edo transgenero izatea" eta "intersexuala izatea" kasuetan), eta estatus sozioekonomiko ertaina, ertain-altua eta altua dutenek ("larruazalaren kolorea", "ijitoa izatea" eta "gizona edo emakumea izatea" kasuetan).

**13. taula. Diskriminazioaren ezaugarriak, beste ezaugarri soziodemografiko batzuen arabera (% oso zabalduta eta nahiko zabalduta)**

| | | Sexu-orientazioa (gay, lesbiana edo bisexuala izatea) | Transexuala edo transgeneroa izatea | Intersexuala izatea | Jatorri etnikoa | Larru-azalaren kolorea | Ijitoa izatea | Erlijio-sinesmenak | Desgaitasuna izatea | Gizona edo emakumea izatea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 41,8 | 65,4 | 41,8 | 60,1 | 56,2 | | 30,7 | 41,2 | 44,4 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 30,5 | 49,2 | 30,8 | 53,6 | 47,3 | | 20,3 | 29,2 | 38,3 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 30,8 | 47,9 | 30,6 | 50,9 | 46,5 | | 23,3 | 28,9 | 36,1 |
| | 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 27,2 | 36,9 | 20,9 | 43,0 | 40,2 | | 10,9 | 23,4 | 22,8 |
| Erlijio-sinesmenak | Katolikoa | 28,3 | 41,5 | 24,6 | | | | | | |
| | Agnostikoa/ateoa | 36,4 | 58,1 | 37,9 | | | | | | |
| | Beste erlijio batekoa | 22,9 | 32,5 | 22,0 | | | | | | |
| Jatorria | Espainia | 32,7 | 49,6 | 31,2 | 52,2 | 48,1 | 69,0 | | 30,5 | 36,5 |
| | Atzerritarra | 19,6 | 31,2 | 16,8 | 39,1 | 32,6 | 41,6 | | 18,1 | 15,9 |
| Ikasketak | Ikasketarik gabe/Lehen mailakoak | 29,7 | 40,4 | 21,7 | 44,4 | 42,5 | 57,5 | | 25,9 | 27,0 |
| | Bigarren mailakoak | 30,5 | 46,1 | 29,1 | 48,4 | 42,6 | 65,9 | | 28,9 | 33,7 |
| | Unibertsitate-ikasketak | 33,8 | 57,9 | 39,8 | 60,8 | 55,2 | 76,8 | | 33,3 | 43,7 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 43,5 | 60,6 | 44,4 | | | | | | |
| | Zentro-ezkertiarra | 30,1 | 50,9 | 30,0 | | | | | | |
| | Zentrokoa/zentro-eskuinekoa | 22,0 | 36,3 | 18,9 | | | | | | |
| Estatusa | Baxua eta ertain-baxua | | | | | 40,3 | 54,5 | | | 30,2 |
| | Ertaina | | | | | 50,6 | 73,4 | | | 31,5 |
| | Ertain-altua eta altua | | | | | 52,3 | 71,5 | | | 44,6 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*4. G. Esango zenidake, zure iritziz, arrazoi hauetan oinarritutako diskriminazioak zenbateraino dauden zabalduta Euskadin? Hauek dira aukerak: oso zabalduta, nahiko zabalduta, ez da ohikoa, ez da batere ohikoa eta ez da gertatzen.*

Bestalde, 2020ko datuekin alderatuta (EPADE 2020), 2020tik 2021era gora egin du genero-arrazoiengatiko eta sexu-orientazio ez-heterosexualagatiko diskriminazioaren pertzepzioak; aldiz, behera egin du desgaitasunen bat izateagatik, adinagatik —“zaharregia” edo “gazteegia”— eta erlijio-sinesmenengatik gertatzen den diskriminazioaren pertzepzioak (14. taula).

**14. taula. Nabaritutako diskriminazioaren ezaugarriak, EPADE 2020 eta Neurtu 2021** (%)

| | EPADE 2020 | Neurtu 2021 |
|---|---|---|
| Jatorri etnikoa | 48,8 | 50,6 |
| Transexuala edo transgeneroa izatea | | 47,4 |
| Intersexuala izatea | | 29,5 |
| Sexu-identitatea | 25,2 | |
| Gizona edo emakumea izatea | 27,1 | 34,2 |
| Sexu-orientazioa (gay, lesbiana edo bisexuala izatea) | 18,7 | 31,2 |
| Desgaitasun intelektuala izatea | 33,8 | 29,1 |
| Desgaitasun fisiko eta/edo sentsoriala izatea | 32,3 | |
| Zaharregitzat edo gazteegitzat hartzea | 35,4 | 26,5 |
| Erlijio-sinesmenak | 21,6 | 20,1 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 eta EPADE 2020 oinarri hartuta.*

*Neurtu 2021: 4. G. Esango zenidake, zure iritziz, arrazoi hauetan oinarritutako diskriminazioak zenbateraino dauden zabalduta Euskadin? Hauek dira aukerak: oso zabalduta, nahiko zabalduta, ez da ohikoa, ez da batere ohikoa eta ez da gertatzen. EPADE 2020: 13. G. Esaten da pertsona batek (edo pertsona talde batek) diskriminazioa jasan duela, baldin eta beste baten aldean modu okerragoan tratatu badute, bere ezaugarri pertsonalen ondorioz. Zure ustez, Euskadin, oro har, oso ohikoa, nahiko ohikoa, ezohikoa edo guztiz ezohikoa da diskriminazioa edo tratu okerragoa edozein arlotan, honako arrazoi hauek direla-eta?*

Ondoren, diskriminazioa eragin dezaketen ezaugarriei buruz galdetu zaie EAEko biztanleei, lehenik eta behin, bat-batean erantzuteko, aukeratu daitezkeen ezaugarrien zerrendarik eskaini gabe, eta, ondoren, iradoki egin zaie, eta, oraingoan bai, ezaugarrien zerrenda eskaini zaie, eta eskatu zaie zerrenda horretatik aukeratzeko euren iritziz gure egungo gizartean diskriminazio-arrazoi izan daitezkeen hiru ezaugarri nagusiak.

Hala, 15. grafikoan ikusten denez, bat-batean erantzutean aipatu diren lehenengo hiru ezaugarriak izan dira atzerritarra izatea, ijitoa izatea eta emakumea izatea; iradokitako galderan, berriz, hirugarren lekuan dago musulmana, judua edo beste erlijio batekoa izatea.

Horren harira, nabari da, aukeratzeko erantzunak eman zaizkienean nabarmen igo dela pertsona bati kalte egin diezaiokeen ezaugarritzat honako hauek aipatu dituen biztanleriaren ehunekoa: erlijio musulmana, judua edo beste bat izatea (% 24,4), ijitoa izatea (% 38,4) eta, neurri txikiagoan, auzo pobre batean bizitzea (% 10,3), baliabide ekonomiko gutxi izatea (% 18,4) eta gaixotasun mentala izatea (% 11,1).

**15. grafikoa. Diskriminazioa eragin dezaketen pertsonen ezaugarriak (%)**




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*5. G. Zure ustez, zer ezaugarri izan daiteke kaltegarri pertsona batentzat, besteen pare tratatua ez izateko?*

Sexuaren eta generoaren araberako desberdintasunei dagokienez (15. taula), emakumeek gizonek baino askoz gehiago adierazi dute emakume izateagatik, ijitoa izateagatik eta gaztea izateagatik diskriminazioa dagoela, bai bat-batean erantzutean bai hainbat aukera emanda erantzutean.

**15. taula. Diskriminazioa eragin dezaketen pertsonen ezaugarriak. Bat-bateko erantzuna eta iradokitako erantzuna, sexuaren/generoaren arabera (%)**

| | Bat-bateko erantzuna | | | Iradokitako erantzuna | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Emakumeak | Gizonak | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
| Gizona izatea | 0,4 | 0,2 | 0,5 | 0,3 | 0 | 0,5 |
| Heterosexuala izatea | 0,2 | 0,3 | 0 | 0,4 | 0,5 | 0,3 |
| Katoliko praktikatzailea izatea | 0,1 | 0,2 | 0 | 0,5 | 0,6 | 0,3 |
| Intersexuala izatea | 0,4 | 0,6 | 0,2 | 1,5 | 1,1 | 1,7 |
| Gaztea izatea | 1,4 | 2,1 | 0,7 | 1,9 | 2,9 | 0,9 |
| Langabezian egotea | 0,6 | 0,5 | 0,9 | 2,4 | 2,9 | 1,9 |
| Desgaitasun intelektuala izatea | 1,8 | 1,4 | 2,3 | 5,2 | 5,0 | 5,4 |
| Gehiegizko pisua edo obesitatea izatea | 2,3 | 2,6 | 1,9 | 6,9 | 8,0 | 5,7 |
| Prestakuntza txikia izatea | 3,3 | 3,4 | 3,3 | 7,8 | 8,3 | 7,1 |
| Desgaitasun fisiko eta/edo sentsoriala izatea | 6,3 | 5,8 | 6,8 | 9,2 | 9,5 | 8,8 |
| Adinekoa izatea | 5,5 | 6,3 | 4,7 | 9,4 | 9,8 | 9,0 |
| Auzo degradatu/pobre/estigmatizatu batean bizitzea | 2,0 | 2,7 | 1,4 | 10,3 | 10,0 | 10,6 |
| Gaixotasun mental bat izatea | 3,5 | 4,2 | 2,6 | 11,1 | 12,5 | 9,7 |
| Lesbiana, gay edo bisexuala izatea | 8,4 | 8,0 | 8,8 | 11,5 | 11,2 | 11,8 |
| Emakumea izatea | 15,9 | 21,0 | 10,4 | 17,8 | 24,1 | 11,1 |
| Baliabide ekonomiko gutxi izatea | 10,6 | 9,8 | 11,4 | 18,4 | 18,1 | 18,7 |
| Transexuala edo transgeneroa izatea | 13,5 | 12,8 | 14,2 | 20,5 | 18,9 | 22,2 |
| Musulmana, judua edo beste erlijio batekoa izatea | 12,2 | 10,9 | 13,5 | 24,4 | 23,1 | 25,8 |
| Ijitoa izatea | 29,3 | 26,0 | 32,9 | 38,4 | 34,8 | 42,5 |
| Atzerritarra izatea | 37,0 | 37,7 | 36,2 | 40,2 | 40,1 | 40,2 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*5. G. Zure ustez, zer ezaugarri izan daiteke kaltegarri pertsona batentzat, besteen pare tratatua ez izateko?*

## Eskubideak eta erakundeak ezagutzea eta diskriminaziorik ezari dagokionez erakundeek egiten duten lanaren balorazioa

Epigrafe honen helburua da Euskadiko biztanleek tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko duten eskubideaz daukaten ezagutza-mailara hurbiltzea, bai eta eskubide hori defendatzeko gaur egun EAEn indarrean dauden erakundeei eta mekanismoei buruz duten ezagutza-mailara ere. Horren harira, erakunde horiek praktikan egiten duten lanari buruz biztanleek zer balorazio egiten duten jakin nahi izan dugu halaber.

## Eskubideak eta erakundeak ezagutzea

EPADE 2020k ere erregistratzen duen bezala, Euskadiko biztanle gehienek (% 73,8) 2021ean adierazi dute ez dakitela zer eskubide dituzten diskriminazioaren biktima izanez gero, eta % 23k, berriz, adierazi du bai ezagutzen dituela (16. grafikoa). Emakumeen eta gizonen artean ez dago alde nabarmenik horren harira (16. taula).

**16. grafikoa. Diskriminaziorik ezari buruzko eskubideak ezagutzea** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*21. G. Badakizu zer eskubide dituzun diskriminazio baten biktima izanez gero?*

**16. taula. Diskriminaziorik ezari buruzko eskubidearen ezagutza, sexuaren/generoaren arabera** (%)

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| Bai | 22,5 | 22,7 | 22,2 |
| Ez | 73,8 | 74,2 | 73,5 |
| Ikusi egin behar | 2,4 | 2,0 | 2,9 |
| Ed/ Ee | 1,3 | 1,1 | 1,5 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*21. G. Badakizu zer eskubide dituzun diskriminazio baten biktima izanez gero?*

Hala ere, azpimarratu behar da tarteko adinean dauden pertsonek gehiago adierazi dutela zer eskubide dituzten badakitela, gazteenek eta 65 urtetik gorakoek baino. Ikasketei dagokienez, ikusi dugu beren eskubideak zein diren badakitela adierazteko joera zuzenki proportzionala dela ikasketa-mailarekiko, eta ikasketa handienak dituzten pertsonak direla beren eskubideak hobekien ezagutzen dituztenak. Adierazgarria da, halaber, adierazi dutenaren arabera, beren eskubideak gehiago ezagutzen dituztela ateo edo agnostiko gisa identifikatzen direnek erlijioren bat dutenek baino. Ezkerrarekin identifikatzen direnek eta estatus sozioekonomiko ertain-altukoek eta altukoek ere gehiago adierazi dute beren eskubideak ezagutzen dituztela (17. taula).

**17. taula. Diskriminaziorik ezari buruzko eskubidearen ezagutza, beste ezaugarri soziodemografiko batzuen arabera (% horizontalak)**

| | | Bai | Ez | Ikusi egin behar |
|---|---|---|---|---|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 11,1 | 86,3 | 2,0 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 25,5 | 71,8 | 2,0 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 29,3 | 66,1 | 3,5 |
| | 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 15,7 | 80,6 | 1,6 |
| Ikasketak | Ikasketarik gabe/Lehen mailakoak | 15,6 | 81,9 | 0,9 |
| | Bigarren hezkuntza/Oinarrizkoak | 18,7 | 77,1 | 3,2 |
| | Goi-mailakoak | 34,6 | 60,5 | 3,5 |
| Erlijio-sinesmenak | Katolikoa | 19,6 | 76,0 | 2,8 |
| | Agnostikoa/ateoa | 26,8 | 70,0 | 1,9 |
| | Beste erlijio batekoa | 20,7 | 79,3 | 0,0 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 32,0 | 64,7 | 1,4 |
| | Zentro-ezkertiarra | 21,9 | 75,1 | 2,0 |
| | Zentro-eskuinekoa / Eskuinekoa | 18,4 | 76,2 | 4,3 |
| Estatusa | Baxua eta ertain-baxua | 15,3 | 83,4 | 0,3 |
| | Ertaina | 27,4 | 70,8 | 1,2 |
| | Ertain-altua eta altua | 29,6 | 65,0 | 3,8 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*21. G. Badakizu zer eskubide dituzun diskriminazio baten biktima izanez gero?*

Bestalde, datuak 2020koekin alderatzen baditugu (EPADE 2020), ikusiko dugu 2020tik 2021era pixka bat igo dela diskriminaziorik ezari dagokionez beren eskubideak ez dituztela ezagutzen adierazi duten guztizko biztanleen ehunekoa (% 73,8 vs. % 69,6) (17. irudia).

**17. grafikoa. Diskriminaziorik ezari buruzko eskubidearen ezagutza, EPADE 2020 eta Neurtu 2021 (%)**




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 eta EPADE 2020 oinarri hartuta.*

*Neurtu 2021: 21. G. Badakizu zer eskubide dituzun diskriminazio baten biktima izanez gero?; EPADE 2020: 45. G. Badakizu zer eskubide dituzun diskriminazio baten biktima izanez gero?*

## Erakundeak eta organismoak ezagutzea

Diskriminazioaren aurrean zer eskubide ditugun jakitea bezain garrantzitsua da eskubide horiek babesteko ardura duten erakunde eta mekanismo instituzionalak zein diren jakitea. Horren harira, 2020an egin zen bezala (EPADE 2020), honako hauei buruz galdetu zaie Euskadiko biztanleei: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea, Berdindu, Eraberean eta Migraziorako Euskal Itun Soziala. 37. grafikoan ikus daitekeenez, Euskadiko biztanle gehienek adierazi dute entzun dutela Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari buruz hitz egiten (% 9,6). Gutxiago dira Migraziorako Euskal Itun Sozialaren (% 21,1) eta Berdindu zerbitzu publikoaren (% 15,8) berri dutela adierazi dutenak. Era berean, ez da % 5era iristen Eraberean sarea ezagutzen dutela adierazi dutenen ehunekoa (% 4,3).

**18. grafikoa. Erakundeak eta organismoak ezagutzea** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*22. G. Ba al duzu honako hauen berri?*

Aipatutako erakundeen ezagutzari dagokionez ez dago alde nabarmenik emakumeen eta gizonen artean (18. taula), ez eta beste aldagai soziodemografiko batzuei dagokienez ere. Gainera, 2021ean jasotako datu horiek ez daude 2020an lortutakoetatik batere urrun (EPADE 2020) (19. grafikoa).

**18. taula. Erakundeak eta organismoak ezagutzea, sexuaren/generoaren arabera** (%)

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| Emakunde | 79,6 | 80,8 | 78,4 |
| Migraziorako Euskal Itun Soziala | 21,1 | 19,1 | 23,2 |
| Berdindu | 15,8 | 16,2 | 15,5 |
| Eraberean | 4,3 | 4,2 | 4,4 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*22. G. Ba al duzu honako hauen berri?*

**19. grafikoa. Erakundeak eta organismoak ezagutzea, EPADE 2020 eta Neurtu 2021 (%)**




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 eta EPADE 2020 oinarri hartuta.*

*Neurtu 2021: 22. G. Ba al duzu honako hauen berri?;*
*EPADE 2020: 46. G. Ba al duzu honako hauen berri?*

## Erakundeen eremuan egiten den lanaren balorazioa

20. grafikoan ikus daitekeenez, galdetutakoen iritziz erlijio-aniztasuna da erakundeen ahalegin handiena (berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde) jasotzen duen gizarte-errealitatea; aldiz, euskal gizarteak uste du erakundeen eremuak ez duela behar adina egiten pertsona trans eta intersexualen errealitateei eta indarkeria matxistari dagokienez.

Hamarretik seik uste du erakundeen eremuan nahikoa egiten dela erlijio-sinesmen guztietako pertsonek beren fedea izan dezaten (% 63,3).

Biztanleen % 50 inguruk uste du nahikoa egiten dela, halaber, desgaitasunen bat duten pertsonak (% 54,6) eta migratuak (% 50,7) erabat integratzeko, bai eta emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzeko (% 49,3) eta lesbianak, gayak eta bisexualak ez diskriminatzeko ere (% 48,3).

Nabarmendu behar da, ordea, txikiagoa dela transen (% 41,8) eta intersexualen (% 37,5) aurkako diskriminazioa saihesteko eta, bereziki, indarkeria matxista (% 32,5) desagerrarazteko ez dela nahikoa egiten uste duten biztanleen ehunekoa.

Datu horiek erakusten dutenez, EAEko biztanleek babes instituzional txikiagoa ikusten dute intersexualen eta transen errealitatearekiko, desio ez-heterosexualarekiko baino, eta, aldi berean, baloratu dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko lan politiko-teknikoarekiko modu nahiko independentean eta okerrago egiten direla indarkeria matxista desagerrarazteko ahaleginak.

Ijitoak erabat integratzeko erakundeek egiten duten ahaleginari dagokionez, EAEko biztanleen iritziz, % 47,5ek uste du nahikoa egiten dela, % 42k uste du ez dela nahikoa egiten eta % 10,5ek ez du bere jarrera adierazi.

EAEko biztanleek zalantza edo ezjakintasun gehien agertzen dituzten errealitateak dira intersexualen eta transen alde erakundeek egiten duten ahaleginarekin loturikoak. Bestalde, jarrera argiagoak nabari dira immigrazioari, desgaitasunari eta indarkeria matxistari dagokienez.

**20. grafikoa. Erakundeek berdintasunaren alde egiten dituzten ahaleginak, eremuen arabera** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*
*23. G. Zure ustez, euskal erakundeak nahikoa ahalegin egiten ari al dira honako hauek lortzeko?*

Nabarmendu behar da emakumeak gizonak baino kritikoagoak direla erakundeek egiten duten lanarekin kasu guztietan. Hamabi puntu inguruko aldeak daude, eta, zehazki, indarkeria matxista desagerrarazteko erakundeek egindako ahaleginen aurrean duten jarrera nabarmentzen da; izan ere, emakumeek ez dituzte nahikotzat jotzen indarkeria matxista desagerrarazteko erakundeek egiten dituzten ahaleginak, gizonen kasuan baino ehuneko hamabost puntu gehiago (19. taula).

**19. taula. Erakundeek berdintasunaren alde egindako ahaleginak nahikoa direla pentsatzen duten pertsonak, sexuaren/generoaren arabera (%)**

| Zure ustez, euskal erakundeak nahikoa ahalegin egiten ari al dira...? | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| Sinesmen erlijioso guztietako pertsonek beren fedea agertu ahal izateko? | 63,3 | 57,2 | 69,9 |
| Desgaitasuna duten pertsonak gizartean erabat integratzeko? | 54,6 | 49,2 | 60,5 |
| Immigranteak gizartean erabat integratzeko? | 50,7 | 45,4 | 56,5 |
| Emakumeen eta gizonen arteko erabateko berdintasuna lortzeko? | 49,3 | 44,1 | 55,0 |
| Lesbianak, gayak eta bisexualak diskriminatuak ez izateko? | 48,3 | 42,5 | 54,5 |
| Ijitoak gizartean erabat integratu ahal izateko? | 42,0 | 36,2 | 48,3 |
| Transexualak edo transgeneroak diskriminatuak ez izateko? | 41,8 | 36,1 | 47,9 |
| Intersexualak diskriminatuak ez izateko? | 37,5 | 31,8 | 43,6 |
| Indarkeria matxistarekin bukatzeko? | 32,5 | 25,3 | 40,3 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*23. G. Zure ustez, euskal erakundeak nahikoa ahalegin egiten ari al dira honako hauek lortzeko?*

Bestalde, guztizko datuak 2020koekin alderatuta (EPADE 2020), ikusten da bere horretan dirautela erakundeak baloratzeko joerek, 2021ean txikiagoak badira ere balorazio positiboko ehunekoak (21. grafikoa).

**21. grafikoa. Erakundeek berdintasunaren alde egindako ahaleginak nahikoa direla pentsatzen duten pertsonak, EPADE 2020 eta Neurtu 2021 (%)**




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 eta EPADE 2020 oinarri hartuta.*

*Neurtu 2021: 23. G. Zure ustez, euskal erakundeak nahikoa ahalegin egiten ari al dira honako hauek lortzeko?; EPADE 2020: 47. G. Zure ustez, euskal erakundeak nahikoa ahalegin egiten ari al dira honako hauek lortzeko?*

Diskriminaziorik ezaren alde erakundeek egiten dituzten ahaleginei buruz EAEko biztanleek eman dituzten erantzunei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu atzerritarrek bertakoek baino askoz gehiago uste dutela egiten diren ahaleginak nahikoak direla aniztasun guztietarako. Era berean, ateo edo agnostiko gisa identifikatutakoek katolikoek baino nabarmen gutxiago uste dute nahikoa egiten dela, eta ezkertiarrek edo zentro-ezkertiarrek eskuinekoek/zentro-eskuinekoek baino nabarmen gutxiago (20. taula).

**20. taula. Erakundeek berdintasunaren alde egindako ahaleginak nahikoa direla pentsatzen duten pertsonak, beste ezaugarri soziodemografiko batzuen arabera** (%)

| | | Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna | Desgaitasuna dutenak | Immigranteak | Lesbianak, gayak eta bisexualak | Transgenero edo transexualak | Intersexualak | Ijitoak | Beren erlijioa izatea | Indarkeria matxista desagertzea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Erlijio-sinesmenak | Katolikoa | 55,3 | 58,3 | 57,0 | 50,2 | 42,2 | 38,0 | 46,0 | 69,0 | 33,4 |
| | Agnostikoa/ateoa | 41,5 | 48,4 | 42,4 | 46,2 | 40,9 | 35,9 | 35,5 | 56,3 | 29,2 |
| | Beste erlijio batekoa | 47,0 | 62,7 | 48,2 | 44,6 | 43,9 | 41,5 | 48,8 | 59,0 | 42,7 |
| Jatorria | Espainia | 48,5 | 52,6 | 50,3 | 47,5 | 40,8 | 36,2 | 40,5 | 63,0 | 30,9 |
| | Atzerritarra | 56,2 | 70,3 | 54,3 | 53,6 | 50,0 | 47,1 | 53,6 | 66,4 | 44,9 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 33,3 | 41,4 | 35,1 | 37,3 | 34,1 | 32,0 | 34,5 | 53,8 | 21,9 |
| | Zentro-ezkertiarra | 50,9 | 54,6 | 50,6 | 47,3 | 40,2 | 34,9 | 37,9 | 65,9 | 31,8 |
| | Zentro-eskuinekoa / Eskuinekoa | 65,8 | 66,5 | 65,8 | 60,9 | 51,2 | 45,9 | 51,2 | 71,2 | 46,3 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*23. G. Zure ustez, euskal erakundeak nahikoa ahalegin egiten ari al dira honako hauek lortzeko?*

# 2 Sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI kolektiboarekiko pertzepzioak eta jarrerak

Txostenaren bigarren bloke honetan, EAEko biztanleek sexu- eta genero-aniztasunari eta LGTBI kolektiboari buruz dituzten pertzepzioak eta jarrerak aztertuko ditugu. Lehenik eta behin, gaur egun gizartean nolabaiteko oihartzuna duten hainbat gairi buruzko pertzepzioak eta jarrerak landuko ditugu. Ondoren, LGTBI kolektiboarekiko jarrerak aztertuko ditugu bost eremu jakinen inguruan: lana eta botere publikoa, hezkuntza, gizarte-harremanak, araudi- eta lege-eremua eta, azkenik, osasuna.

## Sexu- eta genero-aniztasunari lotutako gaurkotasuneko gai batzuei buruzko pertzepzioak eta jarrerak

Gaurkotasuneko gaiei edo gizartean nolabaiteko eztabaida eragiten duten gaiei dagokienez, hainbat galdera egin ditugu, lau punturen inguruan: 1) diskriminazioa; 2) lan-testuingurua; 3) Administrazio publikoa, eta 4) gizarte-adierazpena eta identitatea.

Jarraian, EAEko biztanleek sexu- eta genero-aniztasunari buruz dituzten jarreren eta sinesteen ikuspegi orokorra eskainiko digu (22. grafikoa). Ondoren, arestian aipatutako gai-multzoen barruan aztertuko ditugu horiek.

**22. grafikoa. Sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI kolektiboarekiko pertzepzioak eta jarrerak (%)[10]**




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*17. G. Esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazten denarekin*

[10] Kasu batzuetan kontsulta sinplifikatzeko asmoz, “LGTBI pertsonak” eta “heterosexualak” bereizten diren arren, garrantzitsua da aintzat hartzea LGTBI kolektiboak askotariko errealitateak hartzen dituela, eta horien artean desio heterosexuala ere dagoela.

Diskriminazioarekin lotura zuzenagoa duten gaiekin hasita (23. grafikoa), nabari da EAEko biztanle gehienek ez dutela uste LGTBI pertsonen aurkako gaitzespena batzuetan justifikatuta egon daitekeenik haien jokabideagatik, ez eta “marikoia” edo “marimutila” bezalako esamoldeak irain ez direnik eta gaur egun kolektiboa diskriminatuta ez dagoenik ere. Hori ebidentzia guztiz positiboa da, eta merezi du balioa ematea.

Hala ere, badirudi euskal iritzia oso zatitua dagoela LGTBI kolektiboaren egoerarekiko pertzepzioan eskubideei dagokienez; LGTBI pertsonek gaur egun gainerakoen eskubide berberak dituztela uste dutenak ideia hori baztertzen dutenak baino zertxobait gehiago dira ehunekoetan (% 45,4 vs. % 31,8); eta, era berean, % 18,7 dira beren jarrera azaldu ez duten pertsonak.

**23. grafikoa. LGTBI kolektiboarekiko pertzepzioak eta jarrerak diskriminazioaren inguruan** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*17. G. Esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazten denarekin*

Iritzi-banaketaren ildo beretik, EAEko biztanleen ia % 50 “Garai batean LGTBI pertsonak baztertuta zeuden, gaur egun jada ez” adierazpenaren aurka dago; biztanleen % 34,5ek ideia horretan sinesten du, eta % 14,6k ez du bere jarrera azaldu.

Hala, esan daiteke LGTBI kolektiboarekiko tratu desberdina eta diskriminazioa, nahiz eta azken urteetan gaurkotasuneko gai bihurtu eta goraka ari den, ez dagoela lotuta horri buruzko adostasun edo jarrera sozial argi batekin. Lortutako datuek agerian utzi dute, iritzi-banaketa ez ezik, EAEko biztanleriaren zati handi batek zalantzak dituela edo ez duela bere jarrera azaldu nahi.

Azkenik, garrantzitsua iruditzen zaigu ez gutxiestea, esate baterako, EAEko biztanleen % 32k ez duela esplizituki ukatzen LGTBI pertsonen aurkako gaitzespena batzuetan arrazoizkoa izan daitekeela “pertsona horiek duten

jarrera probokatzailea eta exhibizionista kontuan izanda" (% 14,9 ados, % 14,4 ez ados ez kontra eta % 2,7 Ed/Ee).

Lan-testuinguruarekin jarraituz (24. grafikoa), eremu horretan ere ez dugu aurkitu nagusi den jarrerarik; euskal iritzia zatitua dago, % 15etik gorakoak baitira "ez ados ez kontra" erantzunaren ehunekoak.

Iritzi-banaketa argiena nabari da "LGTBI pertsonek ez dituzte heterosexualen aukera berak lanpostu hobea eskuratzeko eta lanbide-ibilbidean aurrera egiteko, ez eta lan-baldintza berdinak ere" esaldiarekin loturik.

**24. grafikoa. LGTBI kolektiboarekiko pertzepzioak eta jarrerak lan-testuinguruan** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*17. G. Esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazten denarekin*

LGTBI pertsonek lanpostu hobea eskuratzeko eta lanbide-ibilbidean aurrera egiteko dituzten aukeretan desberdintasuna dagoela uste duten EAEko biztanleen ehunekoa % 40 ingurukoa da, kontrakoa uste dutela diotenen ehunekoa baino puntu gutxi batzuk bakarrik gehiago (% 36,1 kontra). Lan-baldintza desberdinei dagokienez, ordea, alderantzizkoa gertatzen da. Biztanleen % 40,7k adierazi du ez dagoela desberdintasunik alde horretatik, eta % 35,2k uste du bai badagoela.

Lana aurkitzeko zailtasunei dagokienez, iritzi-banaketa txikiagoa da. EAEko biztanleen % 48,6k uste du LGTBI kolektiboak zailtasunak dituela lana aurkitzeko; % 23,2k uste du hori ez dela gertatzen, % 21,7k ez du bere jarrera azaldu eta % 6,6k esan du ez dakiela edo ez du erantzun.

Administrazio publikoari dagokionez (25. grafikoa), esan behar da EAEko biztanle gehienek ez dutela uste LGTBI pertsonek behar baino gehiago eskatzen dutenik (% 70,8 kontra), ezta erakundeek kolektibo hori gehiegi babesten dutenik ere (% 71,5 kontra).

Hala ere, hamar lagunetik batek uste du erakundeek gehiegi babesten dutela LGTBI kolektiboa (% 8,6 ados eta % 1,4 erabat ados); biztanleen % 12,1ek ez du bere jarrera azaldu, eta % 6,6k dio ez dakiela edo ez du erantzun. Antzeko egoera nabari da bigarren baieztapenean: % 8,6 ados daude, % 0,6 erabat ados, % 13,5ek ez du bere jarrera azaldu eta % 6,6k ez daki edo ez du erantzun.

**25. grafikoa. LGTBI kolektiboarekiko pertzepzioak eta jarrerak Administrazio publikoaren inguruan I** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*17. G. Esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazten denarekin*

**26. grafikoa. LGTBI kolektiboarekiko pertzepzioak eta jarrerak Administrazio publikoaren inguruan II** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*17. G. Esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazten denarekin*

Bestalde, EAEko biztanleen % 86,3, gehiengo handi bat, “Erakundeek LGTBI pertsonen aukera-berdintasuna bermatzeko beharraren” alde agertu bada ere, adostasun-maila jaitsi egin da horrekin lotutako alderdi jakin bati buruz galdetzean: administrazioko izapideetan eta inprimakietan sexu- eta genero-aniztasuna aintzat hartu behar izatea (% 63,2 alde). Halaber, aipatzekoa da

ehuneko handi batek erabaki duela bere jarrera ez azaltzea (% 18,1, “ez ados, ez kontra”) (26. grafikoa).

LGTBI kolektiboko pertsonen agerikotasunari eta gizarte-adierazpenari buruzko pertzepzioei dagokienez (27. grafikoa), ikusi da LGTBI pertsonen ikusezintasuna eta gizarte-mugapena aitortzeko joera dela nagusi; aldiz, beren jarrera ez azaltzea aukeratu duten pertsonen ehunekoak, bai eta ikusezintasunik edo gizarte-mugapenik ez dagoela uste duten pertsonei lotutakoak ere, % 10 eta % 20 artean mantendu dira.

Nortasunari dagokionez (27. grafikoa), EAEko biztanleen % 56,7k uste du sexu-orientazioa eta genero-identitatea aldatu egin daitezkeela pertsona baten bizitzan; % 17,5ek, berriz, ez du bere jarrera azaldu, ia % 18k adierazi du kontra dagoela eta ia % 8k esan du ez dakiela edo ez du erantzun.

**27. grafikoa. LGTBI kolektiboaren agerikotasunari, gizarte-adierazpenari eta identitateei buruzko pertzepzioak eta jarrerak I** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*17. G. Esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazten denarekin*

Azkenik, EAEko biztanle gehienek ukatu egin dute gaur egun LGTBI pertsona gehiago dagoela, modan dagoelako (28. grafikoa); izan ere, % 47,9 kontra dago, % 22,5 erabat kontra eta % 13,9 bakarrik ados edo erabat ados.

**28. grafikoa. LGTBI kolektiboaren agerikotasunari, gizarte-adierazpenari eta identitateei buruzko pertzepzioak eta jarrerak II** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*g17. G. Esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazten denarekin*

21. taulan ikusten denez, emakumeek gizonek baino askoz ere adostasun handiagoa azaldu dute erakundeek LGTBI pertsonen aukera-berdintasuna bermatzeko betebeharrari dagokionez (emakumeen kasuan % 88,8 eta gizonen kasuan % 83,5). Era berean, askoz ere adostasun txikiagoa azaldu dute “marikoia” edo “marimutila” bezalako adierazpenak iraingarriak ez direla ulertzeari dagokionez (emakumeek % 6,7 eta gizonek % 14,1).

**21. taula. LGTBI kolektiboari buruzko hainbat adierazpenekin ados dauden pertsonen ehunekoa, sexuaren/generoaren arabera (% ados eta erabat ados)**

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| Sexu-orientazioa eta genero-identitatea aldatu egin daitezke pertsona baten bizitzan | 56,7 | 55,4 | 58,1 |
| Erakundeek LGTBI pertsonen aukera-berdintasuna bermatu beharko lukete | 86,3 | 88,8 | 83,5 |
| Oro har, administrazioko izapideetan eta inprimakietan aintzat hartu beharko litzateke sexu- eta genero-aniztasuna | 63,2 | 64,5 | 61,7 |
| Gaur egun LGTBI pertsona gehiago dago, modan dagoelako | 13,8 | 13,6 | 14 |
| “Marikoia”, “marimutila” eta halako esamoldeak hitz egiteko modu bat dira, eta ez irainak | 10,3 | 6,7 | 14,1 |
| Zenbaitetan, LGTBI pertsonen aurkako arbuioa arrazoizkoa izan daiteke, pertsona horiek duten jarrera probokatzailea eta exhibizionista kontuan izanda | 14,9 | 14,1 | 15,8 |
| LGTBI pertsonek gehiegizko aldarrikapenak egiten dituzte | 9,2 | 7,7 | 10,7 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*17. G. Esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazten denarekin*

22. taulak beste aldagai soziodemografiko batzuekin lotutako desberdintasun esanguratsuei buruzko informazioa ematen digu, zehazki: adina, ikasketa-maila, erlijio-sinesmenak, jatorria, ideologia eta estatus sozioekonomikoa. Hala, agerian geratu da LGTBI kolektiboarekiko eta sexu- eta genero-aniztasunarekiko jarrera hurbilagoak edo enpatikoagoak dituztela gazteenek, ikasketa handienak dituztenek, agnostiko/ateo deklaratuek, bertakoek, ezkertiarrek eta estatus sozioekonomiko ertain-altua eta altua dutenek. Bestalde, jarrera urrunagoak dituztenak daude, adin handieneko pertsonak, ikasketa txikienak dituztenak, erlijiosoak, atzerritar jatorrikoak, ideologikoki eskuinekoak/zentro-eskuinekoak direnaj eta estatus sozioekonomiko ertain-baxukoak eta baxukoak. Alde horretatik, komeni da berriro gogoratzea desiragarritasun sozialaren joerak izan dezakeen eragina eta, azken batean, jarrera eta pertzepzio sozialak sakon aztertzeak duen konplexutasuna.

**22. taula. LGTBI kolektiboari buruzko hainbat adierazpenekin ados dauden pertsonen ehunekoa, beste ezaugarri soziodemografiko batzuen arabera** (% ados eta erabat ados)

| | | Sexu-orientazioa eta genero-identitatea aldatu egin daitezke pertsona baten bizitzan | Oro har, administrazioko izapideetan eta inprimakietan aintzat hartu beharko litzateke sexu- eta genero-aniztasuna | Gaur egun LGTBI pertsona gehiago dago, modan dagoelako | Zenbaitetan, LGTBI pertsonen aurkako arbuioa arrazoizkoa izan daiteke, pertsona horiek duten jarrera probokatzailea eta exhibizionista kontuan izanda | LGTBI pertsonek gehiegizko aldarri-kapenak egiten dituzte |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 69,7 | 73,4 | 12,4 | 9,8 | 3,9 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 57,3 | 70,7 | 11,8 | 9,5 | 8,8 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 58,3 | 63,4 | 9,5 | 14,4 | 7,2 |
| | 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 47,8 | 51,3 | 22,3 | 23,1 | 14,7 |
| Ikasketak | Ikasketarik gabe/Lehen mailakoak | 49,4 | 54,5 | 21,0 | 20,5 | 15,2 |
| | Bigarren mailakoak/Oinarrizkoak | 56,6 | 62,4 | 14,4 | 15,2 | 7,9 |
| | Goi-mailakoak | 65,0 | 74,0 | 4,6 | 7,9 | 3,0 |
| Erlijio-sinesmenak | Katolikoa | 52,6 | 58,4 | 15,1 | 18,2 | 11,7 |
| | Agnostikoa/ateoa | 64,7 | 75,3 | 5,8 | 7,1 | 3,2 |
| | Beste erlijio batekoa | 41,5 | 35,4 | 47,6 | 30,5 | 24,1 |
| Jatorria | Espainia | 57,5 | 64,4 | 11,0 | 14,4 | 8,2 |
| | Atzerritarra | 49,6 | 53,6 | 35,8 | 18,2 | 16,7 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 64,9 | 77,8 | 5,0 | 12,2 | 4,7 |
| | Zentro-ezkertiarra | 60,4 | 61,1 | 8,4 | 7,9 | 4,6 |
| | Zentro-eskuinekoa / eskuinekoa | 48,6 | 56,4 | 28,0 | 21,0 | 17,1 |
| Estatusa | Baxua eta ertain-baxua | 56,8 | 64,0 | 23,8 | 19,7 | 15,9 |
| | Ertaina | 59,9 | 80,4 | 17,8 | 9,5 | 8,3 |
| | Ertain-altua eta altua | 65,8 | 73,1 | 5,8 | 13,1 | 7,7 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*17. G. Esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazten denarekin*

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei dagokienez (23. taula), ikus dezakegu emakumeak gizonak baino nabarmen gehiago, ados daudela esatean LGTBI pertsonek gizarte-eremuan askatasunez adierazteko mugak izan ohi dituztela, bai eta beren lanbide-ibilbidean aurrera egiteko aukera-berdintasunik ez dutela eta heterosexualek dituzten lan-baldintza berak ez dituztela esatean ere.

Gizonak, berriz, emakumeak baino nabarmen gehiago, ados daude esatean LGTBI kolektiboarekiko diskriminazioa iraganarekin lotutako zerbait dela eta ez duela gaur egun irauten.

**23. taula. LGTBI kolektiboaren diskriminazio-egoerari buruzko hainbat adierazpenekin ados dauden pertsonen ehunekoa, sexuaren/generoaren arabera (% ados eta erabat ados)**

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| Garai batean LGTBI pertsonak baztertuta zeuden; gaur egun jada ez | 34,4 | 31,1 | 38,0 |
| LGTBI pertsonek heterosexualen eskubide berberak dituzte gaur egun | 45,3 | 41,1 | 49,9 |
| Erakundeek gehiegizko babesa ematen diete LGTBI pertsonei | 9,9 | 8,2 | 11,8 |
| LGTBI pertsonek normalean mugak dituzte beren nortasuna edota irudia adierazteko | 62,0 | 64,7 | 59,1 |
| Arbuiatuak izateko beldurrez, LGTBI pertsona batzuek sentitzen dute gizarteak mugak ezartzen dizkiela beren nortasuna, irudia eta maitasuna adierazteko | 61,4 | 61,9 | 60,9 |
| Oro har, gizartearen joera da LGTBI pertsonak egon badaudela eta haien errealitatea ezkutatzea | 53,7 | 55,9 | 51,4 |
| LGTBI pertsonek zailtasunak dituzte enplegua aurkitzeko (enplegu-zerbitzuan jasotzen duten arreta, hautaketa-prozesuetan parte hartzea ukatzea) | 48,6 | 48,4 | 48,9 |
| LGTBI pertsonek ez dituzte heterosexualen lan-baldintza berak (ordutegia, soldata, kokapena, prestakuntza-aukerak…) | 35,1 | 38,1 | 31,9 |
| LGTBI pertsonek ez dituzte heterosexualen aukera berak lanpostu hobea eskuratzeko eta lanbide-ibilbidean aurrera egiteko | 39,9 | 42,8 | 36,7 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*17. G. Esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazten denarekin*

Beste aldagai soziodemografiko batzuei erreparatzen badiegu (24. taula), ohartuko gara lehen aipatutako joera horiek errepikatu egiten direla, eta, oro har, LGTBI kolektiboarekiko diskriminazioaren aurrean sentsibilizatuago agertu direnak eta diskriminazio hori gehien sumatzen dutenak direla gazteenak, ikasketa handienak dituztenak, agnostiko/ateo deklaratuak, bertakoak, ezkertiarrak edo zentro-ezkertiarrak, eta estatus sozioekonomiko ertain-altua eta altua dutenak; aldiz, diskriminazio gutxiago sumatzen dute adin handieneko pertsonek, ikasketa txikienak dituztenek, erlijiosoek, atzerritarrek, ideologikoki eskuinekoak/zentro-eskuinekoak direnek eta estatus sozioekonomiko ertain-baxua eta baxua dutenek.

**24. taula. LGTBI kolektiboaren diskriminazio-egoerari buruzko hainbat adierazpenekin ados dauden pertsonen ehunekoa, beste ezaugarri soziodemografiko batzuen arabera (% ados eta erabat ados)**

| | | Garai batean LGTBI pertsonak baztertuta zeuden; gaur egun jada ez | LGTBI pertsonek heterosexualen eskubide berberak dituzte gaur egun | Erakundeek gehiegizko babesa ematen diete LGTBI pertsonei | LGTBI pertsonek normalean mugak dituzte beren nortasuna edota irudia adierazteko | LGTBI pertsonek zailtasunak dituzte enplegua aurkitzeko (enplegu-zerbitzuan jasotzen duten arreta, hautaketa-prozesuetan parte hartzea ukatzea) | LGTBI pertsonek ez dituzte heterosexualen lan-baldintza berak (ordutegia, soldata, kokapena, prestakuntza-aukerak...) | LGTBI pertsonek ez dituzte heterosexualen aukera berak lanpostu hobea eskuratzeko eta lanbide-ibilbidean aurrera egiteko |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 28,6 | 39,9 | 3,9 | 68,0 | 53,9 | 45,1 | 49,7 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 31,2 | 41,2 | 10,5 | 63,4 | 49,8 | 35,6 | 41,5 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 33,6 | 45,3 | 6,9 | 65,5 | 52,3 | 38,1 | 43,5 |
| | 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 41,6 | 52,0 | 16,0 | 53,0 | 40,0 | 25,9 | 28,8 |
| Ikasketak | Ikasketarik gabeak/Lehen Hezkuntza | 38,3 | 47,8 | 15,4 | 56,6 | 48,0 | 36,4 | 38,8 |
| | Bigarren hezkuntza/ Oinarrizkoak | 40,7 | 47,2 | 8,9 | 54,6 | 40,9 | 30,7 | 36,7 |
| | Goi-mailakoak | 23,8 | 40,5 | 4,4 | 76,2 | 57,2 | 38,6 | 44,4 |
| Erlijio-sinesmenak | Katolikoa | 38,3 | 48,4 | 12,1 | 59,3 | 46,0 | 33,7 | 37,1 |
| | Agnostikoa/ateoa | 25,8 | 38,5 | 3,9 | 70,9 | 55,6 | 38,3 | 45,8 |
| | Beste erlijio batekoa | 56,0 | 58,5 | 25,6 | 36,6 | 34,9 | 27,7 | 25,3 |
| Jatorria | Espainia | 32,1 | 44,2 | 9,0 | 64,3 | 49,7 | 35,6 | 40,7 |
| | Atzerritarra | 52,9 | 54,3 | 16,8 | 45,3 | 40,1 | 31,9 | 33,3 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 15,8 | 38,8 | 5,0 | 68,8 | 56,6 | 44,1 | 48,6 |
| | Zentro-ezkertiarra | 32,6 | 35,9 | 7,6 | 75,3 | 53,2 | 34,1 | 41,0 |
| | Zentro-eskuinekoa / eskuinekoa | 52,8 | 56,4 | 15,7 | 53,7 | 38,8 | 29,2 | 33,8 |
| Estatusa | Baxua eta ertain-baxua | 39,9 | 49,7 | 16,3 | 52,8 | 47,3 | 41,3 | 43,7 |
| | Ertaina | 33,1 | 45,8 | 12,5 | 60,5 | 50,3 | 35,1 | 41,7 |
| | Ertain-altua eta altua | 26,1 | 37,9 | 4,6 | 65,5 | 56,2 | 40,5 | 48,7 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*17. G. Esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazten denarekin*

# Sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI kolektiboarekiko jarrerak, hainbat eremuren arabera

Eztabaidagai diren eta gaur egun gizartean oihartzuna duten zenbat gairi buruz EAEko biztanleek zer pertzepzio eta jarrera dituzten ezagutzeak dakarren panorama osatzeko asmoz, azpiatal honetan sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI kolektiboarekiko jarrerak aztertuko ditugu, honako eremu hauen inguruan: 1) lanaren eta botere publikoaren eremua, 2) hezkuntza-eremua, 3) gizarte-harremanen eremua, 4) arauen eta legeen eremua eta, azkenik, 5) osasunaren eremua.

## Lanaren eta botere publikoaren eremua

Botere publikoari dagokionez, EAEko biztanleei galdetu diegu zenbateraino onartzen duten Eusko Jaurlaritzako gobernuburua LGTBI kolektiboko izatea; zehazki, pertsona intersexuala, trans, lesbiana, gay edo bisexuala. Lan-eremuari dagokionez, bestalde, galdetu diegu zenbateraino onartzen duten lan-eremuan kolektibo horretako pertsonak hurbil izatea.

29. grafikoan ikus daitekeen bezala, gehiengoaren onarpena positiboa da, ez baita inola ere % 90etik jaisten, alde horretatik egindako baieztapen guztien aldean. Hala ere, badirudi EAEko biztanleen iritzia ez dela asko aldatzen kolektiboaren arabera.

**29. grafikoa. LGTBI kolektiboarekin zerikusia duten hainbat egoeren onarpen-maila lanaren eta botere publikoaren eremuan** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*12. G. Lan-eremuan Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?*

Lan-ingurunea LGTBI pertsonekin partekatzeari dagokionez, antzeko egoera nabari da, % 94k ongi edo oso ongi ikusten baitu. Nabarmentzekoa da, gainera, Eusko Jaurlaritzako gobernuburuari buruz galdetzean lortutako onarpen-maila lan-eremua partekatzeari dagokiona baino pixka bat txikiagoa dela. Horrek ez du esan nahi LGTBI pertsonak berea baino botere handiagoko postua duenik, ez eta ordezkaritza publikoko rola duenik ere.

Zehaztu behar da, halaber, bi kasu horietan (Eusko Jaurlaritzako gobernuburua eta lan-gune partekatua), onarpen-maila handiagoa dela lesbianei, gayei edo bisexualei buruz galdetu zaienean, intersexualei edo transei buruz galdetu zaienean baino.

25. taulan ikus daitekeen bezala, emakumeek gizonek baino askoz gehiago onartzen dute Eusko Jaurlaritzako gobernuburua LGTBI pertsona izatea. Bestalde, beste aldagai soziodemografiko batzuk kontuan hartuta, 26. taulak agerian uzten du ezen, dagoeneko ikusi diren joerei jarraituz, adostasun-maila handiena adierazi duten biztanleria-segmentuak direla gazteenak, ikasketa handienak dituztenak, agnostiko/ateo deklaratuak, bertakoak, ezkertiarrak edo zentro-ezkertiarrak, eta estatus sozioekonomiko ertain-altua eta altua dutenak.

**25. taula. LGTBI kolektiboarekin zerikusia duten hainbat egoera lan-eremuan ongi edo oso ongi iruditzen zaizkien pertsonen ehunekoa, sexuaren/generoaren arabera** (%)

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| Lan-ingurunean lesbianak, gayak edo bisexualak hurbil izatea | 96,2 | 97,4 | 94,8 |
| Lan-ingurunean transgeneroak edo transexualak hurbil izatea | 94,9 | 96,1 | 93,6 |
| Lan-ingurunean pertsona intersexualak hurbil izatea | 94,3 | 95,5 | 92,9 |
| Eusko Jaurlaritzako gobernuburua gaya, lesbiana edo bisexuala izatea | 93,5 | 94,3 | 92,7 |
| Eusko Jaurlaritzako gobernuburua transgeneroa edo transexuala izatea | 91,5 | 91,9 | 91,1 |
| Eusko Jaurlaritzako gobernuburua intersexuala izatea | 91,0 | 91,7 | 90,3 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*12. G. Lan-eremuan. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?*

**26. taula. LGTBI kolektiboarekin zerikusia duten hainbat egoera lan-eremuan ongi edo oso ongi iruditzen zaizkien pertsonen ehunekoa, sexuaren/generoaren arabera** (%)

| | | Lan-ingurunean lesbianak, gayak edo bisexualak hurbil izatea | Lan-ingurunean transgeneroak edo transexualak hurbil izatea | Lan-ingurunean pertsona intersexualak hurbil izatea | Eusko Jaurlaritzako gobernuburua gaya, lesbiana edo bisexuala izatea | Eusko Jaurlaritzako gobernuburua transgeneroa edo transexuala izatea | Eusko Jaurlaritzako gobernuburua intersexuala izatea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 98,0 | 97,4 | 97,4 | 96,1 | 94,8 | 94,8 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 97,6 | 97,3 | 96,6 | 95,9 | 93,6 | 93,2 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 97,9 | 97,2 | 97,2 | 96,5 | 95,6 | 95,4 |
| | 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 91,6 | 88,4 | 86,9 | 85,9 | 82,5 | 81,3 |
| Ikasketak | Ikasketarik gabe/ Lehen mailakoak | 92,9 | 90,0 | 89,1 | 87,3 | 84,2 | 83,3 |
| | Bigarren mailakoak/ Oinarrizkoak | 97,6 | 96,8 | 95,8 | 95,8 | 94,2 | 93,4 |
| | Goi-mailakoak | 98,6 | 98,9 | 98,9 | 98,6 | 97,8 | 97,8 |
| Erlijio-sinesmenak | Katolikoa | 95,5 | 93,3 | 92,8 | 91,4 | 88,6 | 88,0 |
| | Agnostikoa/ateoa | 98,7 | 98,7 | 98,3 | 98,1 | 97,2 | 97,2 |
| | Beste erlijio batekoa | 89,0 | 86,7 | 83,1 | 82,9 | 80,5 | 77,1 |
| Jatorria | Espainia | 96,6 | 95,4 | 94,8 | 94,3 | 92,4 | 92,0 |
| | Atzerritarra | 92,8 | 91,2 | 89,8 | 87,7 | 84,7 | 83,2 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 97,8 | 97,8 | 97,8 | 97,8 | 97,5 | 97,8 |
| | Zentro-ezkertiarra | 97,5 | 96,7 | 95,9 | 94,7 | 93,4 | 91,9 |
| | Zentro-eskuinekoa / eskuinekoa | 95,4 | 92,5 | 90,4 | 91,1 | 88,6 | 88,2 |
| Estatusa | Baxua eta ertain-baxua | 90,0 | 87,7 | 87,4 | 83,7 | 79,1 | 77,4 |
| | Ertaina | 94,7 | 93,5 | 91,7 | 92,9 | 92,2 | 90,5 |
| | Ertain-altua eta altua | 99,2 | 99,2 | 98,9 | 97,7 | 96,1 | 95,8 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*12. G. Lan-eremuan. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?*

## Hezkuntza-eremua

Hezkuntza-eremuari dagokionez, EAEko biztanleei galdetu diegu, alde batetik, zenbateraino onartzen duten LGTBI pertsonak irakasle eta ikasle izatea, eta, bestetik, sexu- eta genero-aniztasuna integratzea irakasleek etengabeko prestakuntza izan behar duten irakasgai gisa. Era berean, ikuspegi orokorragoan, galdetu diegu zenbateraino onartzen duten ikastetxean, hezkuntzari dagokionez, pertsona guztien aukera-berdintasuna eta aniztasunaren trataera bermatzeko ahalegina egitea.

Lanaren eta botere publikoaren eremuan bezala, eta lehen aipatutakoarekin bat etorriz (ikus 6. grafikoa), hezkuntza-eremuan ere onarpen positibo handia dago, % 90etik gorakoa, egindako baieztapen guztien aldean (30. grafikoa). Bestalde, planteatutako baieztapenekin ados ez dauden pertsonen tasa oso txikia izan arren, errezelo handiagoak ageri dira seme-alaben irakaslea transgeneroa denean (% 7,4 gaizki edo oso gaizki, eta % 5,9 lesbiana, gay edo bisexuala denean).

**30. grafikoa. LGTBI kolektiboarekin eta sexu- eta genero-aniztasunarekin zerikusia duten hainbat egoeraren onarpen-maila hezkuntzaren eremuan** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*13. G. Hezkuntza-eremuan. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?*

Datuak sexuaren/generoaren arabera bereiztean (27. taula), ikusi dugu emakumeek onarpen-maila askoz ere handiagoa dutela LGTBI kolektiboari eta sexu- eta genero-aniztasunari buruzko baieztapen guztiei dagokienez.

**27. taula. LGTBI kolektiboarekin eta sexu- eta genero-aniztasunarekin zerikusia duten hainbat egoera hezkuntza-eremuan ongi edo oso ongi iruditzen zaizkien pertsonen ehunekoa, sexuaren/generoaren arabera** (%)

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| Nire seme-alaben ikastetxean, hezkuntzari dagokionez, pertsona guztien aukera-berdintasuna eta aniztasunaren trataera bermatzeko ahalegina egitea | 96,0 | 97,4 | 94,5 |
| Hezkuntzan, sexu, identitate- eta genero-adierazpen aniztasunaren arloan irakasleen prestakuntza iraunkorra bermatzea. | 95,2 | 97,3 | 92,8 |
| Nire seme-alabek gelan LGTBI kolektiboko lagunak izatea | 94,9 | 96,4 | 93,3 |
| Nire seme-alab(ar)en irakaslea homosexuala izatea (lesbiana, gay edo bisexuala) | 93,2 | 94,9 | 91,3 |
| Nire seme-alab(ar)en irakaslea intersexuala izatea | 91,3 | 93,4 | 89,1 |
| Nire seme-alab(ar)en irakaslea transexuala/transgeneroa izatea | 90,8 | 92,6 | 88,9 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*13. G. Hezkuntza-eremuan Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?*

28. taulan ikus daitekeenez, onarpen-maila neurritsuagoak dituzten biztanleria-segmentuak honako hauek dira: adin handienekoak, ikasketa txikienak dituztenak, erlijiosoak, atzerritarrak, ideologikoki eskuinekoak/zentro-eskuinekoak eta estatus sozioekonomiko ertain-baxukoak eta baxukoak.

**28. taula. Sexu- eta genero-aniztasunarekin eta LGTBI kolektiboarekin zerikusia duten hainbat egoera hezkuntza-eremuan ongi edo oso ongi iruditzen zaizkien pertsonen ehunekoa, beste ezaugarri soziodemografiko batzuen arabera** (%)

| | | Hezkuntzan, sexu, identitate- eta genero-adierazpen aniztasunaren arloan irakasleen prestakuntza iraunkorra bermatzea. | Nire seme-alab(ar)en irakaslea homosexuala izatea (lesbiana, gay edo bisexuala) | Nire seme-alab(ar)en irakaslea transexuala/ transgeneroa izatea | Nire seme-alab(ar)en irakaslea intersexuala izatea | Nire seme-alabek gelan LGTBI kolektiboko lagunak izatea | Nire seme-alaben ikastetxean, hezkuntzari dagokionez, pertsona guztien aukera-berdintasuna eta aniztasunaren trataera bermatzeko ahalegina egitea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 94,8 | 95,4 | 94,1 | 95,4 | 96,1 | 96,7 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 95,6 | 95,6 | 92,9 | 93,5 | 96,6 | 97,3 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 97,7 | 96,8 | 95,6 | 95,6 | 97,5 | 97,2 |
| | 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 91,9 | 85,3 | 80,3 | 81,6 | 89,4 | 93,1 |
| Ikasketak | Ikasketarik gabe/Lehen mailakoak | 93,8 | 87,5 | 83,5 | 84,2 | 90,4 | 93,3 |
| | Bigarren mailakoak/ Oinarrizkoak | 94,5 | 95,0 | 92,9 | 93,2 | 96,3 | 96,6 |
| | Goi-mailakoak | 97,5 | 98,4 | 97,3 | 97,8 | 98,9 | 98,9 |
| Erlijio-sinesmenak | Katolikoa | 95,8 | 92,2 | 88,2 | 89,7 | 94,1 | 96,0 |
| | Agnostikoa/ateoa | 97,8 | 98,9 | 98,3 | 98,1 | 99,1 | 99,4 |
| | Beste erlijio batekoa | 74,7 | 67,5 | 67,5 | 65,1 | 79,3 | 78,0 |
| Jatorria | Espainia | 96,5 | 94,7 | 92,3 | 92,9 | 95,8 | 97,2 |
| | Atzerritarra | 84,8 | 80,6 | 79,0 | 79,0 | 88,4 | 87,0 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 97,9 | 99,6 | 99,3 | 98,9 | 99,6 | 99,6 |
| | Zentro-ezkertiarra | 97,7 | 95,9 | 93,9 | 94,9 | 97,2 | 98,0 |
| | Zentro-eskuinekoa / eskuinekoa | 91,8 | 87,6 | 84,0 | 84,3 | 90,4 | 91,5 |
| Estatusa | Baxua eta ertain-baxua | 91,0 | 84,3 | 80,3 | 82,7 | 89,0 | 91,4 |
| | Ertaina | 94,0 | 92,2 | 89,9 | 89,3 | 92,8 | 95,8 |
| | Ertain-altua eta altua | 99,2 | 99,2 | 97,3 | 98,5 | 99,6 | 100,0 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*13. G. Hezkuntza-eremuan. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?*

## Gizarte-harremanak

EAEko biztanleek LGTBI kolektiboarekiko gizarte-harremanen eremuan dituzten jarrerak ezagutzeko, zortzi baieztapen eman dizkiegu horiekin zenbateraino dauden ados adieraz dezaten. Baieztapen horiek LGTBI pertsonekiko elkarrekintza eta lotura sozial askotarikoak dakartzaten egoerak aipatzen dituzte, familiaren eta adiskidetasunaren testuinguruaren errealitatea ukituz, bai eta, kasuren batean, elkarrekintza-esparru komunitarioa ere. Kasu guztietan, adostasun-maila oso handiak aurkitu ditugu, eta horrek erakusten du euskal gizartearen gehiengoa irekia eta tolerantea dela alde horretatik.

31. grafikoak erakusten duenez, LGTBI pertsona bat bizi den auzo edo etxe-multzo berean bizitzea da ehunekoetan onarpen positibo handiena izan duena (% 38,6 oso ongi eta % 57,8 ongi).

% 90etik gorakoa da, halaber, norberaren familia-testuinguruan LGTBI pertsonekiko adiskidetasunezko harremana partekatzea onartzen duten biztanleen ehunekoa, bai norberak bai bere seme-alabek izan dezaketena.

Era berean, EAEko biztanleen % 90ek modu positiboan onartzen du LGTBIko pertsona batek afektua agertzea jendaurrean. Datu horren irakurketa positiboa egin badezakegu ere, ez da gutxietsi behar EAEko hamar lagunetik bat ez dagoela horren alde argi eta garbi, adierazpen negatiborik handiena duen baieztapenetako bat baita (% 6,6 gaizki eta % 2,2 oso gaizki).

Era berean, onarpen-maila oso handia bada ere, ikusi da zertxobait txikiagoa dela (% 89) alabak lesbiana, bisexuala, transexuala edo transgeneroa dela adieraztearekin ados dagoen ehunekoa.

Trans pertsonak sentitzen duten sexu- edo genero-identitatearen arabera sartzea aldageletan eta komunetan baieztapenari dagokionez, EAEko biztanleen % 85,9k ongi edo oso ongi ikusten du; % 9,1, berriz, aurka dago (% 6,1 gaizki eta % 3 oso gaizki).

**31. grafikoa. LGTBI kolektiboarekin zerikusia duten hainbat egoeraren onarpen-maila gizarte-harremanen eremuan** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*14. G. Harreman sozialen eremuan. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?*

29. taulak agerian uzten du emakumeek gizonek baino onarpen positibo askoz handiagoa dutela proposatutako baieztapen guztiei dagokienez. Azpimarratu behar da gizonei gehiago axola zaiela jakitea LGTBI pertsonekiko adiskidetasuna dutela eta gutxiago onartzen dutela pertsona horiek jendaurrean afektua erakustea, bai eta alabak LGTBI dela adieraztea eta pertsona transexualak eta transgeneroak aldageletan eta komunetan identifikatzen diren genero-identitatearen arabera sartzea ere.

**29. taula. LGTBI kolektiboarekin zerikusia duten hainbat egoera gizarte-harremanen eremuan ongi edo oso ongi iruditzen zaizkien pertsonen ehunekoa, sexuaren/generoaren arabera** (%)

| | Guztira | | Emakumeak | | Gizonak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Oso ongi | Ongi | Oso ongi | Ongi | Oso ongi | Ongi |
| LGTBI pertsona bat bizi den auzo edo etxe-multzo berean bizitzea | 38,6 | 57,8 | 41,0 | 55,7 | 36,1 | 60,1 |
| Zure seme-alabek LGTBI lagunak eramatea etxera | 38,0 | 56,0 | 38,8 | 56,0 | 37,0 | 56,0 |
| Nire senideek lesbiana, LGTBI edo bisexualen adiskidea naizela jakitea | 37,8 | 56,7 | 39,8 | 55,9 | 35,8 | 57,5 |
| Nire senideek pertsona transgenero edo transexualen adiskidea naizela jakitea | 37,7 | 55,3 | 39,8 | 53,9 | 35,4 | 56,8 |
| Nire senideek pertsona intersexualen adiskidea naizela jakitea | 37,4 | 55,5 | 38,9 | 54,6 | 35,7 | 56,5 |
| LGTBI pertsona batek maitasun keinuren bat agertzea jendaurrean (musuak, besarkadak, eskutik joatea…) | 36,8 | 53,2 | 39,1 | 52,1 | 34,3 | 54,4 |
| Zure seme-alabak gay, lesbiana, bisexuala, transexuala edo transgeneroa dela adieraztea | 35,1 | 53,9 | 36,1 | 54,2 | 34,0 | 53,5 |
| Transexualak eta transgeneroak sentitzen duten genero-identitatearen arabera sartzea aldageletan eta komunetan | 34,4 | 51,5 | 36,4 | 50,6 | 32,2 | 52,6 |
| LGTBI pertsona bat bizi den auzo edo etxe-multzo berean bizitzea | 38,6 | 57,8 | 41,0 | 55,7 | 36,1 | 60,1 |
| Zure seme-alabek LGTBI lagunak eramatea etxera | 38,0 | 56,0 | 38,8 | 56,0 | 37,0 | 56,0 |
| Nire senideek lesbiana, gay edo bisexualen adiskidea naizela jakitea | 37,8 | 56,7 | 39,8 | 55,9 | 35,8 | 57,5 |
| Nire senideek pertsona transgenero edo transexualen adiskidea naizela jakitea | 37,7 | 55,3 | 39,8 | 53,9 | 35,4 | 56,8 |
| Nire senideek pertsona intersexualen adiskidea naizela jakitea | 37,4 | 55,5 | 38,9 | 54,6 | 35,7 | 56,5 |
| LGTBI pertsona batek maitasun keinuren bat agertzea jendaurrean (musuak, besarkadak, eskutik joatea…) | 36,8 | 53,2 | 39,1 | 52,1 | 34,3 | 54,4 |
| Zure seme-alabak gay, lesbiana, bisexuala, transexuala edo transgeneroa dela adieraztea | 35,1 | 53,9 | 36,1 | 54,2 | 34,0 | 53,5 |
| Transexualak eta transgeneroak sentitzen duten genero-identitatearen arabera sartzea aldageletan eta komunetan | 34,4 | 51,5 | 36,4 | 50,6 | 32,2 | 52,6 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*14. G. Harreman sozialen eremuan. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?*

30. taulan ikus daitekeenez, onarpen-maila neurritsuagoak dituzten biztanleria-segmentuak dira, oraingoan ere, adin handienekoak, ikasketa txikienak dituztenak, erlijiosoak, atzerritarrak, ideologikoki eskuinekoak/zentro-eskuinekoak direnak eta estatus sozioekonomiko ertain-baxukoak eta baxukoak.

**30. taula. LGTBI kolektiboarekin zerikusia duten hainbat egoera gizarte-harremanen eremuan ongi edo oso ongi iruditzen zaizkien pertsonen ehunekoa, beste ezaugarri soziodemografiko batzuen arabera (%)**

| | | LGTBI pertsona bat bizi den auzo edo etxe-multzo berean bizitzea | Nire senideek lesbiana, gay edo bisexualen adiskidea naizela jakitea | Nire senideek pertsona transgenero edo transexualen adiskidea naizela jakitea | Nire senideek pertsona intersexualen adiskidea naizela jakitea | LGTBI pertsona batek maitasun keinuren bat agertzea jendaurrean (musuak, besarkadak, eskutik joatea…) | Transexualak eta transgeneroak sentitzen duten genero-identitatearen arabera sartzea aldageletan eta komunetan | Zure seme-alabak gay, lesbiana, bisexuala, transexuala edo transgeneroa dela adieraztea | Zure seme-alabek LGTBI lagunak eramatea etxera |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 96,7 | 96,1 | 95,4 | 95,4 | 96,1 | 93,5 | 94,1 | 95,4 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 96,6 | 96,3 | 95,6 | 94,6 | 93,5 | 89,2 | 92,9 | 96,6 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 97,7 | 96,5 | 95,8 | 96,3 | 94,2 | 89,1 | 93,3 | 97,0 |
| | 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 94,4 | 89,7 | 85,9 | 85,3 | 78,4 | 75,3 | 77,1 | 86,9 |
| Ikasketak | Ikasketarik gabe/ Lehen mailakoak | 94,2 | 89,5 | 86,6 | 86,2 | 82,8 | 75,7 | 80,4 | 89,1 |
| | Bigarren mailakoak/ Oinarrizkoak | 96,1 | 95,8 | 95,0 | 95,3 | 91,6 | 88,2 | 91,1 | 96,1 |
| | Goi-mailakoak | 99,2 | 98,9 | 98,6 | 98,1 | 96,7 | 95,9 | 97,0 | 97,8 |
| Erlijio-sinesmenak | Katolikoa | 97,4 | 94,2 | 92,2 | 92,5 | 88,0 | 83,8 | 85,8 | 93,3 |
| | Agnostikoa/ateoa | 98,3 | 99,1 | 98,3 | 97,6 | 98,1 | 92,7 | 97,0 | 98,3 |
| | Beste erlijio batekoa | 78,0 | 70,7 | 69,9 | 68,3 | 61,4 | 63,4 | 66,3 | 74,7 |
| Jatorria | Espainia | 97,5 | 96,2 | 94,6 | 94,4 | 92,0 | 87,6 | 90,8 | 95,3 |
| | Atzerritarra | 89,1 | 81,9 | 81,0 | 80,3 | 73,9 | 73,2 | 75,2 | 83,9 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 98,9 | 99,3 | 97,8 | 98,6 | 98,2 | 94,3 | 96,4 | 98,9 |
| | Zentro-ezkertiarra | 98,7 | 96,9 | 96,7 | 95,9 | 92,4 | 86,3 | 92,1 | 96,2 |
| | Zentro-eskuinekoa / eskuinekoa | 94,3 | 89,0 | 86,5 | 86,8 | 81,1 | 77,9 | 82,3 | 87,9 |
| Estatusa | Baxua eta ertain-baxua | 91,7 | 87,7 | 85,3 | 84,7 | 79,0 | 74,4 | 75,7 | 85,7 |
| | Ertaina | 97,6 | 95,2 | 94,0 | 93,5 | 90,5 | 85,1 | 89,9 | 95,2 |
| | Ertain-altua eta altua | 99,2 | 100,0 | 99,2 | 99,6 | 96,5 | 91,9 | 95,0 | 99,6 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*14. G. Harreman sozialen eremuan. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?*

## Arauen eta legeen eremua

Esparru instituzionalagoari eta administrazio publikoari lotutako eskubideei dagokienez, lesbianek eta gayek ezkontzeko eta familiak seme-alabekin sortzeko duten eskubideari buruz EAEko biztanleek duten onarpen-maila kontsultatu dugu. Bestalde, Administrazioarekin harremanetan jartzerakoan nork bere genero-identitatea baliarazteari buruz ere galdetu dugu, bai eta administrazioak arau orokor gisa bere dokumentu ofizialetan “gizona” eta “emakumea” baino genero-aukera gehiago jasotzeari buruz ere.

Hala, oro har, esan daiteke euskal gizartea oso irekia dagoela planteatutako kasu guztietara, eta oso onarpen-portzentaje handiak dituela, % 80tik gorakoak kasu guztietan.

32. grafikoan ikusten denez, onarpen positiboaren ehunekorik handiena lesbianen eta gayen ezkontzeko eskubideak izan du (% 92,6); eskubide hori legez arautua dago Espainiako Estatuan 2005az geroztik, eta ehuneko bost puntu baino gehixeago ditu familiak seme-alabekin sortzeko eskubidearen onarpen-mailaren gainetik (% 87), adopzio bidez edo beste bide batzuen bidez, eta hori ere legez arautua dago.

**32. grafikoa. LGTBI kolektiboarekin zerikusia duten zenbait egoeren onarpen-maila administrazio publikoaren eremuan** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*15. G. Administrazio publikoaren eremuan. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?*

EAEko biztanleen % 91,4k positiboki onartzen du nork bere genero-identitatea errespetatzea Administrazio publikoaren arreta jasotzean. Onarpen positiboaren ehuneko horrek behera egiten du pixka bat pertsona trans batek bere izena eta dokumentazioa aldatzeko aukera izatea planteatzean (% 90,9). Hala ere, ikusi dugu onarpen-maila positiboa askoz txikiagoa dela dokumentazio ofizialean

berez ohiko “gizona” eta “emakumea” baino genero-aukera gehiago sartzeko aukeraren aldean (% 82,2)[11].

Kasu horretan, estatistikoki ez da alde handirik nabari emakumeen eta gizonen erantzunen artean (31. taula). Alde nabarmenak daude, ordea, adinaren, ikasketa-mailaren, erlijio-sinesmenen, jatorriaren, ideologiaren eta estatus sozioekonomikoaren arabera (32. taula). Alde horiek, beste batzuetan bezala, berriz ere indartzen dute lehen adierazi dugun joera, hauxe da, LGTBI kolektiboaren eskubideen eta sexu- eta genero-aniztasunaren aldeko jarrera handiagoa dutela gazteenek, ikasketa handienak dituztenek, agnostiko/ateo deklaratuek, bertakoek, ezkertiarrek edo zentro-ezkertiarrek eta estatus ekonomikoko ertain-altua eta altua dutenek.

**31. taula. LGTBI kolektiboarekin zerikusia duten hainbat egoera administrazio publikoaren eremuan ongi edo oso ongi iruditzen zaizkien pertsonen ehunekoa, sexuaren/generoaren arabera** (%)

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| Sexu bereko bi pertsona ezkondu ahal izatea | 92,6 | 93,3 | 91,9 |
| Pertsonak zer generokoak sentitzen diren, horren araberako arreta jasotzea administrazio publikoan | 91,4 | 92,0 | 90,7 |
| Gizon moduan jaio eta emakume sentitzen den pertsona batek bere izena eta dokumentazioa aldatu ahal izatea emakume moduan tratatua izateko (edo alderantziz) | 90,9 | 91,1 | 90,7 |
| Homosexualek haurrak eduki edo adoptatu ahal izatea | 87,0 | 86,2 | 88,1 |
| Agiri ofizialetan, hala nola pasaporte edo jaiotza-agirietan, generoan hirugarren aukera bat izatea, “gizona edo emakumea” aukerez aparte | 82,2 | 82,2 | 82,2 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*15. G. Administrazio publikoaren eremuan. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?*

[11] Joera horrek erakusten du norbanakoen eskubideak gehiago onartzen direla sistema baten funtzionamendu orokorra aldatzeko aukera baino, eta bat dator Wendy Brown filosofoaren teorizazioekin, diskriminazioa norbanakoaren arazo gisa (despolitizatua) ulertzeko ikusmolde neoliberalari dagokionez, nagusi den ordena soziala eta politikoa aldatu gabe konpontzeko, hau da, egiturazko ekintza eraldatzailea baztertuz. Horri buruz, ikus, adibidez: Brown, Wendy. (2006). *Regulating Aversion: Tolerance in the Age of Identity and Empire*, Princeton University Press, Princeton.

**32. taula. LGTBI kolektiboarekin zerikusia duten hainbat egoera administrazio publikoaren eremuan ongi edo oso ongi iruditzen zaizkien pertsonen ehunekoa, beste ezaugarri soziodemografiko batzuen arabera** (%)

| | | Sexu bereko bi pertsona ezkondu ahal izatea | Homosexualek haurrak eduki edo adoptatu ahal izatea | Gizon moduan jaio eta emakume sentitzen den pertsona batek bere izena eta dokumentazioa aldatu ahal izatea emakume moduan tratatua izateko (edo alderantziz) | Pertsonak zer generokoak sentitzen diren, horren araberako arreta jasotzea administrazio publikoan | Agiri ofizialetan, hala nola pasaporte edo jaiotza-agirietan, generoan hirugarren aukera bat izatea, “gizona edo emakumea” aukerez aparte |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 94,1 | 92,8 | 94,8 | 94,8 | 91,5 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 94,2 | 93,2 | 93,2 | 94,6 | 85,7 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 95,8 | 91,0 | 94,0 | 94,4 | 84,0 |
| | 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 86,5 | 73,4 | 83,4 | 83,1 | 72,5 |
| Ikasketak | Ikasketarik gabe/Lehen mailakoak | 87,3 | 77,2 | 84,2 | 84,6 | 71,7 |
| | Bigarren mailakoak/Oinarrizkoak | 92,9 | 89,2 | 91,8 | 92,9 | 82,7 |
| | Goi-mailakoak | 98,6 | 96,5 | 98,1 | 98,1 | 94,5 |
| Erlijio-sinesmenak | Katolikoa | 92,2 | 84,4 | 89,9 | 90,2 | 77,6 |
| | Agnostikoa/ateoa | 99,4 | 97,0 | 97,9 | 98,1 | 94,2 |
| | Beste erlijio batekoa | 56,6 | 49,4 | 58,5 | 62,7 | 50,6 |
| Jatorria | Espainia | 95,3 | 89,8 | 93,5 | 93,4 | 84,6 |
| | Atzerritarra | 72,5 | 65,9 | 71,5 | 75,4 | 64,2 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 98,9 | 97,1 | 96,4 | 97,5 | 92,1 |
| | Zentro-ezkertiarra | 96,7 | 93,6 | 96,4 | 96,2 | 88,0 |
| | Zentro-eskuinekoa / eskuinekoa | 86,1 | 73,6 | 83,3 | 84,0 | 72,2 |
| Estatusa | Baxua eta ertain-baxua | 87,0 | 78,4 | 82,7 | 83,3 | 70,0 |
| | Ertaina | 92,9 | 89,3 | 92,3 | 91,7 | 82,7 |
| | Ertain-altua eta altua | 96,6 | 95,4 | 96,9 | 98,5 | 85,4 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*15. G. Administrazio publikoaren eremuan. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?*

## LGTBI kolektiboarekiko jarrerak osasunaren arloan

Osasunaren arloari dagokionez, LGTBI pertsonen kolektibo heterosexualarekiko aukera-berdintasunari buruz galdetu diegu EAEko biztanleei, bai eta sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako zerbitzuak eta tratu espezifikoa izateari buruz ere.

33. grafikoan ikus daitekeenez, oro har, EAEko biztanleek onarpen-maila handiak erakutsi dituzte kasu guztietan, % 85etik gora. Onarpen positiboa oso handia da izaera orokorreko baieztapenak planteatzen direnean, eta puntu batzuk murrizten dira agertoki zehatzak eta bi zerbitzu espezifiko eskuratzeari

buruz galdetzen zaienean. Hala, osasun-tratamenduak eta -zerbitzuak gainerakoen baldintza beretan eskuratzea eskubide unibertsaltzat hartzen da, % 99,1ek uste baitu LGTBI pertsonek zerbitzu hori izateko aukera eduki behar dutela, baina onarpen-maila % 86,8ra jaisten da laguntza bidezko ugalketa pertsona heterosexualen baldintza beretan eta Osasun Sistema Publikoan sexua berriro esleitzeko eskubidea izateari buruz hitz egiten dugunean, balio oso handia bada ere. Laguntza bidezko ugalketa zerbitzua izateko eskubideari dagokionez, % 49,2k ongi ikusten du, eta % 43,5ek oso ongi. Osasun Sistema Publikoan sexua berriro esleitzeari dagokionez, % 45,2k ongi ikusten du, eta % 41,6k oso ongi. Hala ere, eskubide hori izatea da ehunekoetan balorazio negatiborik handiena duena, % 7,4k gaizki ikusten baitu eta % 3,5ek oso gaizki.

**33. grafikoa. LGTBI kolektiboarekin zerikusia duten hainbat egoeraren onarpen-maila osasunaren eremuan** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*16. G. Osasun-sistemaren eremuan. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?*

Estatistikoki ez dago alde nabarmenik emakumeen eta gizonen erantzunen artean (33. taula). Era berean, beste aldagai soziodemografiko batzuen araberako desberdintasunak ere ez dira aurreko kasuetan bezain argiak. Hala eta guztiz ere, horrekin guztiarekin, esan behar da, oro har, onarpen positiboko maila apalagoak adierazi dituztenak direla, berriro ere, adin handienekoak, ikasketa txikienak dituztenak, erlijiosoak, atzerritarrak, ideologikoki eskuinekoak/zentro-eskuinekoak direnak eta estatus sozioekonomiko ertain-baxua eta baxua dutenak (34. taula).

**33. taula. LGTBI kolektiboarekin zerikusia duten hainbat egoera osasunaren eremuan ongi edo oso ongi iruditzen zaizkien pertsonen ehunekoa, sexuaren/generoaren arabera** (%)

| LGTBI pertsonek | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| pertsona heterosexualen baldintza beretan jaso ditzatela osasun-tratamenduak eta -zerbitzuak | 99,1 | 98,9 | 99,4 |
| tratamendu egokia jaso dezatela sexu- eta ugalketa-osasunari dagokienean | 95,5 | 96,2 | 94,9 |
| beren sexu- edo genero-identitatearen araberako trataera jaso dezatela ospitaleratze kasuetan | 94,6 | 95,8 | 93,4 |
| pertsona heterosexualen baldintza beretan izan dezatela laguntza bidezko ugalketa jasotzeko aukera | 92,7 | 93,7 | 91,7 |
| LGTBI pertsonek Osasun Sistema Publikoan sexua berriro esleitzeko eskubidea izan dezatela | 86,8 | 88,0 | 85,6 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*16. G. Osasun-sistemaren eremuan. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?*

**34. taula. LGTBI kolektiboarekin zerikusia duten hainbat egoera osasunaren eremuan ongi edo oso ongi iruditzen zaizkien pertsonen ehunekoa, beste ezaugarri soziodemografiko batzuen arabera** (%)

| LGTBI pertsonek | | pertsona heterosexualen baldintza beretan jaso ditzatela osasun-tratamenduak eta -zerbitzuak | tratamendu egokia jaso dezatela sexu- eta ugalketa-osasunari dagokienean | beren sexu- edo genero-identitatearen araberako trataera jaso dezatela ospitaleratze kasuetan | pertsona heterosexualen baldintza beretan izan dezatela laguntza bidezko ugalketa jasotzeko aukera | Osasun Sistema Publikoan sexua berriro esleitzeko eskubidea izan dezatela |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 98,0 | 95,4 | 96,1 | 94,1 | 91,5 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 99,3 | 96,6 | 96,3 | 94,9 | 90,2 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 99,5 | 97,4 | 96,5 | 95,4 | 89,8 |
| | 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 99,1 | 92,2 | 89,7 | 86,3 | 77,8 |
| Ikasketak | Ikasketarik gabe/Lehen mailakoak | 98,7 | 92,7 | 90,2 | 86,6 | 78,1 |
| | Bigarren mailakoak/Oinarrizkoak | 99,2 | 95,5 | 95,5 | 94,2 | 88,2 |
| | Goi-mailakoak | 99,5 | 98,9 | 99,2 | 98,1 | 95,9 |
| Erlijio-sinesmenak | Katolikoa | 99,2 | 95,0 | 93,9 | 91,6 | 84,4 |
| | Agnostikoa/ateoa | 99,8 | 98,7 | 99,4 | 97,9 | 94,0 |
| | Beste erlijio batekoa | 96,3 | 81,7 | 73,5 | 72,0 | 65,1 |
| Jatorria | Espainia | 99,6 | 96,8 | 96,1 | 94,3 | 88,8 |
| | Atzerritarra | 95,7 | 85,5 | 83,9 | 80,4 | 71,7 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 99,6 | 98,9 | 98,9 | 99,3 | 97,1 |
| | Zentro-ezkertiarra | 100,0 | 97,0 | 97,2 | 95,9 | 89,8 |
| | Zentro-eskuinekoa / eskuinekoa | 97,5 | 92,5 | 89,7 | 85,1 | 77,1 |
| Estatusa | Baxua eta ertain-baxua | 99,0 | 89,3 | 86,7 | 83,4 | 79,4 |
| | Ertaina | 98,8 | 96,4 | 94,6 | 94,1 | 86,8 |
| | Ertain-altua eta altua | 100,0 | 99,2 | 100,0 | 98,1 | 88,8 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*16. G. Osasun-sistemaren eremuan. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia?*

# LGTBI kolektiboarekiko diskriminazioaren pertzepzioa

Atal honetan, EAEko biztanleek LGTBI kolektiboarekiko diskriminazioari buruz dituzten pertzepzioak aztertuko ditugu. Bi zentzutan egingo dugu; alde batetik, EAEko biztanleen balorazioak jasoko ditugu, oro har gizarte-bizitzako hainbat eremutan LGTBI kolektiboarekiko diskriminazioa (neurri handiagoan edo txikiagoan) gertatzen den ala ez. Bestalde, LGTBI pertsonenganako diskriminazio-esperientzietan jarriko dugu arreta, sexu-orientazioagatik eta/edo sexu- edo genero-identitateagatik, pertsona bakoitzak bere bizitzan zehar berariaz ezagutu dituen esperientziak, eta bereizi egingo dugu ezagutza hori diskriminazio-egoera bat entzun duelako edo ikusi duelako izan den –zeharkako diskriminazioa– edo diskriminazioa lehen pertsonan jasan duen –zuzeneko diskriminazioa–.

## LGTBI kolektiboaren diskriminazio-egoerari buruzko pertzepzioa hainbat eremutan

Datuen arabera, EAEko biztanle gehienek ez dute uste LGTBI kolektiboak diskriminazio handia edo dezente jasaten duenik kontsultatutako eremuetan (34. grafikoa).

LGTBI kolektiboarekiko diskriminazio handia edo nahiko handia dagoela gehien aipatu den eremua lan-arloa da, biztanleen % 31k hala uste baitu. Ondoren datoz familiaren eremuko diskriminazioa (% 20,5), hezkuntza-eremukoa (% 15,5), poliziaren tratua (% 13,7), gizartean eta/edo politikan parte hartzeko aukera (% 13,5), aisialdiko, kulturako eta kiroletako eremukoa (% 13,2), eremu publikoetakoa oro har (% 12) eta auzoan eta komunitatean gertatzen dena (% 11,7).

EAEko biztanleen % 10ek baino gutxiagok uste dute LGTBI pertsonek diskriminazio handia edo dezente jasaten dutela Administrazio Publikoan (% 8,7), lagunen edo pertsona ezagunen testuinguruan (% 7,7), garraio publikoan (% 6,1) eta osasunaren eremuan (% 5,9).

Nabarmentzekoa da, oro har, emakumeek gizonek baino gehiago nabaritzen dutela LGTBI kolektiboarekiko diskriminazio handia edo nahiko handia dagoela, batez ere lan-eremuan (% 34,5 vs. % 27) (35. taula). Alderdi horretan ere diskriminazioaren pertzepzio-maila handienak dituztenak dira gazteenak, ikasketa handienak dituztenak, agnostiko/ateo deklaratuak, bertakoak eta ezkertiarrak (36. taula).

**34. grafikoa. LGTBI kolektiboaren diskriminazio-egoerari buruzko pertzepzioa hainbat eremutan**




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*11. G. Zure ustez, LGTBI kolektiboko pertsonak baztertu egiten dira esparru eta leku hauetan?*

**35. taula. LGTBI kolektiboa hainbat eremutan oso/nahiko diskriminatua dagoela uste duten pertsonen ehunekoa, sexuaren/generoaren arabera** (%)

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| Lan-eremuan (lana eskuratzea eta lanbidean aurrera egitea) | 31,0 | 34,5 | 27,0 |
| Familiaren eremuan (familia-harremanak, familia-unitate berriak sortzea, adopzioa…) | 20,5 | 22,7 | 18,2 |
| Hezkuntza-eremuan (hezkuntza formala eta ez-formala) | 15,5 | 17,1 | 13,7 |
| Poliziaren trataeran | 13,7 | 14,6 | 12,9 |
| Parte-hartze soziala edota politikoa izateko aukeretan | 13,5 | 15,1 | 11,7 |
| Aisialdiko, kulturako eta kiroletako eremuetan | 13,2 | 13,5 | 12,7 |
| Gune publikoetan (kalea, jatetxeak, plazak, dendak…) | 12,0 | 13,9 | 10,0 |
| Auzoan edo komunitatean | 11,7 | 13,8 | 9,5 |
| Administrazio publikoaren eremuan (arreta-bulegoak, gizarte-zerbitzuak, polizia, epaitegiak…) | 8,7 | 9,8 | 7,5 |
| Lagunen eta ezagunen artean | 7,7 | 8,1 | 7,3 |
| Garraio publikoan | 6,1 | 7,2 | 4,8 |
| Osasunaren eremuan (osasun-zerbitzua izatea eta jasotzea) | 5,9 | 7,5 | 4,2 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*11. G. Zure ustez, LGTBI kolektiboko pertsonak baztertu egiten dira esparru eta leku hauetan?*

**36. taula. LGTBI kolektiboa hainbat eremutan oso/nahiko diskriminatua dagoela uste duten pertsonen ehunekoa, beste ezaugarri soziodemografiko batzuen arabera (%)**

| | | Lanean | Familian | Lagunen eremuan | Hezkuntzan | Osasun-eremuan | Auzoan | Eremu publikoetan | Administrazio publikoan | Aisialdian, kulturan eta kirolean | Garraio publikoan | Parte-hartze sozial eta politikoan | Poliziaren trataeran |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 39,2 | 33,3 | 15,7 | 25,5 | 8,5 | 17,0 | 20,9 | 16,2 | 22,2 | 11,1 | 25,5 | 25,5 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 28,5 | 22,4 | 9,5 | 20,3 | 7,5 | 15,9 | 13,6 | 10,2 | 15,3 | 6,8 | 16,7 | 17,3 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 33,3 | 20,6 | 7,2 | 14,1 | 5,8 | 10,9 | 11,1 | 7,4 | 12,3 | 6,0 | 11,1 | 13,0 |
| | 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 26,0 | 12,5 | 3,1 | 8,1 | 3,4 | 6,6 | 7,5 | 5,6 | 7,8 | 3,4 | 7,8 | 5,9 |
| Ikasketak | Ikasketarik gabe/Lehen mailakoak | 28,3 | 18,1 | 6,5 | 11,2 | 4,0 | 9,6 | 9,6 | 6,5 | 9,8 | 5,4 | 10,9 | 9,6 |
| | Bigarren mailakoak/ Oinarrizkoak | 27,4 | 18,4 | 6,3 | 16,1 | 4,7 | 9,5 | 11,6 | 8,2 | 10,5 | 3,7 | 12,9 | 13,9 |
| | Goi-mailakoak | 37,7 | 25,4 | 10,4 | 20,2 | 9,6 | 16,4 | 15,6 | 12,0 | 19,5 | 9,0 | 16,7 | 18,9 |
| Erlijio-sinesmenak | Katolikoa | 30,0 | 18,8 | 6,8 | 12,3 | 4,7 | 9,0 | 10,0 | 7,3 | 10,1 | 5,1 | 10,3 | 10,6 |
| | Agnostikoa/ateoa | 35,3 | 25,2 | 10,6 | 20,9 | 8,8 | 16,3 | 16,1 | 12,0 | 19,6 | 8,2 | 19,8 | 19,8 |
| | Beste erlijio batekoa | 12,0 | 6,1 | 0,0 | 10,8 | 0,0 | 6,0 | 4,9 | 2,4 | 1,2 | 1,2 | 2,4 | 4,9 |
| Jatorria | Espainia | 32,4 | 21,4 | 8,4 | 15,5 | 6,2 | 12,3 | 12,5 | 9,2 | 14,2 | 6,2 | 14,1 | 14,6 |
| | Atzerritarra | 19,6 | 13,9 | 2,9 | 15,1 | 2,9 | 7,3 | 8,0 | 4,3 | 5,1 | 5,1 | 8,8 | 7,2 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 42,7 | 30,5 | 14,0 | 22,9 | 9,7 | 20,1 | 20,9 | 16,9 | 24,4 | 9,3 | 25,1 | 29,0 |
| | Zentro-ezkertiarra | 30,8 | 18,3 | 7,6 | 15,8 | 4,6 | 8,6 | 10,4 | 6,4 | 11,4 | 5,6 | 9,7 | 10,2 |
| | Zentro-eskuinekoa / eskuinekoa | 25,9 | 13,8 | 3,9 | 12,1 | 3,9 | 10,0 | 7,5 | 5,0 | 10,0 | 5,0 | 12,8 | 7,8 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*11. G. Zure ustez, LGTBI kolektiboko pertsonak baztertu egiten dira esparru eta leku hauetan?*

## Zuzeneko eta zeharkako diskriminazio aitortua sexu-orientazioa eta sexu- edo genero-identitatea direla-eta

Ondoren, “diskriminazio aitortua” deritzonari buruz bildutako informazioa aurkeztuko dugu, hau da, pertsonek bizi izan dutela diotena. Bi mota bereizi ditugu: alde batetik, zuzeneko diskriminazioa, pertsonek lehen pertsonan sufritu dutela adierazi dutena, eta, bestetik, zeharkako diskriminazioa, hau da, pertsonek zuzeneko biktima izan gabe ikusi, entzun edo ikusi dutela adierazi dutena.

Ikusi dugun bezala, LGTBI kolektiboarekiko diskriminazio handia edo nahiko handia gertatzen dela hautemateari buruzko ehunekoak oso handiak ez badira ere, aipatzekoa da EAEko biztanleen % 50ek baino gehiagok adierazi duela norbaiti buruz komentario negatiboak edo zurrumurruak entzun edo ikusi dituztela sexu-orientazioa eta/edo sexu- edo genero-identitatea dela-eta (% 59), bai eta isekak, txantxak, txisteak, imitazioak, keinuak… ere (% 53,6). Bestalde, biztanleen % 42,5ek adierazi du irainak entzun edo ikusi dituela (marikoia,

bollera, trabeloa…). Beste % 22k adierazi du ezagutu dituela LGTBI pertsona edo kolektiboa aintzat hartu ez den, parte hartzen utzi ez zaion edo bakartu den egoerak; % 17,9k adierazi du izan duela mehatxuen berri, % 13,5ek eraso fisikoen berri eta % 7,1ek laneko jazarpenaren berri (35. irudia).

Aitzitik, EAEko biztanleen % 32,7k adierazi du inoiz ez duela entzun edo ikusi proposatutako diskriminazio-egoerarik. Gainera, horri dagokionez ez dago alde nabarmenik emakumeen eta gizonen artean (37. taula).

**35. grafikoa. Zeharkako diskriminazio aitortuaren motak sexu-orientazioa eta sexu- edo genero-identitatea direla-eta**




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*18A.G. LGTBI pertsonei buruz ari garela… jakin duzu edo ikusi duzu LGTBI pertsonaren batek honelako bazterketa-egoerarik jasan duen?*

**37. taula. Zeharkako diskriminazio aitortuaren egoerak LGTBI pertsona batekiko, sexuaren/generoaren arabera (%)**

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| Eraso fisikoak (gauzak bota, kolpeak, bultzakadak…) | 13,5 | 12,6 | 14,5 |
| Mehatxuak | 17,9 | 17,5 | 18,3 |
| Irainak: marikoia, bollera, trabeloa… | 42,5 | 41,9 | 43,2 |
| Isekak, txantxak, txisteak, imitazioak, keinuak… inoren aurrean | 53,6 | 50,8 | 56,5 |
| Norbaiti buruzko komentario negatiboak edo zurrumurruak | 59,0 | 57,9 | 60,2 |
| Ez ikusiarena egitea, parte hartzen ez uztea, isolatzea… | 22,0 | 22,7 | 21,2 |
| Laneko jazarpena (*Mobbing*) | 7,1 | 7,5 | 6,6 |
| Bat ere ez | 32,7 | 34,0 | 31,3 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*18A.G. LGTBI pertsonei buruz ari garela… jakin duzu edo ikusi duzu LGTBI pertsonaren batek honelako bazterketa-egoerarik jasan duen?*

Lehen pertsonan jasandako diskriminazioari dagokionez, 36. grafikoan ikus daitekeenez, galdetutako pertsonen % 2,3k adierazi du komentario negatiboak edo zurrumurruak jasan dituela lehen pertsonan, eta % 1etik gorakoa da txantxak edo isekak (% 1,9) eta irainak (% 1,5) jasan dituztela eta zenbait egoeratan ez dituztela aintzat hartu, ez dietela parte hartzen utzi edo isolatuta utzi dituztela (% 1,2) adierazi duten biztanleen ehunekoa. % 0,3k adierazi du eraso fisikoak jasan dituela, % 0,5ek irainak eta % 0,6k laneko jazarpena. Oraingoan ere ez dago alde nabarmenik emakumeen eta gizonen artean (38. taula).

Oso zenbaki txikiak badira ere, esan behar da galdeketa honetan ez zegoela LGTBI kolektiboari dagokion azpilaginik, baizik eta biztanleria orokorrari egin zaiola.

**36. grafikoa. Zuzeneko diskriminazio aitortuaren motak sexu-orientazioa eta sexu- edo genero-identitatea direla-eta** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*18B. G. LGTBI pertsonei buruz ari garela… zure sexu-orientazioa edo genero-identitatea dela eta, honelako egoera baztertzailerik jasan al duzu?*

**38. taula. Zuzeneko diskriminazio aitortuaren egoerak LGTBI pertsona batekiko, sexuaren/generoaren arabera** (%)

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak |
|---|---|---|---|
| Eraso fisikoak (gauzak bota, kolpeak, bultzakadak…) | 0,3 | 0,6 | 0,0 |
| Mehatxuak | 0,5 | 0,6 | 0,3 |
| Irainak: marikoia, bollera, trabeloa… | 1,5 | 1,7 | 1,3 |
| Isekak, txantxak, txisteak, imitazioak, keinuak… inoren aurrean | 1,9 | 2,1 | 1,7 |
| Norbaiti buruzko komentario negatiboak edo zurrumurruak | 2,3 | 2,6 | 2,0 |
| Ez ikusiarena egitea, parte hartzen ez uztea, isolatzea… | 1,2 | 1,2 | 1,1 |
| Laneko jazarpena (*Mobbing*) | 0,6 | 0,7 | 0,5 |
| Bat ere ez | 95,7 | 94,9 | 96,6 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*18B. G. LGTBI pertsonei buruz ari garela… zure sexu-orientazioa edo genero-identitatea dela eta, honelako egoera baztertzailerik jasan al duzu?*

EPADE 2020 inkestaren bidez lortutako emaitzekin alderatuta, ikus daiteke sexu- eta genero-aniztasunarengatik lehen pertsonan jasandako diskriminazioaren ehunekoa, 2021ean aitortu dena, ehuneko 1,5 puntu igo dela 2020. urtearen aldean (% 2,9 vs. % 1,4) (37. grafikoa).

**37. grafikoa. Zuzeneko diskriminazio aitortua sexu- eta genero-aniztasuna dela eta, Neurtu 2021 eta EPADE 2020** (%)




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 eta EPADE 2020 oinarri hartuta.*

*Neurtu 2021: 18B. G. LGTBI pertsonei buruz ari garela… zure sexu-orientazioa edo genero-identitatea dela eta, honelako egoera baztertzailerik jasan al duzu?; EPADE 2020: 37. G. Zein esparru edo egoeratan sentitu zara diskriminatuta, honako hauek direla-eta?*

## Sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI kolektiboarekiko irekitasuna EAEn

Sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI kolektiboarekiko pertzepzioei eta jarrerei eta EAEn duten egungo egoerari buruzko informazioarekin amaitzeko, EAEko biztanleek kolektibo horrekiko duten tolerantzia-maila jaso dugu epigrafe honetan, baita indize sintetiko baten bidez neurtutakoa ere.

0tik 10era bitarteko eskala erabiliz (0 “guztiz intolerantea”, eta 10 “oso tolerantea”), alde batetik, EAEko biztanleek oro har sexu- eta genero-aniztasunarekiko duten tolerantzia-maila jaso dugu; bestetik, bakoitzaren jarrera ere jaso dugu, hau da, EAEko biztanleek sexu- eta genero-aniztasunarekiko lehen pertsonan adierazi duten tolerantzia-maila.

Bestalde, indize sintetiko bat egin dugu, sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasuna. Indize horretan jaso ditugu euskal gizarteak txosten honetan aztertutako galderei emandako erantzunak, eta 0tik 100era aldatzen den adierazle bihurtu ditugu. Adierazle horretan, “0” da sexu- eta genero-aniztasunarekiko erabat itxia, eta “100”, berriz, erabat irekia.

## LGTBI kolektiboarekiko tolerantzia: banakoa eta kolektiboa

38. grafikoan ikus daitekeenez, EAEko biztanleek uste dute LGTBI kolektiboarekiko jarrera pertsonala gizarteak oro har duena baino toleranteagoa dela, bi puntu inguruko aldearekin.

Ez da aldaketa handirik nabari LGTBI pertsonak edo kolektiboak sexu-orientazio ez-heterosexuala badu (lesbiana, gay edo bisexuala), edo trans edo intersexuala bada. Kasu guztietan, euskal biztanleriak gizartearen tolerantzia, oro har, sei puntu inguruan kokatzen du, eta berea, berriz, zortzi puntu inguruan.

**38. grafikoa. LGTBI kolektiboarekiko tolerantzia: banakoa eta kolektiboa (batez besteko puntuazioa)**




*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*19. G. Laburbilduz, LGTBI pertsonei buruzko galdera-sorta honekin amaitzeko, non kokatuko zenuke zure burua LGTBI pertsonekiko tolerantzia-eskala batean, kontuan hartuta 0 "Guztiz intolerantea" dela eta 10 "Oso tolerantea"? Eta euskal gizartea, non kokatuko zenuke LGTBI pertsonekiko tolerantzia-eskala batean, kontuan hartuta 0 "Guztiz intolerantea" dela eta 10 "Oso tolerantea"?*

Emakumeek gizonek baino puntuazio nabarmen handiagoak dituzte, bai norberaren jarrerari dagokionez, bai gizartearenari, oro har, dagokionez (39. taula).

**39. taula. LGTBI kolektiboarekiko tolerantzia. Banakoa eta soziala, sexuaren/generoaren arabera (batez besteko puntuazioa)[12]**

| | Banakoa | | Soziala | |
|---|---|---|---|---|
| | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak | Gizonak |
| Lesbianak, gayak edo bisexualak | 8,88 | 8,64 | 6,61 | 6,78 |
| Transexualak edo transgeneroak | 8,81 | 8,58 | 6,14 | 6,36 |
| Intersexualak | 8,94 | 8,70 | 6,21 | 6,54 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*19. G. Laburbilduz, LGTBI pertsonei buruzko galdera-sorta honekin amaitzeko, non kokatuko zenuke zure burua LGTBI pertsonekiko tolerantzia-eskala batean, kontuan hartuta 0 "Guztiz intolerantea" dela eta 10 "Oso tolerantea"?; 20. G. Eta euskal gizartea, non kokatuko zenuke LGTBI pertsonekiko tolerantzia-eskala batean, kontuan hartuta 0 "Guztiz intolerantea" dela eta 10 "Oso tolerantea"?*

[12] ANOVA bariantzaren analisia aplikatu da.

Adinaren aldagaiari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu pertsona gazteenak direla, banaka, toleranteenak. Era berean, toleranteagotzat jotzen dira goi-mailako ikasketak dituztenak lehen mailako ikasketak dituztenak edo ikasketarik ez dutenak baino. Erlijio-sinesmenei dagokienez, ateo edo agnostiko gisa identifikatu direnek katolikoek baino askoz ere toleranteagotzat dute beren burua; jatorriari dagokionez, berriz, bertakoek nabarmen toleranteagotzat dute beren burua atzerritarrek baino. Ideologiari dagokionez, ezkerrarekin identifikatzen diren pertsonak dira beren burua nabarmen toleranteagotzat jotzen dutenak (40. taula).

**40. taula. LGTBI kolektiboarekiko tolerantzia. Banakoa, ezaugarri soziodemografikoen arabera (batez besteko puntuazioa)**

| | | Lesbianak, gayak edo bisexualak | Transexualak edo transgeneroak | Intersexualak |
|---|---|---|---|---|
| Adina | 18 eta 29 urte bitartekoak | 9,14 | 9,16 | 9,17 |
| | 30 eta 44 urte bitartekoak | 8,98 | 8,96 | 9,07 |
| | 45 eta 64 urte bitartekoak | 9,05 | 8,94 | 8,98 |
| | 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 8,01 | 7,91 | 8,14 |
| Ikasketak | Ikasketarik gabe/Lehen mailakoak | 8,21 | 8,16 | 8,36 |
| | Bigarren mailakoak/Oinarrizkoak | 8,85 | 8,75 | 8,85 |
| | Goi-mailakoak | 9,33 | 9,29 | 9,31 |
| Erlijio-sinesmenak | Katolikoa | 8,53 | 8,43 | 8,59 |
| | Agnostikoa/ateoa | 9,38 | 9,38 | 9,40 |
| | Beste erlijio batekoa | 7,03 | 6,99 | 7,22 |
| Jatorria | Espainia | 8,88 | 8,81 | 8,92 |
| | Atzerritarra | 7,89 | 7,89 | 8,08 |
| Ideologia | Ezkertiarra | 9,27 | 9,22 | 9,22 |
| | Zentro-ezkertiarra | 8,96 | 8,89 | 9,06 |
| | Zentro-eskuinekoa / eskuinekoa | 8,24 | 8,10 | 8,21 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 oinarri hartuta.*

*19. G. Laburbilduz, LGTBI pertsonei buruzko galdera-sorta honekin amaitzeko, non kokatuko zenuke zure burua LGTBI pertsonekiko tolerantzia-eskala batean, kontuan hartuta 0 "Guztiz intolerantea" dela eta 10 "Oso tolerantea"?; 20. G. Eta euskal gizartea, non kokatuko zenuke LGTBI pertsonekiko tolerantzia-eskala batean, kontuan hartuta 0 "Guztiz intolerantea" dela eta 10 "Oso tolerantea"?*

EPADE 2020ren bidez lortutako datuekin alderatuz gero, ikus dezakegu 2020tik 2021era tolerantzia pertsonalaren pertzepzioa igo egin dela eta tolerantzia sozialaren pertzepzioa jaitsi egin dela. Sentsibilizazio handiagoko prozesu baten eskutik joan liteke hori, non norbanakoak LGTBI pertsonen errealitatetik hurbilago ikusten baitu bere burua, eta, aldi berean, kritikatu egiten du pertsona horiek bizi duten gizarte-egoera (41. taula).

**41. taula. LGTBI kolektiboarekiko tolerantzia. Banakoa eta soziala. 2020rekin alderatuta (batez besteko puntuazioa)**

| | EPADE 2020 | | Neurtu 2021 | |
|---|---|---|---|---|
| | Banakoa | Soziala | Banakoa | Soziala |
| Lesbianak, gayak edo bisexualak | 8,28 | 7,57 | 8,76 | 6,69 |
| Transexualak edo transgeneroak | | | 8,70 | 6,25 |
| Intersexualak | | | 8,82 | 6,37 |

*Iturria: Txostengileek egina, Neurtu 2021 eta EPADE 2020 oinarri hartuta.*

*Neurtu 2021: 19. G. Laburbilduz, LGTBI pertsonei buruzko galdera-sorta honekin amaitzeko, non kokatuko zenuke zure burua LGTBI pertsonekiko tolerantzia-eskala batean, kontuan hartuta 0 "Guztiz intolerantea" dela eta 10 "Oso tolerantea"?; 20. G. Eta euskal gizartea, non kokatuko zenuke LGTBI pertsonekiko tolerantzia-eskala batean, kontuan hartuta 0 "Guztiz intolerantea" dela eta 10 "Oso tolerantea"?; EPADE 2020: 27. G. LGTBI kolektiboko pertsonekiko tolerantziaren eskalan, non kokatuko zenuke zeure burua, kontuan hartuta 0 "batere tolerantea" eta 10 "oso tolerantea" direla?; 28. G. Ildo beretik, non kokatuko zenuke euskal gizartea LGTBI kolektiboko pertsonekiko tolerantziaren eskalan, kontuan hartuta 0 "batere tolerantea" eta 10 "oso tolerantea" direla?*

## Sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasunaren euskal indizea

Txosten honetan ikusi dugunez, askotariko iritziak, posturak eta jarrerak daude, eta, oro har, argiak eta itzalak ditu euskal gizarteak, hau da, gai batzuetarako jarrera eta ikuspegi barneratzaileak eta toleranteak ditu argi eta garbi, baina beste batzuetan aniztasunarekiko uzkurragoak eta intoleranteagoak diren jarrerak erakusten ditu.

Helburu bikoitzarekin, batetik, euskal gizartearen jarrera laburbildu ahal izateko eta, bestetik, gizartearen bilakaera denboran monitorizatu ahal izateko, indize sintetiko bat egin dugu, galdetutako pertsona bakoitzak, bereziki, eta euskal gizarteak, oro har, sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonen errealitatearekiko duen irekitasun-maila neurtzen duena.

Galdetutako pertsona bakoitzak inkestako 34 itemi emandako erantzunetan oinarritu da sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasunaren indizea deitu diogun indize hori, eta 0 eta 100 puntu artean mugitzen da. Beraz, 0 puntutik hurbil dauden puntuazioek jarrera, postura, jokabide eta portaera erabat uzkur eta baztertzaileak adieraziko lituzkete sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko, eta 100 puntutik hurbil dauden puntuazioek, berriz, jarrera guztiz irekiak, toleranteak eta inklusiboak.

Nahiz eta diseinu kuantitatiboaren mugak ezagutu, egia da horrek zenbakizko neurketa zehatzagoa egiteko aukera ematen duela; izan ere, aldagaien artean erlazio esanguratsuak hautematen laguntzen digu, profilak eta tipologiak ezartzen eta haien osaera kuantifikatzen laguntzen digu, eta aztertu beharreko fenomenoaren bilakaera monitorizatzen laguntzen digu.

Indize kuantitatibo bat eraikitzeak birtualtasun hori du: informazio asko lantzeko eta laburtzeko aukera ematen du, portaera iragartzeko aldagaiak hautematen ditu (aldagai bereizleak), posizio eta jarrera bereizgarriei lotutako tipologia soziodemografikoak ezartzen ditu eta etorkizunean izango duen bilakaeraren luzetarako jarraipena egiteko aukera ematen du.

Halatan, euskal gizartearen jarrera laburtzen duen indizea egin dugu, 0 eta 100 puntu bitarteko continuum batean, sexu- eta genero-aniztasunarekiko jarrerei puntuazio zehatza emanez. Hurbilketa bat da, inkesta bezalako teknika batek dituen mugak kontuan hartuta; baina bai esan dezakegu tresna hori jarraian erabiltzen badugu, aukera emango digula fenomenoaren bilakaera modu fidagarrian ezagutzeko.

Baskula batekin konparatuta, esango dugu pisu baten neurketa baliozkoa izango dela benetako pisua islatzen badu, eta esango dugu fidagarria izango dela, baldin eta pisu horren hurrengo neurketetan antzeko emaitzak ematen baditu. Tara bat (akatsa) duen baskula batek baliteke neurketa guztiz zehatza edo baliozkoa ez egitea, baina, tara (akatsa) bera baldin badu, hurrengo pisaketen bilakaera ikusteko aukera emango digu. Antzeko zerbait gertatzen da inkestarekin: agian ez du zehazki neurtuko euskal gizarteak sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko duen jarrera; izan ere, gai pertsonaletan eta gure sinesmen pertsonalen unibertsoarekin zerikusia duten gaietan, inkestaren teknikak zenbait joera sartzen ditu, hala nola desiragarritasun pertsonala (nork bere pertsonari buruz duen kontsiderazio subjektiboa, oro har erreala baino hobea), desiragarritasun soziala (gure inguruneak gu nola ikustea gustatuko litzaigukeen) eta politikoki zuzenak diren jarrerak (gizarteak zentsuratzen ez dituenak). Elementu horiek guztiek, gainera, osagai estrukturalak dituzte, hala nola klase sozialak edo generoak, eta horrek aldaketak eragiten ditu talde sozial bakoitzarentzat maila indibidualean edo sozialean desiragarritzat jotzen den horretan eta politikoki zuzentzat jotzen denari dagokionez. Nahiz eta galdera horiek guztiek datu horien azterketa konplexuagoa egin, inkestak oso teknika erabilgarria izaten jarraitzen du, oso fidagarria baita gertaera sozial baten bilakaera neurtzeko, denboran errepikatzen badugu.

Laburbilduz, 34 itemetan oinarritutako indize hori nahikoa baliagarria da EAEko biztanleek sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko duten posizioa eta jarrera une jakin batean neurtzeko (zeharkako neurketa), eta tresna fidagarria etorkizuneko bilakaera monitorizatzeko (luzetarako neurketa).

*Sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasunaren indize* hori egiteko, honako etapa hauek bete ditugu:

- Aldagai adierazgarriak hautatzea: hasiera batean, inkestako 49 aldagai aukeratu genituen, galdetutako pertsonek LGTBI errealitateari eta pertsonei buruz dituzten jarrerak, sinesteak, posturak eta/edo portaerak jasotzen zituztenak.

- Aldagaiak birkodetzea: behar zuten aldagaiak birkodetu genituen, zentzu berean neur zezaten.

- Neurtu 2021 datu-baseari esploratzeko[13] osagai nagusien faktore-analisia aplikatzea. Esploratzeko asmoz aplikatu dugu lehen faktore-analisi hori, haren helburua baita aldagai erredundanteak eta/edo gutxi bereiziko luketenak identifikatzea, aldagai horiek alde batera uzteko. 34 aldagairekin geratu gara azkenean.

- Osagai nagusien lehen faktore-analisia aplikatzea. Berresteko lehen faktore-analisi horren bidez, zazpi faktore edo dimentsiotara murriztu genituen aldagai horiek, eta pertsona batek sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko duen jarreraren barne-egitura hartzen dute dimentsio horiek.

- Osagai nagusien bigarren faktore-analisia, bigarren mailakoa, aplikatzea aurreko analisian ateratako zazpi dimentsioei. Faktore-analisi horren bidez, hierarkizatu eta haztatu ahal izan genuen parte hartzaile bakoitzaren (inkestatutako pertsona) sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko jarreran dimentsio bakoitzak duen pisua.

- Sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasunaren indize partzialak eta indize sintetikoa kalkulatzea. Kasu bakoitzak faktore bakoitzarekin dituen faktore-puntuazioetatik abiatuta, hau da, hautemandako zazpi eremu edo dimentsioetako bakoitzeko mailatik edo jarreratik abiatuta, indize partzialak kalkulatu ditugu eta, faktore bakoitzak azaldutako bariantza osoan duen pisuan oinarrituta, indize sintetiko globala kalkulatu dugu.

Osagai nagusien analisitik ondorioztatzen da EAEko biztanleek sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko duten jarrera funtsezko zazpi dimentsiotan oinarritzen dela:

- *Eremu soziala eta arauemailea*: EAEko biztanleak gehien bereizten dituen dimentsioa, hezkuntzaren, gizarte-harremanen, osasunaren eta arauen eremuan sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko dituzten jarrerek eta posizioek osatzen dute. Dimentsio horrek azaltzen du EAEko biztanleen artean dagoen guztizko aldakortasunaren % 53,22.

[13] Esploratzeko osagai nagusien lehen faktore-analisi horren bidez, aldagai erredundanteak ezabatu eta garbitu nahi izan ditugu, honako hauek, hain zuzen ere: besteekin dimentsioetan elkartzeko erlazio nahikorik ez dutenak, ateratako faktoreen arabera aldagarritasuna behar bezala azaltzen edo jasotzen ez dutenak, edo aldagarritasun txikia dutenak, hau da, bereizteko gaitasun txikia dutenak. Hala, analisian sartutako 49 aldagaietatik 15 alde batera uztea erabaki genuen, irudiaren aurkako korrelazio-koefizienteetan nahi ez diren balioak zituztelako, Laginaren Egokitze Neurria (MSA) kalkulatzean banaka lortutako balioak txikiak zirelako eta/edo komunalitate txikiak zituztelako, edo aukeratutako beste aldagai batzuekin informazio erreduntantea ematen zutelako.

- *Lan-eremua*: EAEko biztanleek sexu- eta genero-aniztasunari eta LGTBI pertsonei buruz lan-ingurunean duten jarrera eta posizioa jasotzen ditu. Bariantza osoaren % 7,54 hartzen du dimentsio honek.

- *Harreman intimoen eremua*: dimentsio hau lotuta dago EAEko biztanleek beren seme-alabek gay, lesbiana, bisexual, trans edo intersexualekin harreman intimoak izateak dakartzan egoeren aurrean hartzen dituzten jarrerekin eta posizioekin. Bariantza osoaren % 5,76 hartzen du dimentsio honek.

- *LGTBI kolektiboarekiko sentsibilizazioaren eremua*: aniztasunari buruzko informazioa (gay, lesbiana, bisexual, trans eta intersexualitatea) ikastetxeetan hezkuntza-ikasgai gisa sartzearen inguruan euskal gizartearen jarrera jasotzen duten itemek osatzen dute dimentsio hau. Aldakortasun osoaren % 4,24 hartzen du dimentsio honek.

- *Autopertzepzioaren eremua*: EAEko biztanleek lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualekiko dituzten jarrera eta posizioei buruz duten pertzepzio subjektibora garamatza dimentsio honek. Bariantza osoaren % 3,96 hartzen du.

- *Erakunde-eremua*: LGTBI pertsonen errealitateari erakundeek ematen dioten tratamenduari dagokionez EAE biztanleek duten jarreraz eta posizioaz hitz egiten digun dimentsioa da hau. Aldakortasun osoaren % 3,66 hartzen du faktore honek.

- *Lagunen eremua*: Euskal gizarteak pertsona trans eta intersexualekiko dituen adiskidetasun- edo tratu-loturak biltzen dituen dimentsioa da hau, haiekiko duen jarreraren adierazle gisa. Aldakortasun osoaren % 3,34 hartzen du dimentsio honek.

Bigarren mailako osagai nagusien faktore-analisiari esker, dimentsio horiek haztatu ahal izan ditugu sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasunaren indize sintetikoa lortzeko (ikus 39. grafikoa).

**39. grafikoa. Sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasunaren indizearen dimentsioak 2021**

**Sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasunaren indizea 2021**

**Eremu soziala eta arauemailea**
% 49,11

- 14_4G Senideek jakitea lagun intersexuala
- 14_2G Senideek jakitea lagun homosexuala
- 14_3G Senideek jakitea lagun transexuala edo transgeneroa
- 14_1G LGTBI pertsonak bizi diren auzoan bizitzea
- 14_5G LGTBI pertsonek jendaurreko maitasun-keinuak
- 14_7G Seme-alaba homosexuala, intersexuala edo transexuala
- 13_2G Seme-alaben irakaslea homosexuala
- 13_5G Seme-alaben gelan LGTBI lagunak
- 13_3G Seme-alaben irakaslea transexuala edo transgeneroa
- 13_4G Seme-alaben irakaslea intersexuala
- 16_4G Baldintza beretan jasotzea laguntza bidezko ugalketa
- 15_2G Homosexualek haurrak adoptatu ahal izatea
- 16_5G Osasun Sistema Publikoan sexua berriro esleitzeko eskubidea
- 15_5G Agiri ofizialetan generoan hirugarren aukera izatea

**Lan-eremua**
% 13,30

- 12_3G Pertsona intersexualak hurbil izatea
- 12_2G Pertsona transexualak edo transgeneroak hurbil izatea
- 12_1G Pertsona homosexualak hurbil izatea
- 12_6G Lehendakari intersexuala
- 12_5G Lehendakari transexuala edo transgeneroa
- 12_4G Lehendakari homosexuala

**Harreman intimoen eremua**
% 10,36

- 8_12G Harreman intimoa pertsona intersexualarekin
- 8_11G Harreman intimoa pertsona transexual edo transgeneroarekin
- 8_10G Harreman intimoa pertsona homosexualarekin

**LGTBI prestakuntzaren eremua**
% 9,14

- 9_5G Irakas-materia: intersexualitatea
- 9_4G Irakas-materia: transexualitatea
- 9_3G Irakas-materia: homosexualitatea

**Autopertzepzioaren eremua**
% 8,27

- 19_CG Balorazioa pertsona intersexualak
- 19_AG Balorazioa lesbianak, gayak edo bisexualak
- 19_BG Balorazioa pertsona transexualak edo transgeneroak

**Erakunde-eremua**
% 6,65

- 17_11G Erakundeek babestu
- 17_9G Aukera-berdintasuna bermatu LGTBI
- 17_13G LGTBI gehiegizko aldarrikapenak

**Lagunen eremua**
% 3,14

- 7_4G Lagun transexualak edo transgeneroak
- 7_5G Lagun intersexualak

*Iturria: Txostengileek egina*

*Zazpi dimentsioetako bakoitza osatzen duten aldagaien zerrenda osoa dago eranskinean.*

Indize sintetikoaren balioa lortuta, sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasunaren indizea kalkulatu den lehen urte honetan, euskal gizarteak 75,77 puntu lortu ditu. Gure ustez balio positiboa da, hau da, euskal gizarteak sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko jarrera aski irekia, tolerantea eta inklusiboa duela adieraziko luke. Are gehiago, agian espero genezakeena baino jarrera hobea islatu duela esatera ausartuko ginateke. Balio hori, beharbada modu positiboan alboratua dago pixka bat (desiragarritasun pertsonala, desiragarritasun soziala edo nagusi den diskurtso soziala), baina bateragarria da beste indize batzuek eskaintzen dituzten balioekin, Ikuspegik egiten dituenak EAEko biztanleek beste kolektibo batzuekiko duten jarrera ezartzeko. Adibidez, euskal gizarteak atzerritarrekiko duen tolerantzia-indizea deitutakoak, urtero kalkulatzen denak, 66,09 puntuko balioa izan zuen 2021ean. 2020an egindako Aniztasunarekiko Irekitasunaren Indizeak, berriz, 72,78 puntuko balioa izan zuen; Ikuspegiren EPADE 2020 azterlanean lortutako datuetatik abiatuta egin zen indize hori eta EAEko biztanleek era guztietako aniztasunarekiko dituzten pertzepzioak, balorazioak, jarrerak eta posizioak biltzea zuen xede.

40. grafikoan ikus dezakegunez, oraingo honetan, banaketa kurba normaletik urruntzen da EAEko biztanleriaren banaketa, eta banaketa bimodala ematen digu. Bi mutur nabarmen ditu, 70 eta 97 puntuen inguruan. Horri buruzko azalpenen bat ematen saiatuko gara emaitzak aztertzeko kapitulu honetan.

**40. grafikoa. Sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasunaren indizearen balioa 2021**




*Iturria: Txostengileek egina*

Bestalde, garrantzitsua da EAEko biztanleen artean nabari diren jarrera-aldeak egiaztatzea, nahiz eta ezin den talde polarizatu batez hitz egin: 50 puntutik behera EAEko biztanleriaren % 6 inguru besterik ez dago; 50 eta 75 puntuen artean biztanleen % 50 inguru dago; beste % 25 inguru 75 eta 93 artean dabiltza; eta, azkenik, talde garrantzitsu bat dago, % 20 inguru, oso balio handiak dituena, 93 eta 100 puntu artean.

Sexu- eta genero-aniztasunarekiko jarreretan eta posizioetan etorkizunean gerta daitezkeen aldaketak hobeto ulertzeko, 0 eta 100 puntu arteko eskalara igo ditugu indize partzialak. Horrela, EAEko biztanleek sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko dituzten jarreretan eta posizioetan etorkizunean gerta daitezkeen aldaketak ere monitorizatu ahal izango ditugu honako eremu hauetan: eremu soziala eta arauemailea, lan-eremua, harreman intimoen eremua, LGTBI prestakuntzaren eremua, autopertzepzioaren eremua, erakunde-eremua eta lagunen eremua.

EAEko biztanleek zazpi dimentsio horietan duten jarrera erakusten digu 41. grafikoak.

**41. grafikoa. 2021eko indize partzialen balioa (sexu- eta genero-aniztasunarekiko) zazpi dimentsioetan**




*Iturria: Txostengileek egina*

41. grafiko horretan ikus daitekeenez, dimentsio gehienek indize orokorreko 75 puntu inguruko puntuazioak izan dituzte, hirutan izan ezik: 1) autopertzepzioaren dimentsioan, non puntuazioa 82,58 puntura iristen baita, irudi alboratuagatik, pertsonok oro har geure buruari buruz dugun irudi hobeagatik; 2) erakundeen dimentsioan, non ematen baitu jarrera ez hain irekiak daudela, 66,66 puntu lortuz; eta 3) lagunen dimentsioan, LGTBI pertsonekiko jarreraren eta posizioaren zeharkako adierazle gisa laguntasun-harremanak eta trans eta intersexual ezagunenak jasotzen dituelako, eta horiek ez dira nagusi euskal biztanleriaren artean.

Sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasunaren indize orokorrera itzuliz, jokabideak bereizten dituzten eta banakako jarrerak azaltzeko gai diren aldagai soziodemografikorik ba ote dagoen jakiteko, lehenik eta behin, bi aldagaiko analisia egin dugu (mendeko aldagai batekin eta beste aldagai independente batekin lan egitea esan nahi du, faktore bateko ANOVA analisia aplikatuz), zeina, mugatua izan arren, ezinbesteko azterketa baita, aldagai anitzeko beste edozein azterketa baino lehen. Mugatua da, aldagai soziodemografiko aske batek ezkutatu egin dezakeelako elkarri eragiten dioten beste aldagai batzuen eragina edo ondorioa. Esate baterako, elkarri oso lotutako aldagaiak izaten dira batzuetan, eta aldagai biko analisi batean zaila da horietako bakoitzak duen eragina bereiztea; aldiz, aldagai anitzeko analisiak bakoitza bere lekuan jartzen du. LGTBI pertsonekiko jarrerekin eta posizioekin zerikusia duten gaiak aztertzen ditugunean, sarri nahasi egiten dira "adina" eta "hezkuntza-maila" aldagaiak. Hori dela eta, bi aldagai horiek bakoitza bere aldetik aztertuz gero biak dira baliagarri taldeak bereizteko (esaterako, pertsona gazteenak jarrera irekiagoekin lotu ohi dira eta adintsuenak jarrera uzkurragoekin edo itxiagoekin; eta prestakuntza

txikiagoa duten pertsonek tolerantzia txikiagoa agertzen dute prestakuntza handiagoa dutenek baino). Alabaina, analisi bateratua egiten dugunean, gerta daiteke haietako batek duen azalpen gaitasuna lausotuta geratzea. Gure gizartean bi aldagai horiek oso loturik daudelako gertatzen da hori: biztanle gazteak, oro har, askoz hobeto prestatuta daude adineko biztanleak baino. Eta beste horrenbeste gerta daiteke beste aldagai soziodemografiko batzuekin.

Bigarrenik, eta aurreko analisi aldagai batekoak eta aldagai bikoak osatzeko eta datuen interpretazioan sakontzeko, aldagai anitzeko metodologiak baliatu ditugu. Izan ere, metodologia horiek lagundu egiten digute aldagaien arteko harremanak hobeto ulertzen, iragartzeko ahalmenik handiena dutenak nabarmentzen, aldagai batzuen eta besteen eragin gurutzatuak saihestuz eta indargabetuz, eta LGTBI pertsonekiko euskal gizartea zer errealitatetan bizi den hobeto ezagutzeko aukera emanez.

Gurutzatzeko aldagaiak edo bereizleak izan daitezkeenak honako hauek dira: sexua/generoa, adina, bizi den lurraldea, habitata, nazionalitatea, ikasketak, erlijioa, hileko diru-sarrerak, jarduera eta ideologia.

Aldagai horiek sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko irekitasun-mailarekin duten erlazioen bi aldagaiko analisiak adierazi digu estatistikaren aldetik alde nabarmenak daudela euskal gizarteko pertsonen azpitaldeen artean: kolektibo batzuk irekiak eta toleranteak dira argi eta garbi (puntuazio altuagoak dituztenak), eta beste batzuk itxiagoak eta sexu- eta genero-aniztasunarekiko intoleranteagoak (puntuazio txikiagoak dituztenak). Laburpena 42. taulan aurkezten dugu, eta hauxe esan dezakegu:

- Sexu- eta genero-aniztasunarekin eta LGTBI pertsonekin askoz ere irekiagoak dira emakumeak (76,86) gizonak baino (74,59 puntu).

- Sexu- eta genero-aniztasunarekin eta LGTBI pertsonekin askoz ere irekiagoak dira 18 eta 24 urte bitarteko pertsonak (84,90 puntu) 75 urtekoak eta gehiagokoak baino (63,63 puntu).

- Sexu- eta genero-aniztasunarekin eta LGTBI pertsonekin askoz ere irekiagoak dira unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (81,49 puntu) lehen mailako ikasketak dituztenak baino (70,05 puntu).

- Sexu- eta genero-aniztasunarekin eta LGTBI pertsonekin askoz ere irekiagoak dira pertsona agnostikoak, ateoak edo erlijioa axola ez zaienak (82,56 puntu) katolikoa ez den beste erlijio batzuetakoak baino (58,94 puntu).

- Sexu- eta genero-aniztasunarekin eta LGTBI pertsonekin askoz ere toleranteagoak dira etxean hilean 2.500 €-tik gorako diru-sarrera garbiak dituzten pertsonak (83,31 puntu) eta 2.001 eta 2.500 € arteko

diru-sarrerak dituztenak (81,95 puntu), eta 1.501 eta 2.000 € arteko diru-sarrerak dituztenak (79,07 puntu) 1.001 eta 1.500 € arteko diru-sarrerak dituztenak (71,82 puntu) edo 1.000 € arteko diru-sarrerak dituztenak (69,56 puntu) baino.

- Sexu- eta genero-aniztasunarekin eta LGTBI pertsonekin askoz ere toleranteagoak dira ikasten ari diren pertsonak (85,50 puntu) eta lanean ari direnak (79,62 puntu), erretiratuak (69,06 puntu), etxeko lanetan aritzen direnak (69,36 puntu) do langabezian daudenak baino (73,29 puntu).

- Sexu- eta genero-aniztasunarekin eta LGTBI pertsonekin askoz ere irekiagoak dira ideologia ezkertiarra duten pertsonak (81,59 puntu) zentro-eskuinekoak baino (68,67 puntu).

- Sexu- eta genero-aniztasunarekin eta LGTBI pertsonekin askoz ere irekiagoak dira nazionalitate espainiarra (76,89 puntu) edo nazionalitate bikoitza (71,77 puntu) duten pertsonak, atzerriko nazionalitatea dutenak baino (65,23 puntu).

Bizitegia, bizi den lurraldea eta habitata aldagaiei edo bizi den udalerriaren tamainari dagokienez, ez dugu estatistikoki esanguratsuak diren jarrera-desberdintasunik nabaritu.

**42. taula. Sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasunaren indizearekin lotutako aldagaiak 2021**

| **Tolerantzia-atalase txikiena** duten pertsonen profila | Aldagaia | Esangura | **Tolerantzia-atalase handiena** duten pertsonen profila |
|---|---|---|---|
| Gizonak | Sexua | 0,014 | Emakumeak |
| 75 urtekoak edo hortik gorakoak | Adina | 0,000 | 18 eta 24 urte bitartekoak |
| Lehen mailakoak | Ikasketak | 0,000 | Unibertsitate-ikasketak |
| Beste sineste batzuk | Erlijioa | 0,000 | Agnostikoak, ateoak eta erlijioa axola ez zaienak |
| Hilean 1.500 € bitarte | Diru-sarrerak | 0,000 | Hilean 1.500 € baino gehiago |
| Erretiroa hartutakoak, etxeko lanetan aritzen direnak eta langabeak | Jarduera | 0,000 | Ikasleak eta lanean ari diren pertsonak |
| Zentro-eskuinekoak | Ideologia | 0,000 | Ezkertiarrak |
| Nazionalitate atzerritarra | Nazionalitatea | 0,000 | Nazionalitate espainiarra edo nazionalitate bikoitza |

*Iturria: Txostengileek egina*

Elkarreragin horiek argitzeko eta gerta daitezkeen eragin konbinatuak indargabetzeko, aldagai anitzeko metodologia aplikatu dugu, AID edo Elkarreraginen Detektatzaile Automatikoa. Teknika hori aplikatuta,

segmentazio-zuhaitz bat lortuko dugu. Bertan, alde batetik, portaera iragartzeko edo bereizteko aldagaiak ikus ditzakegu, eta, bestetik, sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko irekiagoak eta toleranteagoak diruditen pertsonen azpitaldeei dagozkien segmentu edo tipologia batzuk, errealitate horrekiko jarrera, jokaera eta posizio itxiagoak eta intoleranteagoak adierazten dituzten pertsonez osatutako beste batzuen aldean.

Tipologia hori egiteko (42. grafikoa), 41. taulan agertzen diren aldagai berak erabili ditugu, bai mendeko aldagaia, sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasunaren indizean 2020an lortutako puntuazioa, bai independenteak, sexua/generoa, adina, bizi den lurraldea, habitata, nazionalitatea, ikasketak, erlijioa, hileko diru-sarrerak, jarduera eta ideologia.

Aldagai anitzeko metodologia horren aplikazioak ez du ez zehatza ez eztabaidaezina izan nahi, hau da, ez dugu sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko jarrera eta posizio gutxi-asko irekiekin eta/edo toleranteekin zerikusia duten aldagaiei buruzko eztabaida itxi nahi, baizik eta errealitatea ikusteko eta ulertzeko modu bat eman besterik ez. Badakigu horren bidez proposatzen dugun tipologia horixe besterik ez dela: tipologia bat, sartu ditugun aldagaiek, bildu ditugun bezala bilduta, sortutako tipologia. Zalantzarik gabe, analisi hauek egin aurretik beste planteamendu metodologiko bat egin izan bagenu (adibidez, indizea bera beste modu batera landu izan bagenu, guk jaso ez ditugun aldagai independenteak txertatu izan bagenitu, analisian erabili ditugun beste zenbait kanpoan utzi izan bagenitu, edota analisirako beste parametro batzuk aukeratu izan bagenitu...), beste tipologia edo segmentu batzuk aterako ziratekeen, desberdinak bai kopuruari dagokionez eta bai deskribatzen dituzten ezaugarriei dagokienez.

Analisiak adierazi digunez, honako hauek dira jokabideei antzemateko aldagai egokienak, jarrerak gehien bereizten dituztenak, gure segmentazio-zuhaitzaren iragarleak eta zuhaitz hori bere maila guztietan osatzeko aukera eman dutenak, garrantziaren arabera sailkatuta:

- Lehen mailan, erlijioa (esangura 0,000)[14]: erlijio-sinestea da aldagai iragarlerik onena, bereizi egiten baititu pertsona agnostikoak eta/edo ateoak (LGTBI errealitatearekiko irekienak), katoliko ez-praktikatzai-leak, katoliko praktikatzaileak eta beste sineste batzuetako fededunak (LGTBI pertsonekiko itxienak).

- Bigarren mailan, adina bereizlea da erlijioaren arabera osatutako lau azpitaldeetako hiruren artean (esangura 0,000, esangura 0,000 eta es-angura 0,000);

[14]Esangura-maila (*p* balioa).

- Hirugarren mailan, estatusaren adierazle diren hileko diru-sarrerak (esangura 0,001), sexua/generoa (esangura 0,000) eta bizi den udalerriaren habitata edo tamaina (esangura 0,015);

- Laugarren mailan, berriz ere bizi den udalerriaren habitatak edo tamainak (esangura 0,007) bereizten du aurreko mailako diru-sarrerek osatutako azpitaldeetako bat.

Aldagai horiekin guztira hamabi tipologia edo segmentu lortu ditugu, eta sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko jarrera eta posizio irekienak dituztenen arabera ordenatuta, honako hauek dira:

1. 18 eta 44 urte bitarteko emakumeak, agnostikoak, ateoak eta erlijioa axola ez zaienak: 88,30 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 9,6 dira.

2. 45 eta 64 urte bitarteko pertsonak, agnostikoak, ateoak eta erlijioa axola ez zaienak eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan bizi direnak: 83,27 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 5,2 dira.

3. 18 eta 44 urte bitarteko gizonak, agnostikoak, ateoak eta erlijioa axola ez zaienak: 81,85 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 11,3 dira.

4. 18 eta 44 urte bitarteko pertsona katoliko ez-praktikatzaileak, estatus ertain edo altua dutenak (1.000 €-tik gorako diru-sarrerak): 80,70 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 15,6 dira.

5. 18 eta 44 urte bitarteko pertsona katoliko ez-praktikatzaileak, estatus txikia dutenak (1.000 € arteko diru-sarrerak), 5.000 biztanle arteko edo 20.001 eta 150.000 biztanle arteko udalerrietan bizi direnak: 78,37 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 5,1 dira.

6. 45 eta 64 urte bitarteko pertsonak, agnostikoak, ateoak eta erlijioa axola ez zaienak eta 20.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi direnak: 77,32 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 7,2 dira.

7. 65 urte edo gehiago dituzten pertsona katoliko praktikatzaileak: 76,91 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 4,6 dira.

8. 45 eta 64 urte bitarteko pertsonak, agnostikoak, ateoak eta erlijioa axola ez zaienak eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan bizi direnak: 75,83 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 4,7 dira.

9. 18 eta 44 urte bitarteko pertsona katoliko ez-praktikatzaileak, estatus txikia dutenak (1.000 € arteko diru-sarrerak), hiriburuetan edo 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan bizi direnak: 71,41 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 5,8 dira.

10. 65 urte edo gehiago dituzten pertsona katoliko ez-praktikatzaileak: 67,84 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 12,0 dira.

11. 18 eta 44 urte bitarteko edo 65 urte edo gehiagoko pertsona katoliko praktikatzaileak: 63,39 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 11,8 dira.

12. Katolikoa ez den beste erlijio bateko pertsonak: 58,86 puntuko puntuazioa dute, eta EAEko biztanleen % 7,0 dira.

**42. grafikoa. Segmentazioaren eta tipologien zuhaitza**




*(Ikus grafikoa eranskinean)*

*Iturria: Txostengileek egina*

EAEko biztanleria hamabi tipologia, segmentu edo azpitaldetan segmentatu ahal izateaz gain, edo beste kopuru batean eginda ere, azpimarratu beharreko kontua ez da hori, baizik eta ematen duela badirela zenbait aldagai garrantzitsuak direnak sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko jokabide, jarrera, sinesmen, posizio eta balio gutxi-asko irekiak eta toleranteak eta itxiak eta intoleranteak iragarri nahi direnean. Eta, alde horretatik, garrantzi berezia dute aldagai soziodemografikoek, hala nola erlijio-sinesteek eta adinak.

Egiaztatu ahal dugu pertsonek erlijioaren aurrean duten jarrera bera dela euskal gizarteak sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko duen jarrera iragartzeko aldagai onena. Hala, bada, bereziki deigarria da erlijiorik ez dutela eta/edo ateoak direla dioten pertsonak direla sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasun indize sintetikoan puntuazio nabarmen handiagoa dutenak. Hau da, irekiagoak eta toleranteagoak dira gizarte-errealitate horrekiko.

Alde nabarmenak ikusi ditugu, halaber, katoliko praktikatzaileak, katoliko ez-praktikatzaileak eta beste erlijio batzuetakoak direnen artean. Azken horiek dira gure sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasun indizean (2021) puntuazio txikiena dutenak, hau da, sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko jarrera itxienak eta uzkurrenak dituztenak[15].

Adina ere aldagai garrantzitsuenetako bat da sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko jarrera eta posizio irekiagoak edo itxiagoak dituzten pertsonen segmentuak edo tipologiak ezartzeko. Segmentazio-zuhaitzean bigarren mailan bereizten duen aldagaia da, baina aldagai horrek erlijio-sinesteek eratutako adar guztietan bereizten ditu portaerak, katolikoa ez den beste erlijio batzuetako pertsonen artean izan ezik.

Alabaina, era berean, bidezkoa da argi uztea sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekiak eta toleranteak eta itxiak eta uzkurrak diren pertsonen arteko aldea zehazterakoan, azken bariantzaren alde txiki bat baino ez dela azaltzen segmentazio-zuhaitzak oinarri dituen aldagai horien bidez.

Hain zuzen, aipatu berri dugun analisian, bariantza osoaren % 28,23 besterik ez dugu azaltzen, argi utzi behar baita euskal gizartea osatzen duten herritar talde batzuen eta besteen arteko alde asko beste aldagai batzuen araberakoak direla edo beste aldagai horien arabera esplika daitezkeela, izaera psikosozialeko aldagaien eta nortasunari loturiko aldagaien arabera, batez ere.

Aurrekoarekin, orain arte azaldutako aurkikuntzak erlatibizatzea da gure asmoa. Izan ere, datu eta aurkikuntza horiek aukera ematen dute bai EAEko biztanleek eta bai gure ingurune politiko, ekonomiko eta sozialeko beste gizarte

[15] Hala ere, kontuan izan behar da erlijio katolikoa ez den beste erlijio bat dutela adierazten duten pertsonen lagina txikia dela (N = 80).

batzuek sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko dituzten jarreren fenomenoa hobeto ulertzeko, baina, era berean, jabetu behar dugu oso mugatuta daudela gizarte-errealitate horrenganako tolerantzia handiagoa edo txikiagoa ageri duten jokabideak iragartzeko eta azaltzeko.

# Ondorio orokorrak

Azken atal honek balio digu laburbiltzeko eta, ondorio orokorren ikuspegitik, txostenean erregistratutako guztien artean garrantzi eta interes sozial handiena duten aurkikuntzak labur adierazteko.

## Aniztasunari eta diskriminazioari buruzko pertzepzioak eta jarrerak EAEn

Aniztasunaren eta, oro har, diskriminazioaren inguruan EAEko biztanleek dituzten pertzepzioei eta jarrerei lotutako emaitzekin hasita, garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea gizartearen gehiengoa aniztasunaren aldekoa dela, jatorriari, kulturari, ideologiari eta sexu-orientazioari eta sexu- edo genero-identitateari dagokienez.

Irekitasun positiborako eta tolerantziarako joera duen testuinguru horretan, hala ere, ohartu gara aniztasun guztiek ez dutela normalizazio-, inklusio- eta onarpen-maila bera. Horren harira, deserosotasun sozial handiena sor dezaketen ezaugarri pertsonal gisa nabarmentzen dira ijito herrikoa izatea eta, neurri txikiagoan, erlijio musulmana izatea.

Laburbilduz, eta EPADE 2020 txostenak agerian utzi duen bezala, biztanleriak diskriminazioa jasatearekin gehien lotzen duen ezaugarri pertsonala ijito herrikoa izatea da; horren ondotik dator jatorri etnikoari, azalaren koloreari eta trans pertsona izateari dagokion aniztasuna.

Diskriminazioak gizarte-arazo gisa duen garrantziari dagokionez, euskal iritzia zatitua dagoela ikusi dugu; izan ere, diskriminazioa gizarte-arazo oso edo nahiko garrantzitsutzat hartzen dutenak gutxi gehiago dira arazo garrantzitsu samarra edo garrantzi txikikoa dela uste dutenak baino.

Bestalde, gizartearen gehiengoak bai uste du diskriminazioa badela eta hainbat eremutan gertatzen dela: lanean, etxebizitzan, legeak aplikatzean eta zerbitzu publikoak eskuratzean. Alde horretatik, diskriminazioa lan-eremuan nabari da gehien. Era berean, azpimarratzekoa da 2020tik 2021era nabarmen igo dela zerbitzu publikoak eskuratzean diskriminazioa dagoela uste duten biztanleen ehunekoa, % 30,5etik (2020) % 52,4ra (2021) igo baita.

EAEko biztanle gehienek adierazi dute ez dakitela zer eskubide dituzten diskriminazioaren biktima izanez gero. 2020an erregistratutakoa baino handixeagoa da ehuneko hori ere. Berdintasuna eta diskriminaziorik eza zaintzeko ardura duten erakundeei eta mekanismo instituzionalei dagokienez, hamar lagunetik zazpik baino gehiagok adierazi dute ezagutzen dutela Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea. Aldiz, herena baino gutxiago dira Migraziorako Euskal Itun Soziala eta Berdindu zerbitzu publikoa ezagutzen dituztela adierazi dutenak, eta ez dira % 5era iristen Eraberean sarearen berri dutela adierazi dutenak. 2020an jasotakoetatik oso hurbil dabiltza datu horiek.

Berdintasunaren alde eta hainbat errealitateren inguruko diskriminazioaren aurka EAEn egiten den lan instituzionala baloratzeko moduari dagokionez EAEko biztanleek adierazitakoari erreparatzen badiogu, nabarmendu behar da balorazio positiboaren maila orokorra jaitsi egin dela 2020tik 2021era, eta, bi urte horietan, erakundeen babes txikiagoa ikusten dela errealitate intersexual eta transekiko, desio ez-heterosexualarekiko (lesbianak, gayak eta bisexualak) baino. Era berean, indarkeria matxista desagerrarazteko ahaleginak genero-berdintasunaren aldeko lan politiko-teknikoa baino modu independente samar eta okerragoan baloratu dituzte.

Aztertutako guztiari dagokionez, emakumeek eta gizonek eman dituzten erantzun desberdinek erakusten dute, oro har, emakumeek gehiago nabaritzen dutela diskriminazioa eta kritikoagoak direla erakundeen lanarekin, batez ere indarkeria matxistari dagokionez. Era berean, beste aldagai batzuek alde nabarmenak ematen dituzte, non onarpen- eta irekiera-ehunekoak estatistikoki handiagoak diren gazteen kasuan, goi-mailako ikasketak dituztenen kasuan, erlijiosoak ez diren ikasketak dituztenen kasuan, autoktonoak direnen kasuan, ideologikoki ezkerrekotzat jotzen direnen eta estatus sozioekonomiko ertain edo altua dutenen kasuan. Aldagai horiek alde nabarmenak ematen dituzte, baina aldagai biko analisiaren ikuspegitik; horrek ez du profil bakarra identifikatzeko biderik ematen, aldagaiak ez baitira batera aztertu.

## Sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI kolektiboarekiko pertzepzioak eta jarrerak

Oro har, datuek adierazten dute euskal gizartearen gehiengoa irekia eta sexu- eta genero-aniztasunaren aldekoa dela, bai eta LGTBI kolektiboa ez diskriminatzearen aldekoa ere. Aipatzekoa da, adibidez, % 85tik gorakoa dela ikastetxeetan sexu- eta genero-aniztasunari buruzko informazioa hezkuntza-ikasgai gisa sartzearekin ados daudela adierazi duten biztanleen ehunekoa; eta biztanleen % 95,2 ados edo erabat ados dagoela irakasleek sexu-aniztasunean, genero-identitatean eta -adierazpenean etengabeko prestakuntza izatea bermatzearekin. Halaber, esan behar da Osasun Sistema Publikoak sexua berriro esleitzeko eskubidea betetzearen alde dagoela biztanleen % 86,8.

Era berean, aldeko jarrerak nabarmen nagusitzen badira ere, joera batzuek erakutsi dute onarpen-maila eta erosotasunaren adierazpena neurritsuagoak direla errealitate intersexualekin eta transekin zerikusia dutenean, lesbianekin, gayekin edo bisexualekin lotzen direnean baino. Era berean, onarpen eta adostasun-mailak handiagoak izan ohi dira LGTBI kolektiboari soilik eragiten dioten eskubideak bermatzeari dagokionez, aldaketa globalagoak planteatzen direnean baino, sistema edo zerbitzu baten funtzionamendu orokorrean eragina izan dezaketenak (esate baterako, dokumentuetan hirugarren genero-aukera bat sartzea, gizonaz eta emakumeaz gain). Era berean, argi dago sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak onarpen handiagoa duela LGTBI pertsonek beren ardurapean adingabeak dituzten familiak sortzeak baino.

Euskadin LGTBI kolektiboak gaur egun bizi duen gizarte-egoeraren pertzepzioari dagokionez, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari begira, bildutako datuek iritzi-banaketa erakutsi dute sarritan; izan ere, azpimarratu behar da biztanleriaren zati handi batek zalantzak dituela edo ez duela bere jarrera azaldu nahi, zenbait kasutan % 15etik gorako ehunekoak baititu “ez ados ez kontra” aukerak. Alde horretatik, pentsa daiteke eragina izan dezakeela LGTBI pertsonek bizi dituzten errealitateak ez ezagutzeak, bai eta, agian, eztabaida sozial eta politikoen gorakadak ere, pertsona horien inguruan jarrera kontrajarriak planteatzen baitituzte. Komeni da, halaber, ez saihestea eskuin muturrekoen eta katoliko kontserbadoreen diskurtsoen suspertze mediatikoa, jarrera diskriminatzaileak eta intoleranteak defendatzen baitituzte argi eta garbi.

Hala eta guztiz ere, EAEko biztanleen gehiengoak adierazi du ikusten duela LGTBI pertsonek ikusezintasuna eta gizartean adierazteko mugak dituztela, eta biztanleen ia erdiak uste du kolektibo horrek zailtasunak dituela enplegua aurkitzeko ere.

Oro har txikia bada ere LGTBI kolektiboarekiko diskriminazio handia edo nahiko handia dagoelako pertzepzioa, EAEko biztanleen % 50ek baino gehiagok

adierazi du sexu-orientazioagatik eta/edo sexu- edo genero-identitateagatik norbaiti buruzko komentario negatiboak edo zurrumurruak entzun edo ikusi dituela, baita isekak, txantxak, txisteak, imitazioak, keinuak... ere. Biztanleen % 42,5ek adierazi du irainak ere entzun edo ikusi dituela (marikoia, bollera, traveloa…).. % 22k adierazi du ezagutu dituela LGTBI pertsona edo kolektiboa aintzat hartu ez den, parte hartzen utzi ez zaion edo bakartu den egoerak; % 17,9k adierazi du izan duela mehatxuen berri, % 13,5ek eraso fisikoen berri.

Zuzenean bizi izandako diskriminazioari dagokionez, hau da, sexu- eta genero-aniztasunagatik lehen pertsonan jasandako diskriminazioa, hamar lagunetik bik baino gehixeagok adierazi dute komentario negatiboak edo zurrumurruak jasan dituztela, eta % 1ek baino gehiagok adierazi du txantxak edo isekak eta irainak jasan dituela eta zenbait egoeratan ez dutela aintzat hartu, ez zaiola parte hartzen utzi edo bakartu egin dutela. % 0,3k adierazten du eraso fisikoak jasan dituela, % 0,5ek irainak eta % 0,6k laneko jazarpena.

Sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasunaren indizetik (2021) abiatuta lortutako informazioa zehatz aztertuta, honako ondorio hauek atera daitezkeela uste dugu. Lehenik eta behin, EAEko biztanleek sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko jarrera eta posizio positiboak badituzte ere, argi-ilunak ere badaude eta hobetzeko tarte handia dago oraindik. Hala, sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasunaren indizetik 2021ean lortutako puntuazioa 75,77 puntukoa da, non 0 jarrera itxiagoa eta intoleranteagoa den, eta 100, berriz, jarrera irekiagoa eta toleranteagoa. Indize horrek aukera ematen digu EAEko biztanleek sexu- eta genero-aniztasunarekiko duten jarrera eta posizioa une jakin batean kokatzeko (zundaketaren unea), eta aukera emango digu haien bilakaera ikusteko eta etorkizunean izango diren aldaketak monitorizatzeko (denboran zehar egindako hainbat neurketetan).

Gainera, Neurtu 2021en datuek eta sexu- eta genero-aniztasunarekiko irekitasun indizeak (2021) erakutsi digutenez, estatistikoki alde nabarmenak daude euskal gizarteko pertsonen azpitaldeen jarreretan eta posizioetan. Nolanahi ere, ez dugu aurkitu indize horretan puntuazio oso txikiak dituenik. Lortutako segmentu guztiak 58 eta 88 puntu bitarteko balioetan mugitzen dira.

Aldagai soziodemografiko batzuk aurkitu ditugu, euskal gizartea bereizten dutenak eta jarrera eta posizio toleranteagoak eta intoleranteagoak erakusten dituztenak, nahiz eta desberdintasunak intentsitateari lotuta dauden eta ez muturreko jarrerei. Desberdintasun horiek ondoen azaltzen dituzten aldagaien artean, honako hauek nabarmentzen dira: lehenik, pertsona bakoitzak erlijioaren aurrean duen jarrera, eta, bigarrenik, pertsonen adina. Erlijiorik ez dutenak eta adin txikiena dutenak dira sexu- eta genero-aniztasunarekiko eta LGTBI pertsonekiko jarrera irekienak eta positiboenak dituztenak. Bi aldagai horiekin (erlijio-sinesteak eta adina) eta nolabaiteko bereizte-gaitasuna duten beste batzuekin (sexua/generoa, habitata eta estatusa edo diru-sarrerak),

hamabi azpitaldetan segmentatu dugu biztanleria, zortzi batez bestekotik gorako jarrerekin eta lau batez bestekotik beherako jarrerekin.

Azken horri dagokionez, hala ere, garrantzitsua iruditzen zaigu, txostenaren hasieran adierazi dugun bezala, begi bistatik ez galtzea desiragarritasun sozialaren joerak izan dezakeen eragina, eta, beraz, zuhurtasunez interpretatu behar dira lortutako emaitzak. Sexu- eta genero-aniztasunari dagokionez, bereziki garrantzitsua da Jasbir Puarrek homonazionalismo gisa kontzeptualizatutako fenomenoarekin bat egin dezaketen edo harekin bat etor daitezkeen ikuspegiak ez bultzatzea, hau da, ipar globalaren nagusitasun ekonomikoa, kulturala eta politikoa legitimatzeko modua munduaren gainerakoaren aurrean, LGTBI pertsonen eskubideekiko errespetu formalean oinarrituta, eskubide horiek mendebaldeko esparru horretatik sortu diren moduan (alegia, LGTBI pertsonen eskubideekiko errespetu formal mendebaldarra gizarteen eta beren kideen garapen demokratikoaren neurri gisa hartzea)[16].

Hala, datu-ikuspegi orokorra lortu ondoren, esparru-argazkia zirriborratu dezakegu, baina ezinbestekoa da gizarte-ikerketan sakontzen jarraitzea, bai ikuspegi kuantitatiboetatik bai kualitatiboetatik, gure imajinarioak duen konplexutasun (eta aberastasun) hori zehatzago ezagutzeko.

[16]Homonazionalismo kontzeptuari buruz berrikuspen sintetikoa egiteko, ikus horri eskainitako kapitulua: Platero, R. Lucas, Rosón, María y Ortega, Esther. (eds.). (2017). *Barbarismos queer y otras esdrújulas*. Edicions Bellaterra. Hobeto ulertzeko, kontsultatu: Puar, J. K. (2017). *Ensamblajes terroristas: El homonacionalismo en tiempos queer*. Bellaterra.

# Eranskinak

Dimentsio edo faktore bakoitzari honako aldagai hauek esleitu zaizkio:

## 1. DIMENTSIOA: EREMU SOZIALA ETA ARAUEMAILEA

14_4 ER. Harreman sozialen eremuan. Nire senideek pertsona intersexualen adiskidea naizela jakitea.
14_2 ER. Harreman sozialen eremuan. Nire senideek lesbiana, gay edo bisexualen adiskidea naizela jakitea.
14_3 ER. Harreman sozialen eremuan. Nire senideek pertsona transgenero edo transexualen adiskidea naizela jakitea.
14_1 ER. Harreman sozialen eremuan. LGTBI pertsona bat bizi den auzo edo etxe-multzo berean bizitzea.
14_5 ER. Harreman sozialen eremuan. LGTBI pertsona batek maitasun keinuren bat agertzea jendaurrean (musuak, besarkadak, eskutik joatea…).
14_7 ER. Harreman sozialen eremuan. Zure seme-alabak gay, lesbiana, bisexuala, transexuala edo transgeneroa dela adieraztea.
13_2 ER. Hezkuntza-eremuan. Nire seme-alab(ar)en irakaslea homosexuala izatea (lesbiana, gay edo bisexuala).
13_5 ER. Hezkuntza-eremuan. Nire seme-alabek gelan LGTBI kolektiboko lagunak izatea.
13_3 ER. Hezkuntza-eremuan. Nire seme-alab(ar)en irakaslea transexuala/transgeneroa izatea.
13_4 ER. Hezkuntza-eremuan. Nire seme-alab(ar)en irakaslea intersexuala izatea.
16_4 ER. Osasunaren eremuan. Pertsona heterosexualen baldintza beretan izan dezatela laguntza bidezko ugalketa jasotzeko aukera.
15_2 ER. Administrazio publikoaren eremuan. Homosexualek haurrak eduki edo adoptatu ahal izatea.

16_5 ER. Osasunaren eremuan. LGTBI pertsonek Osasun Sistema Publikoan sexua berriro esleitzeko eskubidea izan dezatela (IRAKURRI 3. DEFINIZIOA).
15_5 ER. Administrazio publikoaren eremuan. Agiri ofizialetan, hala nola pasaporte edo jaiotza-agirietan, generoan hirugarren aukera bat izatea, “gizona edo emakumea” aukerez aparte.

## 2. DIMENTSIOA: LAN-EREMUA

12_3 ER. Lan-eremuan. Lan-ingurunean intersexualak hurbil izatea.
12_2 ER. Lan-eremuan. Lan-ingurunean transgeneroak edo transexualak hurbil izatea.
12_1 ER. Lan-eremuan. Lan-ingurunean lesbianak, gayak edo bisexualak hurbil izatea.
12_6 ER. Lan-eremuan. Eusko Jaurlaritzako gobernuburua intersexuala izatea.
12_5 ER. Lan-eremuan. Eusko Jaurlaritzako gobernuburua transgeneroa edo transexuala izatea.
12_4 ER. Lan-eremuan. Eusko Jaurlaritzako gobernuburua gaya, lesbiana edo bisexuala izatea.

## 3. DIMENTSIOA: HARREMAN INTIMOEN EREMUA

8_12 ER. Zenbateraino egongo zinatekeen eroso zure seme-alabak talde hauetako pertsonaren batekin harreman intimoa izango balu. Intersexuala.
8_11 ER. Zenbateraino egongo zinatekeen eroso zure seme-alabak talde hauetako pertsonaren batekin harreman intimoa izango balu. Transexuala edo transgeneroa.
8_10 ER. Zenbateraino egongo zinatekeen eroso zure seme-alabak talde hauetako pertsonaren batekin harreman intimoa izango balu. Gay, lesbiana edo bisexuala.

## 4. DIMENTSIOA: LGTBI PERTSONEKIKO SENTSIBILIZAZIOAREN EREMUA

9_5. ER. Zenbaterainoko adostasun-maila hezkuntza-ikasgaietan honako hau lantzeko: Intersexualitatea.
9_4. ER. Zenbaterainoko adostasun-maila hezkuntza-ikasgaietan honako hau lantzeko: Transexualitatea (transexuala edo transgenero izatea).
9_3. ER. Zenbaterainoko adostasun-maila hezkuntza-ikasgaietan honako hau lantzeko: Homosexualitatea (gay, lesbiana edo bisexuala izatea).

## 5. DIMENTSIOA: AUTOPERTZEPZIOAREN EREMUA

19_C ER. Balorazioa: Intersexualak.
19_A ER. Balorazioa: Lesbianak, gayak edo bisexualak.
19_B ER. Balorazioa: Transexualak edo transgeneroak.

## 6. DIMENTSIOA: ERAKUNDE-EREMUA

17_11 ER. Adostasun-maila: Erakundeek gehiegizko babesa ematen diete LGT-BI pertsonei.
17_9 ER. Adostasun-maila: Erakundeek LGTBI pertsonen aukera-berdintasuna bermatu beharko lukete.
17_13 ER. Adostasun-maila: LGTBI pertsonek gehiegizko aldarrikapenak egiten dituzte.

## 7. DIMENTSIOA: LAGUNEN EREMUAN

7_4 ER. Ba al duzu honelako lagun edo ezagunik? Transexualak, transgeneroak.
7_5 ER. Ba al duzu honelako lagun edo ezagunik? Intersexualak.

# Galdetegia

Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

ANIZTASUNAREKIKO PERTZEPZIOAK ETA JARRERAK EAE-N 2021

| | |
|---|---|
| Galdetegi-zk. | |
| Data (urtea-hilabetea-eguna) | |
| Udalerria | |
| Probintzia | |
| Elkarrizketatzailea | |

Egun on / Arratsalde on. Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia Euskadin euskal herritarrek aniztasunarekiko zer iritzi duten ikertzen ari da. Horrenbestez, zure laguntza preziatuaren beharra dugu, galdera-sorta bati erantzuteko. Kontuan hartu ez dagoela erantzun zuzenik edo okerrik; ez da azterketa; aniztasunarekin loturiko zenbait gairi buruz zure benetako iritzia jakin nahi dugu, besterik ez.

1.G. Aukeratu ahalko bazenu, zer motatako gizartetan bizi nahiko zenuke? (IRAKURRI)

| | |
|---|---|
| Gizarte anitz batean, jatorri, kultura, sinesmen, sexu-orientazio, genero-identitate... desberdineko pertsonekin. | 1 |
| Jende gehiena jatorri, kultura, sinesmen, sexu-orientazio, genero-identitate... berdinekoa den gizarte batean. | 2 |
| Ed | 98 |
| Ee | 99 |

2.G. Zure ustez Euskadin tratu berdina ematen zaie pertsona guztiei edo desberdintasunak egiten dira pertsonen arabera?

a. …legeak ezartzerakoan?
b. …zerbitzu publikoak eskuratzeko?
c. …etxebizitza bat alokatu edo erosterakoan?
d. …lanpostu bat eskuratzeko?

| | a | b | c | d |
|---|---|---|---|---|
| Pertsona guztiei tratu bera ematen zaie | 1 | 1 | 1 | 1 |
| Desberdintasunak egiten dira pertsonen arabera | 2 | 2 | 2 | 2 |
| Ez daki / Ez du erantzun | 99 | 99 | 99 | 99 |

3.G. Zure iritziz, kolektibo jakin batzuen bazterketa zenbateraino da euskal gizartearen arazo nagusietako bat? Kontuan izanda balorazio hauek: 1. Oso garrantzitsua. 2. Nahiko garrantzitsua. 3. Garrantzitsu samarra. 4. Garrantzi gutxikoa. 5. Batere garrantzi gabekoa.

| | |
|---|---|
| Oso garrantzitsua | 1 |
| Nahiko garrantzitsua | 2 |
| Garrantzitsu samarra | 3 |
| Garrantzi gutxikoa | 4 |
| Batere garrantzi gabekoa | 5 |
| Ez daki / Ez du erantzun | 99 |

4.G. Esango zenidake, zure iritziz, arrazoi hauetan oinarritutako bazterketak zenbateraino dauden zabalduta Euskadin? Hauek dira aukerak: oso zabalduta, nahiko zabalduta, ez da ohikoa, ez da batere ohikoa eta ez da gertatzen. (ERAKUTSI 1. txartela)

| | OZ | NZ | EO | EBO | EG | Ed/Ee |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Jatorri etnikoa | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Larruazalaren kolorea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Ijitoa izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Sexu-orientazioa (gay, lesbiana edo bisexuala izatea) | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Zaharregitzat edo gazteegitzat hartzea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Erlijio-sinesmenak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Desgaitasuna izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Transexuala edo transgeneroa izatea (IRAKURRI 1. definizioa) | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Gizona edo emakumea izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Intersexuala izatea (IRAKURRI 2. definizioa) | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |

5.G. Zure ustez, zer ezaugarri izan daiteke kaltegarri pertsona batentzat, besteen pare tratatua ez izateko? (BAT-BATEKOA: EZ IRAKURRI)

| | 1. | 2. | 3. |
|---|---|---|---|
| Gizona izatea | 1 | 1 | 1 |
| Emakumea izatea | 2 | 2 | 2 |
| Atzerritarra izatea | 3 | 3 | 3 |
| Ijitoa izatea | 4 | 4 | 4 |
| Gaztea izatea | 5 | 5 | 5 |
| Adinekoa izatea | 6 | 6 | 6 |
| Katoliko praktikantea izatea | 7 | 7 | 7 |
| Musulmana, judua edo beste erlijio batekoa izatea | 8 | 8 | 8 |
| Lesbiana, gay edo bisexuala izatea | 9 | 9 | 9 |
| Transexuala edo transgeneroa izatea | 10 | 10 | 10 |
| Heterosexuala izatea | 11 | 11 | 11 |
| Intersexuala izatea | 12 | 12 | 12 |
| Auzo degradatu/pobre/estigmatizatu batean bizitzea | 13 | 13 | 13 |
| Baliabide ekonomiko gutxi izatea | 14 | 14 | 14 |
| Prestakuntza txikia izatea | 15 | 15 | 15 |
| Desgaitasun fisiko eta/edo sentsoriala izatea | 16 | 16 | 16 |
| Desgaitasun intelektuala izatea | 17 | 17 | 17 |
| Gaixotasun mental bat izatea | 18 | 18 | 18 |
| Langabezian egotea | 19 | 19 | 19 |
| Gehiegizko pisua edo obesitatea izatea | 20 | 20 | 20 |
| Beste ezaugarri pertsonal bat. Zein? | 21 | 21 | 21 |
| Bat ere ez | 22 | 22 | 22 |
| Ed | 98 | 98 | 98 |
| Ee | 99 | 99 | 99 |

6.G. Aurrekoa aintzat hartuta, zure ustez, zer 3 ezaugarri izan daitezke kaltegarri pertsona batentzat, besteen pare tratatua ez izateko? Mesedez, aipatu zure ustez, gutxiago edo gehiago, kaltegarriak izan daitezkeen ezaugarri guztiak (ERAKUTSI 2. txartela. Adierazi elkarrizketatuak adierazitako 3 aukerak ordenan).

| | 1. | 2. | 3. |
|---|---|---|---|
| Gizona izatea | 1 | 1 | 1 |
| Emakumea izatea | 2 | 2 | 2 |
| Atzerritarra izatea | 3 | 3 | 3 |
| Ijitoa izatea | 4 | 4 | 4 |
| Gaztea izatea | 5 | 5 | 5 |
| Adinekoa izatea | 6 | 6 | 6 |
| Katoliko praktikantea izatea | 7 | 7 | 7 |
| Musulmana, judua edo beste erlijio batekoa izatea | 8 | 8 | 8 |
| Lesbiana, gay edo bisexuala izatea | 9 | 9 | 9 |
| Transexuala edo transgeneroa izatea | 10 | 10 | 10 |
| Heterosexuala izatea | 11 | 11 | 11 |
| Intersexuala izatea | 12 | 12 | 12 |
| Auzo degradatu/pobre/estigmatizatu batean bizitzea | 13 | 13 | 13 |
| Baliabide ekonomiko gutxi izatea | 14 | 14 | 14 |
| Prestakuntza txikia izatea | 15 | 15 | 15 |
| Desgaitasun fisiko eta/edo sentsoriala izatea | 16 | 16 | 16 |
| Desgaitasun intelektuala izatea | 17 | 17 | 17 |
| Gaixotasun mental bat izatea | 18 | 18 | 18 |
| Langabezian egotea | 19 | 19 | 19 |
| Gehiegizko pisua edo obesitatea izatea | 20 | 20 | 20 |
| Beste ezaugarri pertsonal bat. Zein? ............ | 21 | 21 | 21 |
| Bat ere ez | 22 | 22 | 22 |
| Ed | 98 | 98 | 98 |
| Ee | 99 | 99 | 99 |

7.G. Ba al duzu honelako lagun edo ezagunik?

| | Bai | Ez | Ed | Ee |
|---|---|---|---|---|
| Atzerritarra | 1 | 2 | 98 | 99 |
| Ijitoa | 1 | 2 | 98 | 99 |
| Lesbiana, gay, bisexuala | 1 | 2 | 98 | 99 |
| Transexuala, transgeneroa | 1 | 2 | 98 | 99 |
| Intersexuala | 1 | 2 | 98 | 99 |
| Desgaitasunen bat duena | 1 | 2 | 98 | 99 |
| Beste erlijio batekoa | 1 | 2 | 98 | 99 |
| Baliabide ekonomiko gutxikoa | 1 | 2 | 98 | 99 |

8.G. Seme-alabarik izan ala ez, esan mesedez, 1etik 10erako eskalan, zenbateraino egongo zinatekeen eroso zure seme-alabak talde hauetako pertsonaren batekin harreman intimoa izango balu. "1" "oso deseroso" litzateke eta "10" "erabat eroso". (ERAKUTSI 3. txartela).

| | Oso deseroso | | | | | | | | | Erabat eroso | Ed / Ee | Segun |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ijitoa | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 | 97 |
| Beltza | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 | 97 |
| Asiarra | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 | 97 |
| Kaukasiarra | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 | 97 |
| Judutarra | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 | 97 |
| Musulmana | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 | 97 |
| Budista | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 | 97 |
| Kristaua | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 | 97 |
| Ateoa | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 | 97 |
| Gay, lesbiana edo bisexuala | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 | 97 |
| Transgeneroa edo transexuala | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 | 97 |
| Intersexuala | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 | 97 |
| Desgaitasuna duen pertsona | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 | 97 |
| Gaztea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 | 97 |
| Adinekoa | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 | 97 |

9.G. Txartel hau erabilita (ERAKUTSI 4. txartela), esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazitakoarekin (1= erabat ados; 2= ados; 3= ez ados ez kontra; 4= kontra; 5= erabat kontra): Hezkuntza arloan, ikastetxeetan aniztasunari buruzko informazioa eman behar da, eta zehazki, alderdi hauek landu behar dira:

| | EA | A | Ez A Ez K | K | EK | Ed Ee |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Erlijioa edo sinesmen erlijiosoak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Jatorri etnikoa edo gutxiengo etnikoak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Homosexualitatea (gay, lesbiana edo bisexuala izatea) | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Transexualitatea (transexuala edo transgeneroa izatea) | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Intersexualitatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Desgaitasun/aniztasun funtzionala | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Ijito herriaren historia eta kultura | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |

10.G. Oro har, zure ustez nahikoa egiten al da zure lanpostuan aniztasunarekiko errespetua sustatzeko, kolektibo hauetako bakoitzari dagokionez? (ERAKUTSI 5. txartela).

a) Bai
b) Bai, neurri bateraino
c) Berez, ez
d) Ez
e) Ez dago aniztasun hori sustatzeko beharrik
f) Gaur egun ez dut lanik
g) Ed / Ee

| | a | b | c | d | e | f | g |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gizona izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Emakumea izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Atzerritarra izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Ijitoa izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Gaztea izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Adinekoa izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Katoliko praktikantea izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Musulmana, judua edo beste erlijio batekoa izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Lesbiana, gay edo bisexuala izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Transexuala edo transgeneroa izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Heterosexuala izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Intersexuala izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Auzo degradatu/pobre/ estigmatizatu batean bizitzea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Baliabide ekonomiko gutxi izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Prestakuntza txikia izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Desgaitasun fisiko edo sentsoriala izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Desgaitasun intelektuala izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Gaixotasun mental bat izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Langabezian egotea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |
| Gehiegizko pisua edo obesitatea izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 99 |

Orain, kolektibo jakin batzuekiko jarrerei buruz hitz egingo dugu, zehaztasun handiagoz. Gay, lesbiana, bisexual, transexual, transgenero edo intersexualei (LGTBI) dagokienez...

11.G. Zure ustez, LGTBI kolektiboko pertsonak baztertu egiten dira esparru eta leku hauetan? (ERAKUTSI 6. txartela). (1. Asko. 2. Nahikoa. 3. Zerbait. 4. Gutxi. 5. Ezer ere ez.)

| | A | N | Z | G | E | Ed Ee |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lan-esparruan (lana eskuratzea eta lanbidean aurrera egitea) | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Familiaren esparruan (familia-harremanak, familia-unitate berriak sortzea, adopzioa...) | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Lagunen eta ezagunen artean | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Hezkuntza-esparruan (hezkuntza formala eta ez-formala) | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Osasunaren esparruan (osasun-zerbitzua izatea eta jasotzea) | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Auzoan edo komunitatean | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Gune publikoetan (kalea, jatetxeak, plazak, dendak...) | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Administrazio publikoaren esparruan (arreta-bulegoak, gizarte-zerbitzuak, polizia, epaitegiak...) | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Aisialdiko, kulturako eta kiroletako eremuetan | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Garraio publikoan | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Parte-hartze soziala edota politikoa izateko aukeretan | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Poliziaren trataeran | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |

Orain, LGTBI kolektiboko pertsonekin izan ditzakezun zenbait erlazio eta egoera aipatuko dizkizut.

12.G. Lan-esparruan. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia? (ERAKUTSI 7. txartela) (1 =Oso ongi; 2= Ongi; 3= Gaizki; 4= Oso gaizki)

| | OO | O | G | OG | Ed/Ee |
|---|---|---|---|---|---|
| Lan-ingurunean lesbianak, gayak edo bisexualak hurbil izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Lan-ingurunean transgeneroak edo transexualak hurbil izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Lan-ingurunean pertsona intersexualak hurbil izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Eusko Jaurlaritzako gobernuburua gaya, lesbiana edo bisexuala izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Eusko Jaurlaritzako gobernuburua transgeneroa edo transexuala izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Eusko Jaurlaritzako gobernuburua intersexuala izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |

13.G. Hezkuntza-esparruan. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia? (ERAKUTSI 7. txartela) (1 =Oso ongi; 2= Ongi; 3= Gaizki; 4= Oso gaizki)

| | OO | O | G | OG | Ed/Ee |
|---|---|---|---|---|---|
| Hezkuntzan, sexu, identitate- eta genero-adierazpen aniztasunaren arloan irakasleen prestakuntza iraunkorra bermatzea. | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Nire seme-alab(ar)en irakaslea homosexuala izatea (lesbiana, gay edo bisexuala) | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Nire seme-alab(ar)en irakaslea transexuala/ transgeneroa izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Nire seme-alab(ar)en irakaslea intersexuala izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Nire seme-alabek gelan LGTBI kolektiboko lagunak izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Nire seme-alaben ikastetxean, hezkuntzari dagokionez, pertsona guztien aukera-berdintasuna eta aniztasunaren trataera bermatzeko ahalegina egitea | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |

14.G. Harreman sozialen esparruan. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia? (ERAKUTSI 7. txartela) (1 =Oso ongi; 2= Ongi; 3= Gaizki; 4= Oso gaizki)

| | OO | O | G | OG | Ed/Ee |
|---|---|---|---|---|---|
| LGTBI pertsona bat bizi den auzo edo etxe-multzo berean bizitzea | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Nire senideek lesbiana, gay edo bisexualen adiskidea naizela jakitea | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Nire senideek pertsona transgenero edo transexualen adiskidea naizela jakitea | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Nire senideek pertsona intersexualen adiskidea naizela jakitea | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| LGTBI pertsona batek maitasun keinuren bat agertzea jendaurrean (musuak, besarkadak, eskutik joatea...) | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Transexualak eta transgeneroak sentitzen duten genero-identitatearen arabera sartzea aldageletan eta komunetan | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Zure seme-alabak gay, lesbiana, bisexuala, transexuala edo transgeneroa dela adieraztea | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Zure seme-alabek LGTBI lagunak eramatea etxera | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |

15.G. Administrazio publikoaren esparruan. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia? (ERAKUTSI 7. txartela) (1 =Oso ongi; 2= Ongi; 3= Gaizki; 4= Oso gaizki)

| | OO | O | G | OG | Ed/Ee |
|---|---|---|---|---|---|
| Sexu bereko bi pertsona ezkondu ahal izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Homosexualek haurrak eduki edo adoptatu ahal izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Gizon moduan jaio eta emakume sentitzen den pertsona batek bere izena eta dokumentazioa aldatu ahal izatea emakume moduan tratatua izateko (edo alderantziz) | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Pertsonak zer generokoak sentitzen diren, horren araberako arreta jasotzea administrazio publikoan | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| Agiri ofizialetan, hala nola pasaporte edo jaiotza-agirietan, generoan hirugarren aukera bat izatea, “gizona edo emakumea” aukerez aparte | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |

16.G. Osasun-sistemaren esparruan. Zenbateraino iruditzen zaizu ondo edo gaizki esaldi hauen edukia? (ERAKUTSI 7. txartela) (1 =Oso ongi; 2= Ongi; 3= Gaizki; 4= Oso gaizki)

| LGTBI... pertsonek... | OO | O | G | OG | Ed/Ee |
|---|---|---|---|---|---|
| ...pertsona heterosexualen baldintza beretan jaso ditzatela osasun-tratamenduak eta -zerbitzuak | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| ... tratamendu egokia jaso dezatela sexu- eta ugalketa-osasunari dagokienean | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| ... beren sexu- edo genero-identitatearen araberako trataera jaso dezatela ospitaleratze kasuetan | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| ... pertsona heterosexualen baldintza beretan izan dezatela laguntza bidezko ugalketa jasotzeko aukera | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |
| ...Osasun Sistema Publikoan sexua berriro esleitzeko eskubidea izan dezatela (IRAKURRI 3. definizioa) | 1 | 2 | 3 | 4 | 99 |

17.G. Txartel hau erabilita (ERAKUTSI 4. txartela), esan zenbateraino zauden ados edo ez esaldi hauetan adierazitakoarekin (1= erabat ados; 2= ados; 3= ez ados ez kontra; 4= kontra; 5= erabat kontra):

| | EA | A | EzA EzK | K | EK | Ed Ee |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Garai batean LGTBI pertsonak baztertuta zeuden; gaur egun jada ez | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| LGTBI pertsonek normalean mugak dituzte beren nortasuna edota irudia adierazteko | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| LGTBI pertsonek heterosexualen eskubide berberak dituzte gaur egun | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Gaur egun LGTBI pertsona gehiago dago, modan dagoelako | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| LGTBI pertsonek zailtasunak dituzte enplegua bilatzeko (enplegu-zerbitzuan jasotzen duten arreta, hautaketa-prozesuetan parte hartzea ukatzea) | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| "Marikoia", "marimutila" eta halako esamoldeak hitz egiteko modu bat dira, eta ez irainak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Sexu-orientazioa eta genero-identitatea aldatu egin daitezke pertsona baten bizitzan | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Zenbaitetan, LGTBI pertsonen aurkako arbuioa arrazoizkoa izan daiteke, pertsona horiek duten jarrera probokatzailea eta exhibizionista kontuan izanda | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Erakundeek LGTBI pertsonen aukera-berdintasuna bermatu beharko lukete | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Oro har, administrazioko izapideetan eta inprimakietan aintzat hartu beharko litzateke sexu- eta genero-aniztasuna | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Erakundeek gehiegizko babesa ematen diete LGTBI pertsonei | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Arbuiatuak izateko beldurrez, LGTBI pertsona batzuek sentitzen dute gizarteak mugak ezartzen dizkiela beren nortasuna, irudia eta maitasuna adierazteko | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| LGTBI pertsonek gehiegizko aldarrikapenak egiten dituzte | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| Oro har, gizartearen joera da LGTBI pertsonak egon badaudela eta haien errealitatea ezkutatzea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| LGTBI pertsonek ez dituzte heterosexualen lan-baldintza berak (ordutegia, soldata, kokapena, prestakuntza-aukerak...) | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |
| LGTBI pertsonek ez dituzte heterosexualen aukera berak lanpostu hobea eskuratzeko eta lanbide-ibilbidean aurrera egiteko | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 99 |

18.G. LGTBI pertsonei buruz ari garela…

A. jakin duzu edo ikusi duzu LGTBI pertsonaren batek honelako bazterketa-egoerarik jasan duen? (ERAKUTSI eta IRAKURRI 8. txartela)
B. zure sexu-orientazioa edo genero-identitatea dela eta, honelako egoera baztertzailerik jasan duzu zure larruan?
Erantzun bat baino gehiago eman dezakete (ERAKUTSI eta IRAKURRI 8. txartela)

| | A Jakin | | | B Jasan | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Bai | Ed | Ee | Bai | Ed | Ee |
| Eraso fisikoak (gauzak bota, kolpeak, bultzakadak...) | 1 | 98 | 99 | 1 | 98 | 99 |
| Mehatxuak | 2 | 98 | 99 | 2 | 98 | 99 |
| Irailak: marikoia, bollera, trabeloa… | 3 | 98 | 99 | 3 | 98 | 99 |
| Isekak, txantxak, txisteak, imitazioak, keinuak… inoren aurrean | 4 | 98 | 99 | 4 | 98 | 99 |
| Norbaiti buruzko iruzkin negatiboak edo zurrumurruak | 5 | 98 | 99 | 5 | 98 | 99 |
| Ez ikusiarena egitea, parte hartzen ez uztea, isolatzea… | 6 | 98 | 99 | 6 | 98 | 99 |
| Laneko jazarpena (Mobbing) | 7 | 98 | 99 | 7 | 98 | 99 |
| Bat ere ez | 8 | 98 | 99 | 8 | 98 | 99 |

19.G. Laburbilduz, LGTBI pertsonei buruzko galdera-sorta honekin amaitzeko, non kokatuko zenuke zure burua LGTBI pertsonekiko tolerantzia-eskala batean, kontuan hartuta 0 "Guztiz intolerantea" dela eta 10 "Oso tolerantea"? (ERAKUTSI 9. txartela).

A. Lesbianak, gayak edo bisexualak

| Guztiz intolerantea | | | | | | | | | | Oso tolerantea | Ed Ee |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

B. Transexualak edo transgeneroak

| Guztiz intolerantea | | | | | | | | | | Oso tolerantea | Ed Ee |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

C. Intersexualak

| Guztiz intolerantea | | | | | | | | | | Oso tolerantea | Ed Ee |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

20.G. Eta euskal gizartea, non kokatuko zenuke LGTBI pertsonekiko tolerantzia-eskala batean, kontuan hartuta 0 "Guztiz intolerantea" dela eta 10 "Oso tolerantea"? (ERAKUTSI 9. txartela).

A. Lesbianak, gayak edo bisexualak

| Guztiz intolerantea | | | | | | | | | | Oso tolerantea | Ed Ee |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

B. Transexualak edo transgeneroak

| Guztiz intolerantea | | | | | | | | | | Oso tolerantea | Ed Ee |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

C. Intersexualak

| Guztiz intolerantea | | | | | | | | | | Oso tolerantea | Ed Ee |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

Orain, pertsonen eskubideei, eskura dauden zerbitzuei eta erakundeek bazterketaren aurrean duten jokaerari jarriko diegu arreta.

21.G. Badakizu zer eskubide duzun bazterketa baten biktima izanez gero?

| | |
|---|---|
| Bai | 1 |
| Ez | 2 |
| (EZ IRAKURRI) Segun | 97 |
| Ed | 98 |
| Ee | 99 |

22.G. Ba al duzu honako hauen berri? (IRAKURRI GUZTIAK).

| | Bai | Ez | Ed | Ee |
|---|---|---|---|---|
| Eraberean: | 1 | 2 | 98 | 99 |
| Berdindu: | 1 | 2 | 98 | 99 |
| Emakunde: | 1 | 2 | 98 | 99 |
| Migraziorako Euskal Itun Soziala | 1 | 2 | 98 | 99 |

23.G. Zure ustez, euskal erakundeak nahikoa ahalegin egiten ari al dira honako hauek lortzeko? (IRAKURRI GUZTIAK).

| | Bai | Ez | Ed | Ee |
|---|---|---|---|---|
| Emakumeen eta gizonen arteko erabateko berdintasuna lortzeko? | 1 | 2 | 98 | 99 |
| Desgaitasuna duten pertsonak gizartean erabat integratzeko? | 1 | 2 | 98 | 99 |
| Immigranteak gizartean erabat integratzeko? | 1 | 2 | 98 | 99 |
| Homosexualak eta bisexualak diskriminatuak ez izateko? | 1 | 2 | 98 | 99 |

| | Bai | Ez | Ed | Ee |
|---|---|---|---|---|
| Transexualak edo transgeneroak diskriminatuak ez izateko? | 1 | 2 | 98 | 99 |
| Intersexualak diskriminatuak ez izateko? | 1 | 2 | 98 | 99 |
| Ijitoak gizartean erabat integratu ahal izateko? | 1 | 2 | 98 | 99 |
| Sinesmen erlijioso guztietako pertsonek beren fedea agertu ahal izateko? | 1 | 2 | 98 | 99 |
| Indarkeria matxistarekin bukatzeko? | 1 | 2 | 98 | 99 |

SOZIODEMOGRAFIKOAK

A. Elkarrizketatuaren **sexua/generoa**

| | |
|---|---|
| Gizonezkoa | 1 |
| Emakumezkoa | 2 |
| Ez bitarra | 3 |
| Beste batzuk | 4 |

B. Zenbat **urte** egin dituzu azken urtebetetzean?

| |
|---|
| |

C. Zer pertsona bizi dira zure **etxean**?

| | |
|---|---|
| Pertsona bakarra | 1 |
| Bikotea seme-alabarik gabe | 2 |
| Guraso bakarra seme-alabekin | 3 |
| Bikotea seme-alabekin | 4 |
| Bikotea, seme-alabak eta familiako beste kide batzuk | 5 |
| Familia, bestelako ahaidetasun-erlazio batzuekin | 6 |
| Ahaidetasun-erlaziorik gabeko pertsonak | 7 |
| Ahaidetasun-erlazioa duten eta ez duten pertsonak | 8 |
| Ed / Ee | 99 |

D. Zein da zure **egoera zibila**?

| | |
|---|---|
| Ezkongabea | 1 |
| Ezkondua | 2 |
| Izatezko bikotea | 3 |
| Alarguna | 4 |
| Banandua | 5 |
| Dibortziatua | 6 |
| Ed / Ee | 99 |

E. **Habitata**:

| | |
|---|---|
| 5.000 biztanle edo gutxiago | 1 |
| 5.001 - 20.000 biztanle artean | 2 |
| 20.001 - 150.000 biztanle artean | 3 |
| Hiriburua | 4 |
| Ed / Ee | 99 |

F. EAEko **probintzia**

| | |
|---|---|
| Bizkaia | 1 |
| Gipuzkoa | 2 |
| Araba | 3 |

G. Zein **herrialdetan jaio** zinen?

| | |
|---|---|
| Espainia | 1 |
| Beste herrialde bat (Adierazi..........................................................) | 2 |
| Ed / Ee | 99 |

H. Zein **nazionalitate** duzu?

| | |
|---|---|
| Espainiarra bakarrik | 1 |
| Espainiarra eta beste bat | 2 |
| Beste bat bakarrik | 3 |
| Ed / Ee | 99 |

I. Zer ikasketa dituzu? (Mailarik handienekoak, betiere).

| | |
|---|---|
| Ikasketarik ez, lehen mailako ikasketak edo OHO bukatu gabe | 1 |
| Lehen mailako ikasketak: OHO, oinarrizko batxilergoa, LH 1 | 2 |
| Bigarren mailako ikasketak: UBI, BBB, goi-mailako batxilergoa, LH 2 | 3 |
| Erdi-mailako unibertsitate-ikasketak: diplomak | 4 |
| Goi-mailako unibertsitate-ikasketak | 5 |
| Ed / Ee | 99 |

J. **Erlijioaren arloan**, nola definitzen duzu zeure burua?

| | |
|---|---|
| Katoliko praktikantea | 1 |
| Katoliko ez-praktikantea | 2 |
| Beste erlijio bat. Zein? | 3 |
| Agnostikoa, ateoa edo berdin dizu | 4 |
| Ed / Ee | 99 |

K. Zure etxean, zenbateko **diru-sarrera garbiak** izaten dituzue hilean, gutxi gorabehera, kontzeptu guztiak kontuan hartuta? Ez duzu kopuru zehatz bat eman behar; nahikoa da tarte hauetako bat aukeratzea (ERAKUTSI 10. txartela):

| | |
|---|---|
| 1.000 € arte | 1 |
| 1.001 eta 1.500 € artean | 2 |
| 1.501 eta 2.000 € artean | 3 |
| 2.001 eta 2.500 € artean | 4 |
| 2.500 € baino gehiago | 5 |
| Ed / Ee | 99 |

L. Zure **lan-egoerari** dagokionez, zein da zure egoera une honetan?

| | |
|---|---|
| Ordaindutako lana dut | 1 |
| Langabea | 2 |
| Erretiratua, jubilatua, pentsionista, ezindua | 3 |
| Ikaslea | 4 |
| Etxeko langilea | 5 |
| Beste bat. Zehaztu zein.......................................................................... | 6 |
| Ed / Ee | 99 |

M. Non bizi zaren kontuan izanda (Euskadi), zeure burua kolektibo hauetako bateko **kidetzat** duzu? IRAKURRI. Erantzun anitzeko galdera da.

| | |
|---|---|
| Gutxiengo etniko bateko kide | 1 |
| Larruazalaren kolorea aintzat hartuta, gutxiengo bateko kide | 2 |
| Gutxiengo erlijioso bateko kide | 3 |
| Ijitoa | 4 |
| Sexu-gutxiengo bateko kide (gay, lesbiana, bisexuala, transgeneroa, intersexuala) | 5 |
| Desgaitasuna aintzat hartuta, gutxiengo bateko kide | 6 |
| Beste motaren bateko gutxiengo bateko kide. Zehaztu zein.............. | 7 |
| Ez zara inongo gutxiengorekin identifikatuta sentitzen | 8 |
| Ed / Ee | 99 |

N. Zure **ideologia politikoari** dagokionez, non kokatuko zenuke zeure burua 0tik 10erako eskala batean, kontuan hartuta 0 "ezker-muturrekoa" eta 10 "eskuin-muturrekoa" dela? (ERAKUTSI 11. txartela).

| Ezkerra | | | | | | | | | | Eskuina | Ed/Ee |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

O. Oro har, nolakoa zarela esango zenuke: baikorra edo ezkorra? 0tik 10era bitarteko eskala batean (0 ezkorra da, eta 10, berriz, baikorra), zenbat puntu emango zenizkioke zeure buruari?

| Ezkorra | | | | | | | | | | Baikorra | Ed Ee |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

P. Epe ertain eta luzera, nolako aurreikuspenak dituzu, zure ustez, etorkizunean aurrera egiteko? 0tik 10erako eskala batean, (0 = oso aurreikuspen txarrak, eta 10 = aurreikuspen bikainak) non kokatuko zenuke zure burua?

| Oso aurreikuspen txarrak | | | | | | | | Aurreikuspen bikainak | | | Ed Ee |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

Izena: ______________________________________________

Telefonoa: ______________________________________________

Udalerria: ______________________________________________

ADIERAZI DATU HORIEK ELKARRIZKETA BENETAN EGIN DELA EGIAZTATZEKO ESKATU ZAIZKIOLA.

## Segmentazioaren eta tipologien zuhaitza



ikus pegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia

Observatorio Vasco de Inmigración